



"JAPONIAKO ESKAINTZA ONARTZEKO ERABAKIGARRIA IZAN DA REALAK EMAN DIDAN BULTZADA "

Beñat Labaien entrenatzaile bergararrak ezin izan dio Asiatik iritsi zaion aukerari ezetzik esan; Realak utzi eta Tokushima Vortis taldea gidatzeko kontratua sinatu du / 32

Beñat Labaien,
Japoniako Tokushima
Vortis taldearen
futbol zelaian.

TOKUSHIMA VORTIS



Ospitale zaharra eraisten, oraingo martitzenean. ENEKO AZKARATE

Ospitale zaharreko eraikina botatzen hasi dira, berria egiteko / 3

SINADURAK

 IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA / 6	 MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA / 16
 ANDER GARAY / 9	 IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA / 26
	 AINTZANE OIARBIDE / 40



'Crossfit': bailaran
hazten ari den kirol
diziplina

Katalin Antxia
diseinatzaileari
elkarriketa

SEAT LEON CUPRA



Disfrutatu teknologiaz!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • APPRASATE • 943 71 18 70



Bailarak ere baditu bere txakolina eta sagardoa

Debagoieneko txakolin-ekoizleen arabera, lehorreak izanda ere aurtengo txakolinaren uzta "ona" eta "osasuntsua" izan da. Oñatin eta Arrasaten egiten dute. Sagardoa egiteko sagarren uzta, ordea, iazkoa baino txikiagoa izan da, eguraldiarengatik

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Tradizioari jarraika, San Anton egunean aurkeztu zuten Getariako Txakolinaren uzta berria, urtarrilaren 17an. Iazkoa baino %20 handiagoa da eta 4,3 milioi botila merkaturatuko dituzte, guztira. Izan ere, mahatsa ondo zegoela bildu zuten, eta, aurkezpenean azaldutakoaren arabera, horrek gorputz handiagoa eta zapore orekatua ematen dio edariari. Bada, jatorri izen horren pean dago bailaran ekoiztutako txakolina ere.

Murgialdai da horietako bat. Oñatin dago, eta Aritz Galdos arduradunak uztaren berri eman du. Adierazi duenez, bizpahiru bero-kolpe izan ziren iaz eta ez zeuden ziur nola erantzun zuten mahastiek. Dena den, lehorreek ez zuten ia kalterik eragin. "Osasun aldetik, mahatsa ateratzeko urte erraza izan da; edo orain artekoarekin alderatuta, errazagoa". Ez da gorrin arazorik izan eta beste aldietan baino gutxiago sulfatatu dute. "Errazagoa izan da kontrola eta loraketan ondo loratu zen; giro ona egin zuen". Beraz, nabarmendu du uzta "ona" ez ezik, "osasuntsua" ere izan zela.

Eta bide beretik eutsi dio Jon Urzelaik ere. "Hezetasunaren



Murgialdai Txakolina botilatan sartuta. ARITZ GALDOS

faltan, osasuntsuago mantendu dira mahatsondoak; normalean egiten ditugun tratamenduen erdiak egin ditugu", adierazi du Belaskua Txakolina-ko arduradunak. Dena den, argi du leku batzuetan mahastiek euri faltarengatik sufritu egin dutela: "Landareak eskatu egiten du, baina lurrean ez dago; estres hidrikoa izan dute".

Halaber, datu zehatzik eman ez duen arren, Urzelaik aitortu du jasotakoari dagokion ekoizpena "oso ona" izan dela, eta pozik dago Galdos ere, iaz 50.000

kilo mahats inguru jaso baitzituzten Murgialdain, eta, horri eskerrak, espero dute 30.000 botila inguru merkaturatzea. Hain justu, orain dabilta lan horretan, etiketatzen eta botilak kaxatan sartzen, saltzen hastearekin bat.

Belaskuan ere probatu dute aurtengo txakolina eta Urzelaik adierazi du "oso gozoa" dagoela, "fresko-freskoa".

Upaingoa eta Kataide

Oñatin, ordea, badira beste proiektu batzuk ere txakolinari

lotuak. Esaterako, Upaingoa Txakolina. Gainontzekoen eran, Getariako Txakolina izenpean dago, baina badu berezitasun bat. Orain arte, behintzat, Marques de Riscal upategiari (El-tziego, Araba) saldu dio mahatsa, eta bodegak bere markapean komertzializatzen du. Halere, Upaingoa Txakolina osatzen dutenek azaldu dute aldaketa batzuk egiten dabiltzala, baina nahiago dute ezer ez aurreratu.

Oñatin ez ezik, Arrasaten ere bada txakolina ekoizten duenik: Kataide Txakolina.

Txakolin ekologikoa

Horrez gain, Oñatin beste txakolindegik berri bat izango da laister: Koste. Duela bost urte landatu zituzten mahatsondoak eta prozesu osoa baserrian bertan egingo dute, enologoa den lagun baten laguntzarekin, landatetik botilan sartzeraino.

Egun, Getariako Txakolina izendapenean sartuta dago Koste ere, baina, besteak ez bezala, ekologikoa da. Gipuzkoan beste bi txakolindegik baino ez dute produktu hori modu ekologikoan ekoizten: Urkizahar (Beizama) eta Bengoetxe (Olaberría). Hala, asmoa da datorren urtean merkaturatzea Koste txakolina, eskuratzeko baitauka baimena.

Sagardoaren uzta

Txakolinaren denboraldiaz gain, ordea, hasia da sagardoarena ere. Urtarrilaren 11n egin zuten txotx irekiera Astigarragan (Gipuzkoa) eta egun bat geroago hasi zuten ofizialki Arabako sagardo denboraldia, Trebiñu sagardotegian.

Hiru sagardotegi daude, guztira, lurraldean, eta tartean da Iturrieta, Aramaion. "Aurtengo uzta iazkoa baino pixka bat txi-

kiagoa da; oso eskasa izan da eguraldia, baita zuhaitzentzako ere: bero handia, euri falta...". Loraldiak kalteak izan ditu, estres hidrikoagatik, besteak beste, eta, gainera, fruituak txikiak izan dira, Juanjo Peciña Iturrieta sagardotegiko arduradunaren arabera.

Hiru sagardotegien artean 60.000 litro sagardo ekoiztu dituzte aurtengoa Araban -95.000 izan ziren iaz- eta, gainera, egoera klimatologikoa dela-eta, Peciñak azaldu du alkohol graduazioa puntu bat gehiago duela. Dena den, aitortu du eurentzako "ona eta kalitatekoa" dela uzta berria, bertaratzen direnek baloratu beharko duten arren.

Bertako sagarrak

Sagardo hori ekoizteko, oro har, Aramaio sagarrak erabiltzen dituzte, euren sagastietakoak. Halere, uzta txikiagoa izan denez, aurtengoa Arabako beste leku batzuetara ere jo dute sagarrak biltzera. "Halaber, ez dugu urrutira joan beharrik; aspalditik daramagu lanean, Araban, arbola-hektarea gehiago jartzeko eta ekoizpen gehiago lortzeko; kilo gehiago sortzen dira". Are gehiago, batzuetan, Bizkaira eta Gipuzkoara ere jotzen dute.

Sagar bat edo beste izan, baina, sagardo arruntaz gain badituzte berezitasun gehiago ere Iturrieta: eztiarekin nahastu dute sagardoa eta sagardo aparduna, arrunta, ardoa eta garagardoa dituzte produktu berezizat.

ESTRES HIDRIKOAK ERAGINA IZAN DU ZUHAITZETAN; BAINA, BATIK BAT, SAGARRONDOETAN

Autonomoen JUBILAZIOA eta negozio txikien TRANSMISIOA

Geroa bermatuz

JARDUNALDIAK 2023



NORENTZAT: Negozio txikien jabeak
JARDUNALDIAK (14:00-16:30)

AUTONOMOEN JUBILAZIOA

ARRASATE - Otsailak 6
Debagoieneko Mankomunitatea
BERGARA - Otsailak 8
Irizar jauregia
OÑATI - Otsailak 9
Bidebarrieta

NEGOZIO TXIKIEN TRANSMISIOA

ARRASATE - Otsailak 13
Debagoieneko Mankomunitatea
BERGARA - Otsailak 15
Irizar jauregia
OÑATI - Otsailak 16
Bidebarrieta

Doako tailerrak dira, baina izen-ematea beharrezkoa da. Plaza mugatuak. Tailerrak egiteko, taldea eratu behar da.

INFORMAZIO GEHIAGO

943 79 30 90

rgarcia@debagoiena.eus

IZEN-EMATEA





Arrasateko Ospitale zaharra eraisteko lanak, asteon. ENEKO AZKARATE

Hasi dituzte Arrasateko Ospitale zaharra botatzeko lanak

Lurzorua aztertuko dute, ea kutsatuta dagoen jakiteko; Ospitale mediko-kirurgikoa handitu egingo dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ARRASATE

Joan den abenduan hasi zituzten Arrasateko Ospitaleko eraikin zaharra eraisteko lehen lanak eta asteon hasi dira makinak zeregin horretan. Lau hilabete izango dituzte horretarako eta Osakidetzak espero du martxoan amaitzea lan horiek.

Hala ere, horren ondoren, lurzoruen azterketa egingo dute, kutsatuta egon daitekeelakoan, Aritz Aldanondo Osakidetzako Arkitektura Zerbitzuko teknikariak azaldu duenez: "Eraikina eskola bat zen lehen eta industria zuen inguruan. Lege berri bat dago eta horrek ez dio lurra kutsatuta dagoela, baizik eta egon daitekeela. Baina eskatzen du azterketa egitea". Hala, behin hori jakinda, nola jokatu erabakiko dute.

Lanak egin bitartean, ordea, urrian hasi zuten proiektuaren idazketarekin jarraituko dute, eta, aurreikuspenen arabera, uda amaierarako proiektua prest egotea espero dute, ostean lizitazioa atera ahal izateko. Lanak, berriz, datorren urtearen hasiera aldean has litezke: "Iraupenari dagokionez, gutxi

gorabehera, lau-pabost urtekoa izango da; 2029an bukatuta egongo omen da".

Dena den, lanak direla-eta, ez da asistentzia jardueran arazorik izango, obrak bateragarriak direlako egunerokoarekin.

25 milioi euro

Proiektuaren kostuari dagokionez, 25 milioi eurokoa da eta, hain zuzen ere, asmoa da pabiloi berrian eguneroko ospitale mediko-kirurgikoa handitzea, endoskopia zerbitzua eskainiko duen digestio unitate berri bat egitea, errehabilitazio zerbitzu berri bat sortzea eta erresonantzia magnetikoko gela bat integratzea.

Horrez gain, larrialdi zerbitzuetarako beste base bat egingo dute, eta kanpoko kontsulten eremua handitu. Ehun plazako lurpeko aparkamendu bat ere aurreikusi dute proiektuan.

25 MILIOI EUROKO KOSTUA IZANGO DU PROIEKTUAK; OBRA 2029AN AMAITZEA ESPERO DUTE


euritsuenak taulan. Bertan ageri zen 2023ko urtarrilaren 1a izan dela azken lau hilabeteetako egunik euritsuena bailaran. Ez zen zuzena. Urtarrilaren 15a izan zen.

'Hi Gazte!': azken festa

Hi Gazte dinamikaren 2022ko azken festa egin zuten atzo Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta. Gazteen artean euskara sustatu nahi du, euskarazko edukiak sortuta. DBHko hamalau ikastetxek eta 1.200 ikaslek hartu dute parte. Bost iritsi dira finalera; tartean, Bergarako Aranzadi Ikastola. Azkenean, Orixo BH1K irabazi du.



XABIER URZELAI



Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Zein dira zure zaletasunak?

Ikasketak Arizmendi Ikastolan egin nituen. Ointxe-Mondragon Unibertsitatea saskibaloitza taldean jokatu dut eta zeharkako flauta jotzen dut. Horretaz gain, eski alpinoan eta bodyboardean aritzen naiz.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Elektronikako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik gustatu izan zait makinekin eta robotekin jolastea, baina Elektronika Industrial gradua aukeratzearren arrazoia nagusia izan da etorkizunari begira honek eskainiko dizkidan aukerak. Unibertsitatea aukeratzearren arrazoia izan dira PBL (Project Based Learning) proiektuak, eredu duala,

"PBL proiektuak eta eredu duala gustatzen zaizkit gehien"

Anjel Rozas Lizarralde (Arrasate, 20 urte) Industria Elektronika Ingeniaritza graduko hirugarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean; eta Lan Ikaste Partekatzea (LIP) egiten dabil Ikerlanen.

gertutasuna eta txikitatik kooperatibekin izandako harremana.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Praktikoak eta proiektu errealetan oinarritutakoak dira. Unibertsitateak zer gustatzen zaizu gehien? Eta ezer hobetzeko? PBLak eta eredu duala gustatzen zaizkit gehien. Zerbait hobetzekotan, berriz, PBLko defentsak aipatuko nituzke. Aurkezpena egiteko garaian ahoz erantzuteko galdera teoriko batzuk eginez nahikoa izango litzateke. Azterketei begira ere, azken asteetan beti pilatzen dira; seihilekoa hobeto banatuko balitz, ez litzateke horrelakorik gertatuko. Lanean ari zara ikasten zabilzan bitartean, eredu

dulean; non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Ikerlanen ari naiz, eredu dulean. PCB laborategian aritu naiz, soldatzen eta material elektronikoko biltegiko antolakuntzarekin laguntzen, plaka elektronikokoak diseinatzen ikasten ari naiz eta gestio kontuekin ere aritu naiz.

Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Graduan ikasten ez ditudan gauzak ikasteaz gain, lan-esparruan eskua sartzeko balio izan dit LIPEk. Eta, gainera, pertsona asko ezagutu ditut.

Zeintzuk dira zure asmoak etorkizunerako?

Datorren urtean laugarren maila eta gero, agian, masterra egingo dut; eta, nork daki, beharbada, lan egiten dudun bitartean.

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENA aldizkarian, zuzena ez zen zenbaki bat argitaratu zen hirugarren orrialdean, *Irailetik egun*

Miritxako eoliko enpresaren proiektua, tramitean

Eusko Jaurlaritzak izapidetzen ari diren proiektu berriztagarrien zerrenda aurkeztu du, eta horietako bat da Gatzagakoa. Datozen bi asten barruan, Grupo Capital Energy enpresakoak izango dira Gatzagako udal ordezkariekin Miritxa eremua ezagutzen

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eusko Jaurlaritzak energia berriztagarrien inguruan dauden berritasunak jakinarazi ditu, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren bidez. Horrekin batera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak jakinarazi duenez, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak (LPS) beste pauso bat eman du eta Lurraldearen Antolamendurako Batordearen eskuetan dago dagoeneko. Horien artean izapidetzen ari diren proiektu berriztagarrien gaineko zerrenda ere aurkeztu dute eta bailaran kokatutako proiektuak Trekutz (Antzuola) eta Miritxa (Leintz Gatzaga) dira.

Miritxako proiektua

2022ko martxoan, Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian Miritxa izeneko parke eoliko berri baterako administrazio-baimena eskatu zuten. Sei aerosorgailu jartzeko asmoa zuten, hasiera batean 27 megawatteko potentzia izango lukete. Marietaren gainean kokatuko litzateke, Arabako Arratzua-Ubarrundia, Burgelu eta Barrundia udalerrien eta Gatzaga udalerriaren artean. Hala ere, seitek hiru aerosorgailu atzera bota, eta asmo berria lau jartzea dela adierazi dute proiektua aurrera

eramane nahi duten Grupo Capital Energykoek, Gatzagako Udal ordezkariaren arabera.

Gatzagako lurretan bisita

"Hasieran aurkeztu zuten proiektu eolikoaren instalazioaren lehen ingurumen-txostenean, Elgea parke oso gertu egongo zatekeena, atzera bota zuten, batez ere, hegazti migratzaileak arriskuan daudela ikusi zelako, besteak beste. Orain, Miritxa inguruan jarri nahiko litzateke aerosorgailuak, eta oraindik egin beharrekoak berde samar daude. Sei aerosorgailutik hiru jartzea baztertu zitezenez, orain, guztira, lau aerosorgailu jartzeko asmoa agertu dute. Lehen urratsak egin dituzte, eta, horrekin batera, datozen bi asten barruan egun bat zehazteko eskatu digute, eta Grupo Capital Energyko kideekin elkartzeko gara zenbait udal ordezkari. Miritxako eremura eramango ditugu, zona ezagutu dezaten", adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako udal ordezkariak. Gaineratu du proiektu horrek ez duela zerikusirik Starkraft-ekoarekin.

LEINTZ GATZAGAN ETA ANTZUOLAN EGIN NAHI DITUZTEN PROIEKTUAK TRAMITEAN DAUDE

Une honetan, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Bilerako txostenean argitaratu dutenez, Gatzagako lurrak hartuko dituen proiektuaren dokumentazio teknikoa aurkezteko luzapena tramitean dago, 2023ko otsailaren 26ra arte.

Trekutz proiektua

Antzuola ere ageri da Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkari proiektu berriztagarrien zerrendan. Kasu horretan, Grupo Cilda Energy enpresak Trekutz proiektua aurkeztu du eta 12 megawatteko potentzia gordina duten bi aerosorgailu instalatzeko eskaera ageri da. Urretxu eta Antzuolari eragingo lioke proiektu horrek, eta une honetan, dokumentazioa aurkeztekoan, aurretiko izapidetze administratiboa abiatzekotan dago. "Proiektua ez da zehazki Trekutz. Irimoko gailurrerian zapi tontor daude eta bigarrenean egin nahi dute parke eoliko; kokapen zehatzaren arabera, Irimogainen jarri nahi dituzte bi aerosorgailu: bat Antzuolako lurretan eta bestea Urretxukoetan. Bi udalok kontrako mozioak aurkeztu genituen eta alegazioak ere aurkeztuko ditugu aurrera badoa. Gainera, Antzuolako 8 Miliak proba egunean ere protesta-ekintza bat gauzatzeko asmoa dugu...", adierazi du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.



Buddie Pack proiektua abiarazteko bilera osteko talde argazkia. 'BUDDIE PACK'

Ausolan-ek Buddie Pack proiektuarekin bat egin du

Erabilera bakarrek plastikozko ontzien ekoizpena esponentzialki murriztea espero da proiektu horrekin

I.B. DEBAGOIENA

Ausolanek eskolako jantokietan plastikozko ontziak berrerabiltzeko proiektuarekin bat egin du. Buddie Pack proiektuaren helburua eskala handiko plastikozko ontzi berrerabiltzeko erabilteko negozio-eredu berriak martxan jartzea da, uraren erabilera, energiaren kontsumoa eta ozeanoetan mikroplastikoak murrizten laguntzeko, hain zuzen ere.

Eskolako jantokietara bideratu Proiektuak materialen berrikuntza eta kontsumitzailearen

psikologiaren azterketa baliatuko ditu bideragarriak diren ontzi berrerabiltzeko proposatzeko. "Proiektuaren barruko kasuetako bat eskola-jantokiak dira; gaur egun plastikozko ontzi berrerabiltzeko erabiltzen diren erabilera bakarrek ontziak ordeztu nahi ditugu eta herriarrak kontzientziatu nahi ditugu materialak berrerabiltzeko eta birziklatzeko garrantziaz, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko", Ausolaneko I+Gko zuzendari Amaia Agirrek adierazi duenez.



Miritxa ingurutik ikusten dena, Leintz Gatzagako lurretan. WIKILOK




MATRIKULA LIBREA

Otsailaren 1etik 8ra (13:00ak arte)

Argibide gehiago : www.eoieibarheo.hezkuntza.net

**ENGLISH
EUSKARA
DEUTSCH
FRANÇAIS**

eoieibarheo@gmail.com
943 89 92 75



Lanean, herri txikien hustea geldotzeko

Mondragon Unibertsitatea eta Emplea Fundazioa elkarlanean ari dira orokorra den huste prozesuari buelta emateko ahaleginean. Ekintzailtza proiektuak izan daitezke bidea, eta LEINN graduako ikasleak lanean jarri dituzte proiektu horiek diseinatzeko

L. Zeberio / H. Larrea OÑATI

Mondragon Unibertsitatearen nazioarteko ekintzailtza-sareak eta Emplea Fundazioak despopulazioaren aurka eta landa-garapenaren alde elkarlanean garatzen diharduten proiektuen aurkezpena egin dute. Proiektuak *VIVID inkubagailua* du izena eta Nafarroako San Martin Unx herria du oinarri.

Herri horren motorra ardoaren industria da, baina helburua da espektroa zabaltzea. "VIVID proiektuaren barruan ardoaren inguruko proiektu asko daude, baina *VIVID inkubagailua* proiektuarekin ardotik harago landa-eremuak eman ditzakeen



VIVID inkubagailua-ren aurkezpena, martitzenean, MUko Oñatiko campusean. H.L.

bestelako aukera eta proiektu batzuk lantzea da helburua", azaldu du Emplea Fundazioko koordinatzaile Nerea Elosegik.

Aurreiritziak baztertzeko bidea

Ikasleek egonaldiak egin dituzte San Martin Unxen eta bertako errealitatea ezagutu ostean ekin diote despopulazioa saihesteko jarduerak diseinatzeari. Sektore nagusiak turismoa, etxebizitza, enplegua, aisialdia, zerbitzuak eta ingurumena dira. Hala, energia-burujabetzarekin lotutako proiektu batean dihardu LEINN graduako ikasle Helena Gorroñok: "Ikerketa bat egiten ari gara instalazioaren magnitudea ikusteko eta aztertzeko etorkizunean posible izango ote den herria bere baliabide energetiko berriztagarriekin elikatzea".

Herriaren etorkizunerako garrantzitsuak izan daitezkeen proiektuak diseinatzeaz gainera, *VIVID inkubagailua* programan parte hartzen ari diren ikasleek azaldu dute herri txikien errealitatea bertatik bertara ezagutzeaz gainera horiekin lotutako aurreiritzi asko baztertu dituztela.

Gazteak zientziara hurbiltzeko erronka du Euspot lehiaketak

Aitzindaria den euskarazko spot lehiaketaren gaia zientzia eta teknologia da aurten. Babesle nagusia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 da (ZTBP 2030). Eguazteneko aurkezpenean izan ziren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkari Cristina Uriarte, Arteman Komunikazioko zuzendari Arantzazu Lagunilla, MUko Komunikazio Campuseko zuzendari Goio Arana, Aretxabaletako alkate Unai Elkoro, Arizmendi Ikastolako komunikazio arduradun Naiara Okina eta Bai Euskarari Elkarreko Leire Luengo.

Euspot lehiaketak 3.000 euro baino gehiago banatuko ditu saritan aurten ere. Sei sari izango ditu eta irabazle nagusiari 1.000 euro emango dizkiote.

Lehiaketan parte hartzera animatu dituzte gazteak. Egitekoa da gazteengan bokazio zientifiko eta teknikoak sustatzea helburu duten iragarkiak sortzea; gehienez, 30 segundokoak.



arizmendi
ikastola

BISITA PERTSONALIZATUAK



Hartu zure txanda hemen!



www.arizmendi.eus/guikastola

943 77 20 25



943 77 20 25

Aurrematrikula:

Otsailaren 13tik 24ra















ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

Gosea, aspaldiko tabua

Gabonetako jan-edanaren gehiegikerien ajea oraindik gertu, munduan goseak hazten jarraitzen du. 828 miloi pertsonak ez zuten 2021ean elikagai nahikorik izan eta 2022an egoerak txarrera egin du; Ukrainako gerrateak eta inflazioak eraginda, besteak beste. Panorama penagarria eta eskandalagarria.

Horren planeta aberatsean, "zergatik hiltzen da oraindik horrenbeste jende gosez munduan?", galdetzen dio Karim haurrak aitari, Jean Zieglerrek idatzitako *Gosea munduan neure semeari azaldua* eleberrian. Nola azaldu horren ulergaitza eta esplikaezina den zentzugabekeria hori? Nola ulertu mundu gero eta teknologikoago, digitalago, jakitunago eta, azken finean, aurreratuago den honetan, oraindik gosearen gaitzerako sendabiderik aurkitu ez izana?

Gero eta onartezinagoa da, gizartearen elikagaien produkzio ahalmenak historian zehar izan duen bilakaera ikusita. Nazioartean gosearen aurkako lana gidatzea helburu duen FAO agentziak adierazitakoaren arabera, munduak arazorik gabe egungo biztanle

bikoitza elikatu lezake; beraz, elikagai falta ez da, inolaz ere, *halabeharrezko gabezia!*

Azken urteotan ugaritu egin dira laguntza humanitarioko jarduerak, munduko gosea desagerrarazteko helburuak eta elikagaien xahuketa murrizteko jarduerak, baina datuek ez dute hobera egiten. Nazio Batuek 2015ean adostutako Garapen Jasangarrirako hamazazpi helburuetako bat 2030erako elikagaien segurtasunik eza amaitzea izan zen. Baina egungo egoeraren arabera, ordurako 670 milioi pertsona inguruk gosea pasatzen jarraituko dute: munduko biztanleen %8k!

Gosea aspaldiko kontua da, eta, hala ere, gaurkotasun handikoa. Baina, gaurkotasun handikoa izanik ere, tabua izaten jarraitzen du; gobernuak, herrialdeak eta, oro har, aberatsagoak diren, garen, gizarteak lotsarazten gaituen gaitza, ezikusiaren eta isiltasunaren oihal atzean ezkututzen duguna, galdutako bataila balitz bezala.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Beste planeta batera joan baino lehen

JOSU GARITONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Janine Benyuns biologoak esan du zuhaitzengandik asko daukagula ikasteko; ingurua hobetzea, beste bizitza mota batzuen baldintzak bermatzeko. Gizakiak izurrite bat balitz bezala jokatzeko du, bizitza mota guztiak desagerrarazten; kolokan jartzen du ondorengo belaunaldien bizitza. Zuhaitzak ondo kudeatu behar dira, baina gure zoramenean jarraitzen dugu, basoak moztuz, epe motzeko etekin apurrak ateratzeko. Beharbada, gizakia

lehenago desagertuko da, baina, beste planeta batzuetara joateko ahalmena eduki baino lehen, gizakiak ikasi behar du bizitza mota guztiak errespetatzen.

Olentzero eta Mari Domingi Oñatin

TXEMA AGIRRE
OÑATI

Aurten ere, Olentzerok eta Mari Domingi ETako presoen banderarekin egin diete harrera gure txikiei Oñatin. Pena da ikustea Oñatiko Udalak oraindik ez dakiela bereizten Olentzeroren eta Mari Domingiren jaia, gure txikien jaia, eta protesta.

Olentzeroren eta Mari Domingiren eguna txikiek

gozatzea da. Beraiekin egoteko eta hitz egiteko eguna da, emozioarekin, opariak eskatzeko, gozokiak jasotzeko...

Herri gehienek alaitasunez, kolorez eta dibertsioz ospatzen dute Olentzerok eta Mari Domingi gure txikiei egindako bisitaren eguna. Herri gehienetan halaxe ulertzen dute eta aurrera begiratzen dute. Tamalagarria da, gure ustez, Oñatiko Udala atzean geratzea.

Erreklamazioan ados gaude denok: ETako presoen beren zigorrak Euskal Herriko kartzeletan betetzearekin. Hala ere, ez da beharrezkoa Olentzero eta Mari Domingi aldarrikapen horrekin nahastea. Agian, datorren urtean lortuko dugu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Aisialdi eredu berri baten aldeko lanketan ari gara"

JUNE FURUNDARENA KUKULAIISI AISIALDIRAKO TOPAGUNEKO ZUZENDARIA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE Urtebete pasatxo da Kukulaisi sortu zela. Aisialdi euskalduna, hezitzailea eta berritzailea dute helburu. Zapaturako hezitzaileendako jardunaldiak iragarri dituzte Ermuko Izarra Centren.

Zer da Kukulaisi?

Sortu ginen nazio mailako elkarte izateko. Sare hori badugu, eta orain, indartzea da asmoa. Aisialdi euskalduna, hezitzailea eta berritzailea ditugu xede. Ohiko aisialditik abiatzen gara, baina saiatzen gara berrikuntza txertatzen gaur egungo aisialdi eredu berrira egokitzeko.

Estrategikotzat ditugu, esaterako, kirolaren eta aisialdi digitalaren lan-ildoak.

Hamazazpi elkarte zaudete Kukulaisin; horien artean, Txatxilipurdi eta Jardun.

Bai. Txatxilipurdi eta Jardunekin batera daude Kukulaisin Usurbilgo Noaua, Hernaniko Dobera, Ordiziako Hitzaro, Elgoibarko Izarra, Lasarte Oriako Ttakun,



June Furundarena. L.Z.L.

Soraluzeko Pil Pilean, Getxoko Bizarra Lepoan, Durangoko Berbaro, Bilboko Berbaizu, Laudioko Kirikiño, Gasteizko Geu, Atarrabiako Karkikaluze, Euskarabentura, Kabia eta Topagunea.

Esperientzia metatu handia dago zerrenda horretan.

Esango nuke baietz, eta uste dut hori badela Kukulaisiren indarguneetako bat. Elkarte bakoitzak izaera desberdina du, baina gehienek sekulako

aitzindaritasuna erakutsi dute. Benetan aberasgarria iruditzen zaiguori guztia amankomunean jartzea proiektu berriak sortzeko. Bestalde, tamaina eta errealitatea askotariko elkarteak gaude Kukulaisin, eta bakoitza bere perspektibatik saiatzen da ahal duena elkartrukatzeko.

Orain, familia handitu egin nahi duzue, ezta?

Euskaltzaleen Topagunearen baitatik sortu ginen, baina gure helburua da ahalik eta gehien zabaltzea gure sarea. Zer behar den? Aisialdi eredu euskaldun, hezitzaile eta berritzaile batean sinistea eta aisialdi eredu hori garatzeko gogoia izatea.

Zein izan da sorrera ostein egindako urtebeteko bidea?

Ikusi diren beharren arabera lantaldeak sortu ditugu eta lantalde bakoitzak hainbat lanketa egin ditu, Kukulaisiren helburuak eta filosofia kontuan hartuta. Gero, dena amankomunean ipintzen da, eta denen artean erabakiak hartzen ditugu. Aurreko astean ere elkartu ginen, eta 2023ra begirako erronka eta proiektu batzuk martxan hastekoak dira. Izan ere, gauzak berriak direnean, hasierako prozesua beti da luzea, lanketa eta

hausnarketa sakonak behar direlako; edozelan ere, poliki-poliki, bagoaz proiektuak sortzen.

Bidegurutze batean gaude, ezta?

Euskararekin, esaterako, denok ikusten dugu bidegurutze moduko batean gaudela; gaitasunak gora egin du, baina erabilera hor dago. Uste dugu badela berrikuntza momentua, diskurtso berriak garatzeko eta proiektu berriak probatzeko unea. Apurka-apurka eta gure ahalmenaren arabera horretan ari gara. Kirolarekin lotuta proiektu berri bat jarri dugu martxan Elgoibarren. Bergaran ere beste proiektu bat jarriko dugu martxan, gazteen aisialdiaz hausnartzeko. Bagabiltza.

Eta hezitzaileendako jardunaldiak dituzue zapatuan Ermuan.

Bai. Hezitzaileei eta koordinatzaileei begirako jardunaldiak dira. Eredu ez-formaleko euskalgintzako beste edonor ongi etorria izango da, noski. Sinisten dugu sektorearen profesionalizazioan, eta, horretarako, formakuntza beharrezkoa da. Saiatu gara ahalik eta jardunaldi dinamiko eta erabilgarrienak sortzen. Goizean hizkuntzen trataeraz arituko gara eta arratsaldean, hezkidetzaz.

ITURRI ONETIK

Mater Series Txapelketa Arrasaten egin gura dute

Errugbiko Mater Series Txapelketa Arrasaten jokatu gura dute 2024an. Errugian jokatzeko duten amen arteko txapelketa da. 2022an Sitgesen izan da eta hantxe jokatu zuen Arrasate Rugby Taldeko amen taldeak lehenengo partidu ofiziala; 200 bat ama elkartu ziren orduan errugbian jokatzeko. 2024ko ekainaren 8an txapelketa hori Arrasaten egitea da ART klubaren nahia. Martxoaren 25ean Bilbon egingo duten topaketan baieztatuko dute euren nahia.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-01-26

Elurte eta izozte handiak arazoak sortu zituen

Iragarrira zegoen eta heldu zen: siberiar jatorriko borraska hotza. Elurra, izotza eta zeropeko tenperaturak herri guztietan; Arrasate eta Bergara artean kolapsoa sortu zen errepidean, kamioi batek Epelen izan zuen istripuagatik; Arantzazun 55 zentimetroko elur-geruza pilatu zen... Izozteagatik, egunetan iraun zuen elurrak. Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan, ostera, "azken hilabeteetako egunik lasaiena" izan zen elurte eguna.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

"Kaixo, @Google, nire hizkuntza '#euskara' da"

Katalunian abiatutako kanpainari jarraiki, euskaldunek ere euskarazko emaitzak lehenesteko eskatu diote Googleri.

@FelipeUriarteC: "Kaixo, @Google. Nire hizkuntza #euskara da. Etsigarria da ikustea zerbait bilatzen dudanean, maiz, bilatzaileak euskarazko orrira bideratu beharrean, informazio bera duten gaztelaniazko orrialdeetara eramaten nauela. Aztertu dezakezue zer gertatzen den? Milesker".

@iPatxi: "Badirudi @google hasi dela erantzunak ematen. Katalanez lehendabizi, ea #euskaraz ere egiten duen".

2023ko plangintza prest du Emakume Txokoak

Otsailetik ekainera bitartean hamar ikastaro, bost tailer eta beste hainbeste ekintza berezi egingo dituzte, "berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde lan egiteko". Saioetan izena emateko epea urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra izango da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Jabetze Eskolaren baitan, hamar ikastaro, bost tailer eta beste hainbat ekintza antolatu ditu Emakume Txokoak otsailetik ekainera bitartean. Hala, egitarau zabala antolatu dute, "herritarrak berdintasunera eta feminismoa hurbildu guran, indarkeria matxistari aurre egiteko eta hausnarketa feminista kolektiboa bideratzeko", Udal Gobernuaren esanetan. Horrekin batera, emakumeen ahalduntze pertsonalean eta kolektiboan eragiteko, formakuntza eta topaketa-guneak eskaintzen jarraituko du Emakume Txokoak.

Jabetze Eskolako ikastaroez eta tailerrez gain, bestelako ekimenak antolatu ditu Emakume Txokoak, herritar guztientzat: hitzaldi solasaldiak, ikuskizunak eta zinema emanaldiak. Horrekin batera, irakurketa feministen guneak "lau saio interesgarri" antolatu ditu eta emakume migratuen gunean tituluen homologaziorako aholkularitza saio bat izango da.

Martxoaren 8a tartean izanik, egun horren inguruko ekimen bereziek ere izango dute presentzia: kartel lehiaketa eta erakusketa, emakume artisauen azoka eta gainontzeko sentsibilizazio ekimenak.

Askotariko lan-ildoak

Tailerrek eta ikastaroez askotariko lan-ildoak izango dituzte. Alde batetik, sormen artistikoa landuko dute, argazki, antzerki, musika eta kantu ikastaroekin, besteak beste. "Kultura adierazpen ezberdinei erreparatu nahi diegulako ikuspegi feministatik eta sorkuntza eraldaketarako tresna izan daitekeelako", diote.

Bestalde, gorputzaren eta osasunaren zaintzan sakonduko dute, hainbat ekintzaren bidez: dantza ikastaroa, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, txi kunga eta abar. Nabarmendu dutenez,



Esther Lizarralde eta Johanna Sanchez, Emakume Txokoan. MIKEL ZUMALDE

OTSAILAREN 23AN, 'AMA TA ASUNAK' PROIEKTUA AURKEZTUKO DU JUNE BAONZA PAGALDAIK

gorputzaren gainean bizigarriak ez diren eta heteropatriarkatuaren mandatuei erantzuten dieten ereduak aurre egiteko tresnak izateko, gorputzaren kontzientzia eta maitasuna eta ongizatea landuko dute. "Ildo beretik, balioko digu genero rolak eta estereotipoak sortzen dizkiguten presioak eta eragiten dizkiguten ondorez aztertze eta lantze. Emakumeon autonomia eta autoestimua lantzeko".

Horrekin batera, parte hartzerako hainbat tresna ere eskuratu dituzte, jendaurrean nola hitz egin ikasiz, parkour tailleraren bitartez eta noka tertuliekin. "Hainbat eremutan parte hartzeko ditugun oztopoei aurre egiteko tresnak eskuratu ditugu".

Azkenik, eztabaida feministak ere edukiko dituzte, hainbat gai erdigunean jarrita: feminismoa

eta hizkuntzaren erabilera, zahartzaroaren eta zaintza ereduaren hausnarketa eta sexu eta genero aniztasuna.

Hainbat ekintza egingo dituzte

Bestalde, egitarau orokorraren baitan hori ere, hainbat ekintza izango dira: otsailaren 23an, June Baonza Pagaldaik *Ama Ta Asunak* proiektua aurkeztuko du Kulturaten; martxoaren 6tik 17ra, Martxoaren 8ko kartelen erakusketa izango da ikusgai, Emakume Txokoan; martxoaren 10ean, *bertso-klown* saioa izango da Kulturaten, Beatriz Egizabal, Miren Artetxe, Oihana Bartra eta Ane Labakarekin; martxoaren 23an, *Nuestra libertad* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia egongo da, Teodora Vasquezzen eskutik.

Izen-ematea, datorren astean

Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra eman ahalko da izena, udal webgunean edo Emakume Txokoan bertan. Bestalde, egitarauari buruzko informazio osoa etxeetan banatu duten liburuxkak jasotzen du eta Emakume Txokoak ere ekintza guztien berri emango du sare sozialetan.



ZAHAR-BERRI

Aratustekak izan dituzte hizpide

Inauteriak eta Karnabak ardatz hartuta, ospakizun laikoa eta kristaua alderatu ditu Joxerra Agirreurreta gatzagarrik Zahar-Berriko mintzalagunentzat egindako hitzaldian, eta mintzalagunek interes handiz entzun dituzte haren azalpenak. "Interesgarria izan da benetan. Mila esker, Joxerra", nabarmendu dute.

Santa Ageda koruek deialdia egin dute otsailaren 1erako

Otsailaren 4an, urtero moduan, kalera aterako dira Santa Ageda koruek eta deialdia egin dute koruetako kantariei eta laguntzaileei, prestakuntza-lanak egin eta guztia antolatzen joateko. Hala, Iturrioz kaleko Harresi aretoan elkartuko dira, gaur egun Goikobalu abesbatzak entseatzeko duen tokian, otsailaren 1ean, 21:00etan.

Guatemalako egoera politikoaz ariko da Jordan Rodes Andrade

Arrasateko Askapenak antolatuta, Jordan Rodes Andradek hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, 18:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, Guatemalako errealitateaz. Guatemalako giza eskubideen prokuradore ohia da eta datozen hauteskundeetan Movimiento por la Liberacion de los Pueblosen zerrendetan bigarren joango da.

OHARRAK

Meatzerreka auzoko jaiak asteburuan

Gaur bihar eta etzi ospatuko dituzte San Baleixo jaiak Meatzerrekan. Gaur, bertsolariek girotutako pintxo-potea egingo dute, baita mus txapelketa ere (Egitarau osoa, *Goiena.eus*-en).

Zuhaitz landaketa bihar Etxezarretan

Landaketa 10:00etan hasiko dute eta parte-hartzaileak Musakolako San Isidro elizatik abiatuko dira. Parte hartu nahi duten herritarrek 943 25 20 05 telefono-zenbakian eman behar dute izena; gomazko katiuskak eramatea gomendatu du Udalak.

Joanes Igeregiren hitzaldia astelehenean

AEDk antolatuta, *Euskararen kolapsoa ala kolapsoaren euskara* hitzaldia egingo du Joanes Igeregi urtarrilaren 30ean, 19:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (Elkarrizketa irakurgai dago *Goiena.eus* webgunean).

Pepa Bojo zahartzaroz ariko da

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Jarri begirada zahartzaroz* hitzaldia egingo du urtarrilaren 31n, martitzena, Pepa Bojo psikologoak. Kulturateko areto nagusian izango da saioa, 17:30ean hasita.



Juan Antonio Barberan, Beñi Agirre, Balen Tramon eta Patxi Ugarte, Kulturateko klaustroan, erakusketaren kartelarekin. E.A.B.

Euskal Herriaren historia, panel grafikoaz azalduta

Nabarralde Fundazioak eta Zuztarrak Errotuz taldeak, Udalaren laguntzarekin, Euskal Herriaren historia azaltzen duen 'Habitat' erakusketa jarriko dute Kulturaten otsailaren 1etik 17ra. Asteleheneretik zapatara egongo da ikusgai, klaustroan, 17:30etik 20:30era

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Euskal Herriaren historia azaltzeko asmotan, elkarren osagarri diren bi erakusketa jarriko dituzte Kulturaren Nabarralde eta Zuztarrak Errotuzek. Batek, *Habitat, ezkutatu diguten historia* izenekoak, Euskal Herria du ardatz, eta klaustroaren erdiko zatian jarriko dute. Bigarrena, *Arrasateko habitat* izenekoak, aurrekoaren osagarri izango da eta Arrasateko historiaren hainbat zertzelada jasoko ditu. Arkupeetan jarriko dute hori.

Habitat, ezkutatu diguten historia erakusketaren baitan, herriko DBHko laugarren mailako hamar ikasle talderi azalpenak emango dizkie Beñi Agirre Na-

barraldeko kideak, bisita gidatuen bidez, hainbat mapa erakusten dituzten hamalau panelatan oinarrituta. Ikasleek gain, herritarrendako bisita gidatu bat ere egingo du Agirrek, otsailaren 8an, 17:30ean hasita.

Arrasateko habitat erakusketari dagokionez, Zuztarrak Errotuzeko kideek batxilergoko lehen mailako ikasleei emango dizkiete azalpenak, ordubate inguruko bisita gidatuen bitartez.

Modu labor eta grafikoan

Erakusketa nagusia hamalau panelez osatutakoa da eta, Nabarraldeko kide Beñi Agirrek azaldu duenez, helburua da Euskal Herriaren historia osoa

kontaktea, "modu oso sintetikoan eta laburrean". Antzinarotik Karlistaldietara bitarteko historia da erakusketak kontatzen duena, "modu grafikoan eta oinarritzko kontzeptuen bidez".

Habitat kontzeptuari dagokionez, lurralde baina "askoz ere zabalagoa" dela dio Agirrek: "Euskal Herriaz hitz egiten dugunean, ez dugu hitz egiten bakarrik muga politikoak dituen lur bati buruz, baizik eta inguruan daukan guztiaz ere bai. Alegia, Euskal Herriaren historia ezin daiteke ulertu inguratzen gaituzten herrien historia kontuan hartu gabe. Europako testuinguru jakin batean sortzen da Euskal Herria".

Erakusketak dituen hamalau paneletan euskararen sorrera eta bilakaera azaltzen da, baita erromatarren garaia ere. "Gure historian garrantzia ikaragarria izan zutelako", Agirreraren esanetan. "Karlistaldietara arte kontatzen du erakusketak. Baina euskaldunok oraindik bizirik gaude eta, estatu independente bat ez eduki arren, horren memoria daukagu; alegia, hizkuntza, kultura, legeak eta abar. Elementu horiek herri bezala definitzen gaituzte".

Arrasateko hainbat zertzelada

Zuztarrak Errotuz taldeko kideek pentsatu zuten duela hamar urte egindako *Begira! Arrasate, iragana, oraina eta geroa* erakusketaren hainbat arlo baliagarri izan zitezkeela, modu osagarrian, Arrasateko habitata ere lantzeko. "Hala, hemeretzi paneletan gure historiaren hainbat mugari, pertsonaia eta gertaera garrantzitsu erakutsiko ditugu, modu atsegina eta grafikoan", adierazi du Balen Tramonek, Zuztarrak Errotuz taldeko kideak.

Hain zuzen, duela hamar urte argitaratutako liburuxkaren hitzaurreko hausnarketa berretsi dute: "Orain etorkizuna dugu amets eta ardura, baina etorkizuna ez da inoiz heltzen orainaren forman ez bada, eta oraina ulertzeko ezinbestekoa dugu iragana ondo ezagutzea".

Bisitak eta ondorengoak

Erakusketa eta ikasleekin egindako bisitak amaitzean, berriz ikastetxeekin egotea da Zuztarrak Errotuz taldekoen asmoa, ikasleei eta irakasleei balorazio bat eskatzeko. "Positiboa baldin bada, ikastetxeen adostasunarekin datozen urteetan jarraipena emango genioke jardura honi".



NIRE USTEZ

ANDER GARAY

Etorkizuneko Arrasate

2015. urtean Arrasaten etorkizuneko kultur eraikinak martxan jarri zirenetik zortzi urte pasa dira dagoeneko, eta gaur egun errealitate bilakatu dira bai Kulturola eta baita Juan Arzamendi Musika Etxea ere. Horrekin, etorkizuneko Arrasate irudikatzen hasi ginen, eta behin eraikin kulturalak amaituta, ordua da etorkizuneko kirol azpiegituren mapa burutzeko.

Azkeneko urteetako lanaren eta prozesu parte-hartzaileen osten, gertu dago kirol azpiegituren maparen proiektua, Iturripe gune berri batekin, Musakolako eraikina eraitsi eta Arrasateren beharretara egokitutako eraikin berri batekin eta eskoletako kirolgune egokituak. Horiek dira, hain zuzen ere, etorkizuneko Arrasatek merezi dituen kirol instalazioak, deszentralizatutako guneak, herritik hasitako eta herriarentzat eginiko proiektuak.

Azkenik, lerro hauek baliatu nahiko nituzke prozesu parte-hartzaileen egon diren kideak eskertzeko, beraien denbora eskaintzeagatik eta urte eta erdi iraun duen prozesu honetan egindako lan eta ekarpenagatik.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com

Gurasoentzako tresnak, seme-alabak hezteko

Otsaila eta maiatza artean hitzaldi eta tailer ugari izango dira Kulturaten, Arrasateko Udalak antolatuta. Adin txikiko seme-alabak dituzten gurasoei daude bideratuta, adituen esanak aintzat hartu eta kezka eta zailtasunak konpartitzeko

Hasier Larrea ARRASATE

Haurren eta nerabeen heziketarako lanabesez ahalduntzeko, datozen hiru hilabeteetan interes zehatzetako saioetan parte hartzeko aukera izango dute gurasoek, BAZera bertaratu edo deituta -943 25 20 00- edota *izenemateak.arrasate.eus* atarian izena emanda. Helburua gurasoekin seme-alaben heziketaren inguruan "hausnartzea" da eta gurasoei "egunerokotasunean sortzen zaizkien kezka eta zailtasunak konpartitzeko guneak eskaintzea", adierazi dute Arrasateko Udaletik.

Alde batetik, zortzi hitzaldi izango dira; horietatik lau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren *Treba gurasoak* prestakuntza-ekimenaren baitan. Lehenengo bost saioetan psikopedagogian eta heziketa sozialean espezializatutako adituek egingo dute berba, hala nola Itxaro Beristainek, Leyre Canok, Rakel Gamitok eta Nerea Mendizabalek. Antsietatea, asertibitatea, autoestimua, emozioak, teknologia eta halako gaiak helduko diete.

Azken hiru saioetan, berriz, sexualitatea jarriko dute erdigunean, Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuko kideen eskutik.

Tailerrekin, sakonago

Bestalde, seme-alaben adinaren arabera gurasoentzako hiru tailer ere eskainiko ditu Udalak, jarraikortasun batekin aurrera eramango direnak. 5 urtetik beherako haurrak dituztenek *Haziera* taldea izango dute eskura. Itziar Rosadok eta Jon Urdinetak dinamizatuta, hezikuntzaren eta hazkuntzaren inguruko zalantzak argitzeko baliagarriak izango dira. Mintegia astelehenetan egongo da martxan, Txikixokoan, 17:30etik 19:30era, eta zaintza zerbitzua egongo da -otsailak 13, martxoak 6, apirilak 17, maiatzak 8 eta ekainak 5-.



Treba gurasoak programaren baitako saio bat. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

SAIO GUZTIETAN PARTE HARTZEKO, 'ARRASATE.EUS'-EN EDO BAZ-EN EMAN BEHAR DA IZENA

6 eta 16 urte artekoen bi taldeei *Gurasotasuna m-z idazten: maitasuna eta mugak* deitu diote. Virginia Belategik familia giroan autoritatea zein emozioak kudeatzen eta askatasuna eta erantzukizuna sustatzen irakatsiko du. Saiok martxoko eguen guztietan izango dira, Kulturateko Loramendi gelan; 6-11 urteko guraso taldea 17:00etatik 18:30era ariko da eta 12-16 urtekoa, 18:45etik 20:15era.

Azkenik, banantze prozesuak, portaera arazoak eta kontsumo goiztiarrak lantzeko, Agipad elkarteak *Zailtasunei aurre egiten* saioei helduko die eguaztentean Kulturateko Loramendi gelan -otsailak 1; martxoak 1, 15, 29; apirilak 19; eta maiatzak 3, 7 eta 31-. 3 eta 11 urte arteko taldeak 17:30etik 18:30era izango du txanda eta 12 eta 16 urte artekoak, 18:45etik 20:15era.

Zortzi hitzaldi, orotara

18:00etan izango dira, Kulturateko areto nagusian -maiatzekoak 17:30ean Jokin Zaitegi gelan-.

- **Otsailak 1** *Antsietatea ezagutzen. Nola lagundu gure seme-alabei?*
- **Otsailak 9** *Arauk eta mugak familian.*
- **Otsailak 21** *Seme-alaben autoestimua elikatzen.*
- **Martxoak 28** *Haur eta nerabeen emozioen bidelagun.*
- **Apirilak 26** *Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak... onurak eta gatazkak.*
- **Maiatzak 15** *LGBTIQ+ identitateak haurtzaroen eta nerabezaroen.*
- **Maiatzak 22** *Nerabeek eta bikote harremanak.*
- **Maiatzak 29** *Sare sozialak eta sexualitatea.*



Ainhoa Urretagoienak gidatuko ditu bi saioak. A.U.

Gazteen garapen pertsonalari buruz jardungo dute Kulturaten

16 eta 30 urte artekoek euren burua hobeto ezagutzeko, otsailaren 7an eta martxoaren 15ean egingo dira saioak

H.L. ARRASATE

Treba gazteak prestakuntza ekimenaren baitan, bi hitzaldi egingo ditu Ainhoa Urretagoienak, pertsona eta taldeen eraldaketan ahalbideratzaileak. Lehenengoa *Zure burua maitatzen ikasi* da eta bigarrena, *Osasun mentala: zeure burua ulertzen ikasi*. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango dira saioak, arratsaldeko seietan; BAZen edo *arrasate.eus*-en eman behar da izena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udaletako Gazteria sailek babestuta, gazteek emantzipazioerako, garapenerako eta haz-

kunde pertsonalerako zein kolektiborako prozesuak sustatzeko baliabideak eskaintzea da asmoa. "Gazteek aitortzen dute bizitzan moldatzeko oinarritzko gaitasun batzuetan gabezia nabarmenak dituztela, jakinda funtsezkoak direla bizitzako aldaketei aurre egiteko eta ekimenak sortzeko", adierazi dute ekimeneko ordezkariak. Beraz, hezikuntza ez-formalean jarriko dute arreta, "hausnarketan, autonomian eta gazteen eskubi-deetan; hau da, gazteen garapen pertsonalean eragiten duten gaitetan".

GORA ETA BEHERA



Makatzenako frontoia, guztiz estali gabe

Honako hau helarazi du frontoi horretan eskupilotan aritzen den talde batek: "Eskertuko genuke frontoiaren eta alboko jolasparkearen arteko tartea estaltzea, euria egiten duenerako".



Olatz Igartua eta Eñaut Iturbe, Besaide Mendizale Elkarteak presidentea eta presidente ohia. XABIER URTZELAI

Olatz Igartua da presidente berria

Urteko batzar orokorra egin du Besaide Mendizale Elkarteak eta, lau urteren ostean, Zuzendaritza Batzordea berritu du; hori hala, Olatz Igartuak hartu dio lekukoa Eñaut Iturberi eta elkartearen historian lehen aldiz emakumezko bat izango da presidentea

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Orain arteko Zuzendaritza Batzordearen antzera, lantalde berria ere nahiko gaztea da eta horri inportantzia eman dio presidente berriak. "Horrek ahalbidetuko digu atzetik datozenei ere beste gertutasun batetik erantzun ahal izatea. Gu ere elkar ezagutzen ari gara oraindik eta ikusi beharko dugu noraino heltzen garen, gutako bakoitzak zer dakarren taldera eta zertarako prest dagoen".

Horrez gain, gaur egungo gizartera egokitzea ere funtsezkoa izango da, Igartuaren esanetan: "Argi dago gizartera aldatzen ari dela eta beste modu batera hasi behar dugula gauzak egiten. Orain arteko kopuruak mantendu ahal izateko, taldea berritzen joatea beharrezkoa da, jende berria sartzen joateko. Bestalde, ekintzak aldatzen joatea ere funtsezko

ikusten dugu. Hori dela eta, ikastaroak sortzen hasiak gara, ekintza berezi batzuk, deigarriagoak. Ikusiko dugu hori nahikoa den, eta, bestela, beste zerbait pentsatu beharko dugu partaidetza kopurua mantentzeko edo handitzen joateko", dio.

Emakumeengana are gehiago gerturatzea ere bada Zuzendaritza Batzorde berriaren helburuetako bat. "Azken urteetan saiatu gara norabide horretan lan egiten. Egia da taldeko emakumeen partaidetza oso handia dela, eta lanean jarraituko dugu hori jaitxi ez dadin. Emakumez-

**OLATZ IGARTUA:
"EMAKUMEENGANA
ARE GEHIAGO
GERTURATZEA DA
HELBURUETAKO BAT"**

kook zailtasun gehiago izaten ditugu egin gura dugun ekintza hori gustuko duen beste emakume bat aurkitzeko. Hori dela eta, Besaide topaleku aproposa da mendizaletasuna gustuko dugun emakumeontzako, bai mendira joateko eta bai bestelako ekintzak egiteko ere".

Lau urte gorabeheratsu

2022aren balantzea eta erreposoa egin eta gero, azken lau urteetan Eñaut Iturbe buru izan duen lantaldeak egindakoak erreparatu zituzten joan den asteko batzar orokorrean, eta presidentek berak aitortu zuen pandemia tarteko urte gorabeheratsuak izan direla: "2019an sartu ginen Zuzendaritza Batzordean eta 2020an pandemia iritsi zen. Hori dela eta, ohikoak ziren dinamika batzuk bertan behera utzi behar izan genituen; eski irtee-



Zuzendaritza Batzorde berriko kideak, Kulturaten. XABIER URTZELAI

Zuzendaritza Batzorde berria du Besaidek

Egungo presidentek eta orain artekoak onartu dute garai hauetan asko kostatzen dela Zuzendaritza Batzordea berritzea eta konpromisoa hartzeko prest dagoen jendea aurkitzea. 2019an ere lan handia egin behar izan zuten taldea osatzeko eta aurten ere ez da erraza izan. Edozelan ere, lortu dute datozen lau urteetarako lantaldea osatzea, eta honako hauek dira Zuzendaritza Batzorde berriko kideak: Olatz Igartua, Elene Markaide, Andoni Altuna, Arantza Mendarozketa, Imanol Ibarra, Ibai Errasti, Leire Balentziaga, Agustin Zugasti eta Luis Mari Mendarozketa—azken hori falta da goiko argazkian, ezin izan zen—eta batzarrera joan—.

Azken lau urteotan presidente izan den Eñaut Iturbek onartu du lantalde polita dela eta lan ona egingo dutela kide berriek. Olatz Igartua presidente berria, halaber, lanerako gogoz azaldu da.

rak zein hileroko mendi irteerak. Hura ikusirik, Besaideko bazkideen artean inkesta txiki batzuk zabaldu genituen, zein beste ekintza egin genitzakeen jakiteko. Bertatik irten ziren proposamenen artean, espeleologia, arroila jaitziera, *via ferrata* eta eskalada ikastaroak antolatzea erabaki genuen".

Udalatxen gaineko dokumentala

Pandemiaren ondorioz, aurrekontuan eski irteerek eta hileroko mendi irteerek zuten pisua beste ekintza batzuetara bideratzeko beharra ikusi zuten. "Hortik sortu zen Udalatx mendiari balioa emateko dokumental bat egiteko ideia. Hala, 2021ean ekin genion horri eta 2022an elkarrizketak egin genituen, irudiak eta soinua lantzeaz gain. Beraz, espero dugu aurten argitara ematea ikus-entzunezko hori", azaldu du Iturbek. Horre-

**EÑAUT ITURBE:
"LANTALDE POLITA DA
ETA USTE DUT LAN
ONA EGINGO DUTELA
KIDE BERRIEK"**

kin batera, besteak beste, Etxezarretako, Erregebideko eta Bedoñako PRak berreskuratzeko lanean aritu dira, herriko zenbait kobazulotan garbiketa lanak egin dituzte, bulegoan obrak egin dituzte eta Leixargarateko aterpetxea txukundu egin dute azken urteotan.

2023ko aurrekontua, onartuta

2023ko aurrekontua ere onartu zuten batzar orokorrean eta 176.974,54 eurokoa izango da. Horrez gain, 2022a 1.986 bazkideekin eta 1.070 federaturekin itxi zuen elkarteak—2021 amaieran, 1.936 bazkide eta 1.072 federatu ziren—. Bazkide kopuruaz galdetuta, zera erantzun du orain arteko presidentek: "Hori ez da, inolaz ere, gure meritua. Ibilbide luzea dauka Besaidek eta beti eduki izan du indar handia, bai Arrasaten eta baita inguruko herrietan ere. Gipuzkoa mailan ere elkarte garrantzitsua da gurea eta orain arteko zuzendaritza taldeek egindako lanagatik dugu bazkide kopuru handia". Era berean, bazkideen kuotek berdin jarraituko dute: haurrek zazpi euro, gazteek bederatzi eta nagusiek hamalau.

"Arazoak gainditu eta bizkorrena izan nintzen"

AHMED OUSLIMANE KORRIKALARI ARRASATEARRA

Joan den asteburuan Euskadiko Kros Txapelketa irabazi zuen Ahmed Ouslimane arrasatearra; domekan euskal selekzioaren elastikoa jantziko du lehen aldiz

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE

Orain dela urte eta erdi iritsi zen Arrasatera Almeriako Campohermoso herritik. Lagun batek oporretan Euskal Herrira gonbidatu zuen eta txundituta gelditu zen. Laster batean, lagunak Arrasaten lana topatu eta Arrasatera lekualdatu zen. Ahmed Ouslimane (Oulmes, Maroko, 1997) da hura eta Euskadiko Kros Txapelketako txapeldun berria da. Arrasaten bizi den arren, Durangoko Bidezabal atletismo taldean dihardu. Asteburu honetan, taldearekin arituko da Donostian eta euskal selekzioaren elastikoa jantziko du lehen aldiz Espainiako Txapelketan lehiatzeko.

Lehenik eta behin, zorianak! Euskadiko Kros Txapelketako txapelduna zara; nola zaude?

Oso pozik nago. Ez nuen espero irabaztea, baina, azkenean, arazo guztiak gainditu nituen eta bizkorrena izan nintzen. Eskerrak eman nahi dizkiot nire taldeari eta nire entrenatzaileari nigan konfiantza izateagatik. **Lasterketa oso parekatua izan zen?** Bai; oso lehiatua eta gogorra izan zen. Lokatzez eta urez beteta zegoen dena, eta, gainera, Euskadin maila handiko korrikalariak daude. Jausi egin nintzen momentu batean, baina,



Ahmed Ouslimane, Euskadiko Kros Txapelketan, buruan. AHMED OUSLIMANE

azkenean, lasterketa buruan mantendu nintzen bukaerara arte. Aurkariak zail jarri zidaten. **32.02ko marka; espero zenuen?** Egia esan, bai. Aste barruan, arratsaldeetan, gehienbat, asko entrenatzen naiz. Eta Euskadiko krosera momentu onean iritsi nintzen. Beraz, emaitzarekin gustura nago eta esperotakoa da. **Non uste duzu egon zela gakoa?** Amorerik ez ematean. Lasterketa amaitzeko gutxi falta zenean, jausi egin nintzen. Baina segituan jaiki eta borrokan jarraitzeko prest nengoela erakutsi nien

aurkariak. Amorerik ez ematearen ondorioz, krosero azkeneko buelta bakarrik egin nuen. **Denboraldia ondo doa; pozik zaude orain arte egindakoaz?** Bai, oso pozik. Irailean hasi nuen denboraldia, eta, egia esan, gustura nago orain artekoarekin. Santurtzitik Bilbora doan lasterketan bosgarrena izan nintzen. Galdakaoko beste lasterketa bat, aldiz, ezin izan nuen amaitu lesio baten ondorioz. Baina, orokorrean, egiten dudana balantzea positiboa da, emaitzak lortzen ari naizelako.

Arlo pertsonalean sartuta, nola iritsi zinen Arrasatera?

Aurretik Arrasaten bizi zen lagun batek gonbidatu zidan orain dela bi urte. Asko gustatu zitzaidan bai Gipuzkoa eta baita Euskal Herria ere. Oporretatik bueltan Andaluziara joan nintzen; zortzi hilabete egin nituen han. Lagunak hemen lan bat topatu zidan eta segituan etorri nintzen. Nire lagunarengatik nago hemen, eta, egia esan, oso pozik nago hemen bizitzeko aukera izateagatik.

Nola zaletu zinen atletismora?

Ondo gogoan dut lehenengo eguna. 14 urterekin hasi nintzen, Marokon, eta 19 urterekin hamar kilometroko lehenengo lasterketa ofiziala egin nuen Amsterdamen (Herbehereak). Espainiara orain dela bost urte iritsi nintzen, eta, korrika egiteaz gain, nekazaritzan eta eraikuntza lanetan aritu naiz. **Zergatik da hain berezia korrika egitea?**

Bere garaian hartutako erabaki onena bihurtu dela konturatu naiz. Nire amak lagundu zidan Marokon, ohitura txarrak albo batera uzteko asmoarekin. Hark apuntatu ninduen atletismoan, bizitza osasuntsua edukitzeko helburuarekin. Tabakorik ez erretzeko eta bizitza ona edukitzeko nire amaren erabaki hura oso ona izan zen.

Hemendik aurrera ze helburu dituzu?

Euskal selekzioaren elastikorekin lehenengo aldiz Espainiako Txapelketan izango naiz eta azken momentu arte borrokatuko naiz. Txapelketa amaitutakoan, asfaltoko bost kilometroko lasterketa prestatu nahi dut. Distantzia horretako probetako marka 13.57an eza-

rrita dut eta uste dut gai naitzela marka hobetzeko.

Zenbat entrenatzen zara?

120 eta 130 kilometro egiten ditut korrika aste normal batean. Astelehenetik igandera, atsedeen egunik gabe. Egia esan, bi astean behin hartu izan dut atsedeen egun bat, normalean, zapatu edo domekaren batean, baina, normalean, ez dut atsedetik hartzen. **Arrasaten bizi, baina Durangoko Bidezabal atletismo taldeko kide; zergatik?**

Unai Ibarra lagunak aurkeztu zidan Bidezabal taldea. Profesionalak zirela esan zidan, lasterketako gastuak ordainduko zizkidatela eta maila handiko korrikalariak zeudela. Konbentzitu egin ninduen eta haiekin jarri nintzen harremanetan.

Haiekin harremanetan jarri eta segituan hasi zinen entrenatzen.

Bai; gainera, nire profileko korrikalari bat behar zuten. Nire laguna den Unai Ibarri esan zioten korrikalari etorkin bat behar zutela ligan lehiatzeko eta nigan pentsatu zuen. Hori dela-eta nago ni Durangoko atletismo talde batean.

Bukatzeko, zerk kentzen dio loa Ahmedi?

Egia esan, ezerk. Badakit zein naizen, nire gaitasunak eta gabeziak zeintzuk diren eta zenbat entrenatzen naizen. Nire eskutian dagoen guztia egiten saiatzen naiz, eta, alde horretatik, lasai dut kontzientzia. Erronka nagusia egunetik egunera hobea izatea da.

"EUSKAL SELEKZIOAREKIN LEHEN ALDIZ ARITUKO NAIZ ESPAINIAKO TXAPELKETAN"

Mondra eta Bergara: premia handiko hiru puntu jokoan

Garrantzi handiko derbia jokatuko dute larunbatean 16:30ean Mojategin Mondrak eta Bergarak. Etxetik kanpo bi partidu jarraian jokatu ostean, zaleen aurrean jokatuko dute moreek berriz ere. Joan den asteburuan Azeitian Lagun Onak-en aurka galdu eta gero, hiru puntuen premia handia da etxekoentzat. Zirt edo zart, ez dago besterik.

Etxeko berotasunera Ointxe Mondragon Unibertsitatea

Gizonezkoen EBA Ligan, Mondragon Unibertsitateak Kantabriako CB Solares-en bisita izango du Iturripen domekan, 18:30ean. Ointxe Mondragon Unibertsitateko emakumezkoek ere domekan jokatuko dute 18:00ean, Araskiren aurka, Mendizorroztako kiroldegian. Biek ala biek bolada txarrari amaiera eman nahi diote garaipena eskuratuz.

Mondratek irabaztea helburu, goiko postuetan segitzeko

Mondratek sentsazio onekin jarraitu nahi du. Larunbat honetan, hilak 28, 16:30ean, Tolosalda taldea izango da Musakolako kiroldegian. Talde arrasatearra irabaztetik dator, eta, beste garaipen bat lortuz gero, arrasatearrak sailkapeneko goialdean sendotuko lirake. Zaleen laguntzarekin, amets egin nahi du Mondratek.

Bolada txarrari amaiera emateko asmoz Mugarri Ingou

Mugarri Ingou eskubaloit taldeak neurrak garrantzitsua jokatuko du igandean, Iturripen, 12:00etan. Irungo Txingudi taldea etorriko da, eta irabaztea ezinbestekoa da. Ondo hasi zuten denboraldia, baina orain burua altxatu ezinik dabilta. Igande honetan aurrean izango duten aurkaria jaitsiera postuetan dago. Aukera polita astea ondo amaitzeko.

Kanpanzar Arrasate lidertzen bila Zornotzara

Kanpanzar Arrasate errugbi taldeko gizonezkoek bigarren fasea hasi berri dute: oraingoz, bat irabazi dute eta bat galdu. Uzta honekin, bigarrenak dira sailkapenean eta asteburu honetan, larunbatean, 15:15ean, Zornotzan jokatuko dute, Urgozoren aurka. Lehen postuan amaitu dezakete jardunaldia irabaziz gero.



2013an Amaia antzokian egindako emanaldian, lehenengo diskoko kantuak aurkezten. GOIENA

Euskal musika eta flamenkoa, etxe berean

Jose Luis Monton flamenko gitarra-jole maisua eta Gorka Hermosa akordeoilari saritua dira 'Flamenco Etxea 2' egitasmoaren arimak. 2007an sortu zuten proiektuari bigarren diskoa gehitu diote berriki. Gonbidatu bereziekin aurkeztuko dute domekan

Hasier Larrea ARRASATE

Bederatzi urte joan dira Amaia antzokia *Flamenco Etxea* egitasmoaren aterpe izan zenetik. Diskoak eta ikuskizunak "arrakasta itzela" izan zutela gogoan du Gorka Hermosa akordeoilari zumarragarriak. Oraingoan, bigarren lanaren emaitzaren berri emango dute toki berean, domekan, 19:30ean hasita.

Montonek eta Hermosak kolaborazio ugari egiten diote tokia elkarrekin eraiki duten bizitokian. Oreka TX taldeko txalapartariak, Garikoitz Mendizabal txistularia, Jon Maia bertsolaria, Toti Martinez de Lezea idazlea, Juan Carlos Aracil txirula-jolea, Tony Da Cruz baxu-jolea, *Got talent* lehiaketako irabazle izandako Roko abeslaria, Piruchi Apo eta Mu Mbana afrikar kantariak eta Zumarragako trikiti eskolako kideak dira eszenatokira igoko direneta batzuk. Diskoan entzun daitezke euren ekarpenak, baina zuzenekoan lehen aldiz ikusi ahalgo dira denak batera, "ba-

koitza bere tokian, bere talentua erakusten".

Zumarragako trikitilariak oso kuttunak ditu Hermosak, txikitatik ezagutzen baititu. Taldea Euskal Herriko zaharrena da, 1929an argitaratu baitzuen lehen grabaketa. Euri dedikatuta dago fandango estiloko *Zumardi* kantua: "Herriko txikikeriak eta bizipenak kontatzen ditugu, horiek dira eta emozionatzen dutenak". Bitxikeria modura, Arrasateko Udaleko zinegotzi Kepa Urteagak trikitia joko du.

Jatorria aldarrikatzen

Flamenco Etxea barru-barrutik bizi du akordeoilariak. Espainia hegoaldeko migratutako familian

DISKOAN PARTE HARTU DUTEN ARTISTA EZAGUN ASKO AGERTUKO DIRA ZUZENKOAN

sortua, hango eta hemengo musikak nahastea ohorea da Hermosarentzat; are gehiago, Monton *maestro* alboan izanda, "flamenko gitarrista historikotako bat".

Cristina Benitez dantzariak eta Sandra Carrasco abeslariak gehitzen diote flamenko kutsu estetika ikuskizunari. Ikusleari "txundigarria" egingo zaio haien eszenaratzea eta mugitzeko modua, estilo euskaldunarekin alderatuta "oso ezberdina". Bi kulturen artean mugitzen baitira Monton eta Hermosa. Azken hori Hezurbeltzak taldeko musikaria ere bada, eta dio Jon Maiak "ezin hobeto" azaltzen dituela hitzez sentipenak: "Gurasoak Euskal Herrira nola etorri ziren azaltzen du kantuetan, eta bada gaur egun aldarrikatzen dugun kontua; agian, gazteagoak ginenean lotsaz bizi genuena".

Diskoa entzungai dago Spotifyn, zuzenekoan joan aurretik entzun nahi duenarentzat.



Datorren osteguneko taldea, Etxekalte, 2021eko maiatzean ere izan zen. KOOLTUR

Eskaintza zabala, publiko fidela eta lantalde egonkorra zigilu

Kooltur Ekintzak otsaileko egitaraua kaleratu du, ohi bezala, musika-taldeen arteko dibertsitatea mantenduta

H.L. ARRASATE

Ostegunero kontzertuak antolatzea ez da lan makala; gogotsu dagoen talde motor bat ezinbestekoa da, eta Koolturek betetzen du baldintza hori. "Denboraldi honetan, gainera, bost kide berri batu zaizkigu lantaldera, arlo teknikoan nahiz funtzionalean aritzeko ilusioarekin", adierazi du Adrian Ugaldek, Kooltur Ekintzako kideak.

Gainera, publiko fidelak baxen du egitasmoa, edozein kontzertutan asistentzia duina bermatzen duena. Baina kopuruari baino gehiago, kalitateari

erreparatzen diote antolatzaileek: "Beti saiatzen gara estilo ezberdinak proposatzen, izan rapa, heavya, rocka, elektronika edo, zergatik ez, musikaz gairidiko diziplinak: bakarriketaz zein antzezlanak. Baloratzen duguna da eskaintza txukuna izatea".

Hemengoak eta hangoak

Irizpide horiekin gonbidatu dituzte otsaileko lau bandak: Etxekalte, Sofa, Kristonak eta Bones of Minerva. Euskaldunak lehen hirurak eta Madrilgoa azkena. Kanpoan zer mugitzen den erakustea ere badelako helburua.



UDAL BIBLIOTEKA

Bibliotekako lehiaketako sariak

Gabonetako lehiaketako irabazleei sariak banatu dizkie Juan Ramon Mendietak, Udaleko Kultura zinegotziak. Arantxa Telleriari, Melina Lopezi eta Asier Gaztañagari Elkar liburu-dendan erabiltzeko 60 euroko bonu bana egokitu zaie eta Oihan Zubizarreta, Margarita Zabaleta Lamariano, Itziar Gardoki Legorburu eta Jaime Bengoa Madinari, bost liburu-sorta.

Astelehenean hasiko dituzte kiroldegiko lanak

Kiroldegiko teilatua konpontzea izango da egingo duten lan nagusia; izan ere, egungoa egoera txarrean dago. Construcciones Aplibur SL enpresari esleitu zaizkio lanak egitea eta obraren zuzendaritza, 470.183,65 euroren truke

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Dena ondo bidean, astelehenean hasiko dituzte kiroldegia berri-tzeko lanak. Teilatua konpontzea izango da lan nagusia; izan ere, 80ko hamarkadako egituraren teilatua ez dute konpondu izan eta dagoeneko egoera txarrean dago. Gaur egungo teilatua gainetik jarriko dute teilatua berria. Modu horretan, kiroldegia ez dute itxiko; hala ere, udal arduradunek azaldu dute egunen batean lan konkreturen bat egiteko kiroldegia itxi beharra egonez gero abisua pasako zaie-la erabiltzaileei, eragozpen ahalik eta txikiena sortzeko.

Iraileko ohiko osoko bilkuran esleitu zitzaion kiroldegiko obra Construcciones Aplibur SL enpresari. Egingo duten lana da: teilatu berria jarri, poliuretano guztiak berritu, kantxa margotu eta kanpoko frontisari teilatua jarri. Obra bera eta obraren zuzendaritza esleitu zaizkio enpresa horri, 470.183,65 eurotan -331.760,08 euroko dirulaguntza lortu zuen Udalak Plan Foraletik-.

Frontiseko teilatua

Obra aprobetxatuko dute kanpoko frontoiari teilatua jarri eta babesteko. Egurrezko egitura izango du, eta txapazko teilatua.



Kiroldegiko frontisa. A.E.G.

TEILATUA KONPONDU EGINGO DUTE, KANTXA MARGOTU ETA KANPOKO FRONTISA ESTALI

Alboetatik zabalik egongo den arren, teilatua izango du frontisak, eta, modu horretan, eguraldi txarrarekin ere erabilgarri izango dute herritarrek, bai pilotan egiteko eta baita beste-lako jolasetarako ere.

Beste lan batzuk

Kiroldegiko teilatua berritzen dutenean, plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte bertan, udal eraikinen autokontsumorako; han lortutako energiaren bidez hainbat eraikin publiko hornituko dituzte. Lan horiek Lortu Integra SL enpresari esleitu dizkio Udalak, 5.082 eurotan.

Bestalde, kiroldegiko bigarren solairua nerabeen aisialdirako bideratuko dute; 36.768,85 euroko partida erabiliko dute atontze lan-horiek egiteko, eta laster hasiko dituzte.

Belar-haziak emango ditu Udalak basurdeen kalteak arintzeko

Ezohikoak eta beste urte batzuetan baino larriagoak dira kalteak aurten, beste lurralde batzuetan moduan

A.E.G. ARAMAIO

Basurdeek sortzen dituzten kalteak handiak izaten dira lur-jabeendako. Zelaietan sartzen dira eta lur guztia harrotuta uzten dute. Azkenaldian, areagotu egin dira kalte horiek; izan ere, basurde asko daude eta, lur-jabeek azaldu dutenez, edozein egunetan sartzen dira. Horren harira, Udalak erabaki du lur-jabeek kalteak arintzen laguntzeko belar-haziak banatzea. "Orain dela bi urte eman genuen lehen aldiz, iaz ere eman genuen, eta aurten, egoera larriagoa dela kontuan hartuta, berriro ere emango dugu", azaldu du Aramaioko Udaleko Ingurumen zinegotzi Santi Balantzategik.

Hamar kiloko zakuak

Belar-hazia nahi duenak partea eman beharko du udaletxean, otsailaren 28a baino lehen. "Bi



Zelaia harrotuta. GOIENA

hazi mota ditugu: hamar kiloko belar-hazi zakuak eta kilo bateko hirusta-hazi zakuak. Belar-hazi zaku bakoitzeko hirusta-hazi zaku bat emango dugu", nabarmendu du Balantzategik.

Iaz, esaterako, hamahiru kalte-tuk jaso zituzten hazi-zakuak.

Gorbeialdeko Gurasolagun taldearen irteera

Gorbeialdeko Gurasolagun taldeak urteko lehenengo irteera egingo du domekan, urtarrilaren 29an. Hain zuzen, oraingoan, Aramaioko lurretan egingo dute irteera: Santikurtzera igoko dira. Familiak San Kristobalen elkartuko dira, 10:30ean.

Gurasolagun elkarteak antolatzen dituen irteerak izaten dira familian euskaraz egun

ederra pasatzeko; Mintzalagun egitasmoaren barruan koka daiteke, baina ekimen hori familiei zuzendutakoa da. Gorbeialdeko familiak elkartzen dira, hilerro, eta irteera bakoitza Gorbeialdeko Kuadrillako udalerrri batean egiten da.

Irteeran parte hartu edo Gurasolagun taldeko kide izan nahi duten familiek ondorengo helbidean lortuko du informazio gehiago: gorbeialdea@mintzalaguna.org; edo 650 26 67 44 telefono-zenbakian.

Euria egiten duenean, kantxa bustita

Kiroldegia 80ko hamarkadan eraikitakoa da eta, ordutik berrikuntza txiki batzuk egin diren arren, ez dute berrikuntza nabarmenik egin. Bada, euri egiten duenean, teilatuan itoginak daudenez euria sartzen da kiroldegiko kantxara. Irudikoa, esaterako, aurreko astean hartutako irudia da. Teilatu berriarekin horrelakoak saihestu nahi dituzte.



Ur-putzua kantxan, joan den astean. GOIENA

Etxaguengo errotako lanak bere gain hartuko ditu Udalak

Aramaioko Udalak Etxaguengo errota konpontzea erabaki du. Orain arte, dirulaguntza bila ibili da lan horiek egiteko, baina, Ondare Sailetik halakorik ez duenez lortu, konponketa lanekin aurrera egitea erabaki dute. Hala, Udalak hartuko du bere gain konponketa osoa.

Imper Asfálticos SL enpresak konponduko du errota, 8.315,25

euroko aurrekontuaren truke. Ur biltegia iragazgaiztu eta errotak ondo funtzionatzeko beharrezko dituen bestelako lanak egingo dituzte. Horrez gain, Barrundia SL enpresak eraikinarren teilatuan konponketa txiki batzuk egingo ditu; teila apurtuak aldatu eta mantentzea, besteak beste. Azken lan horiek 1.306,80 euroren truke egingo dituzte.

Etxaguengo errota konpontzeko lanak esleituta daude eta laster hastea espero dute.



lako irteeran egindako talde argazkia. ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

Eskiatzera joango dira martxoan, Formigalera

Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta, irteera egingo dute martxoaren 3tik 5era bitartean. Izena eman nahi duenak online dagoen galdetegia bete beharko du otsailaren 9a baino lehen. Bazkideendako 160 euro kostako da irteera

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Eskiatzeko ez da negu ona izaten ari aurtengoa; baina dagoeneko iritsi da elurra mendietara. Bailerako mendiak zurituta daude; gustuko dutenek dagoeneko egin dute lehen irteeratxoa hemen inguruan. Bada, Orixol elkarteak ere antolatu du eski-irteera: Pirinioetara izango da, martxoaren 3tik 5erako aste bukaeran. Pirinioetako Formigal eski-estazioan eskiatuko dute. Elurra iristea kosta bada ere, zaleek izango dute eskiatzeko arantzaxoa kentzeko aukera.

Eider Ballina, Orixol elkartearen zuzendaritzako kidea: "Justu atera dugu irteeraren berri hemengo mendiak zuri daudela". Iaz ere egin zuten eski-irteera Pirinioetara eta oso harrera ona izan zuen: "Iaz, 45 pertsona elkartu ginen, gehienak herrikoak, eta giro onean pasatu genuen aste bukaera. Ea aurten ere beste horrenbeste egiten dugun". Dagoeneko eman daiteke izena, online.

Jakan egingo dute lo

Aste bukaera Jakan pasako dute, Mur hotelean: bi gau, bi gosari eta bi afari egingo dituzte han. Prezioa izango da: gau, afari eta gosari horiez gain, Aramaiotik hara eramango dituzten autobusa, 160 euro elkarteak bazkideendako eta 170 euro bazkide ez direnendako. Autobusa Aramaiotik irtengo da, barikuan, 18:30ean, frontoitik; eta itzulerakoa Formigaldik irtengo da, 16:30ean.

Beste zenbait aukera ere eskaintzen dute elkarteak; horiek guztiak hasierako prezioari gehituko zaizkie. Eskiak, botak eta bastoiak, 24 euro bi egun; snow taula eta botak, 28 euro bi egun; kaskoa, 8 euro bi egun;

AUTOBUSA BARIKUAN IRTENGO DA ARAMAIO, 18:30EAN; ITZULERA, DOMEKAN, 16:30EAN

eta aseguruak, 9 euro bi egun. Ballinak nabarmendu du nork bere aldetik eskiatu beharko duela han; hau da, ez dute eski-ikastarorik egingo Formigalera. Iaz ez zuten egin eta aurten ere ez dute egingo.

Egindako lanarekin gustura

2020 bukaeran hartu zuten Orixol elkartearen zuzendaritza gaur egungo kideek. Orduetik hona hainbat ekintza egin dituzte eta gehienek harrera oso ona izan dute. "Ekintza gehienetara animatu da jendea. Gainera, elkartearen 50. urteurrena ospatu genuen iaz eta horretarako Mendi Astea antolatu genuen. Zerbait berria izan zen. Lan handia egin genuen, baina balorazioa oso positiboa da", dio Ballinak.

Formigalera egingo duten irteera urteko lehena izango da. Elkarteak zuzendaritzaren asmoa urtean zehar beste hainbat ekintza antolatzea izango da, baina oraindik ez dute ezer lotuta.

Itsaraz-i buruzko informazio emateko, posta elektronikoa

Proiektua lehenengo fasean dago; hurrengo hilabeteetan informazio publikora aterako dute

A.E.G. ARAMAIO

Norvegiako Statkraft enpresak helbide elektronikoa bat jarri du herritarren eskura Itsaraz proiektuari buruz informazioa emateko: itsaraz@statkraft.com helbidea izango da.

Proiektuaren arduradun Jon Zayazek azaldu du Itsaraz proiektua hasierako fasean dagoela; eta fase horri dagozkion tramitazioetan dihardutela. Proiektuak dagoeneko badu distribuzio sarean sartze eta konexio baimena. Behin baimen horiek lortuta, hurrengo hilabeteetan

Itsaraz parke eolikoaren proiektua informazio publikora ateratzea espero dutela ere nabarmendu du. Alde horretatik, proiektuaren xehetasun guztiak, alor teknikoak eta ingurumenekoak kontuan izanik, herritarren esku jarriko dituzte. "Nahi dutenek alegazioak jar ditzakete, eta horiek aztertu, erantzun eta denboran kontuan hartuko dira, gure proiektu guztietan egiten dugun gisa", nabarmendu du Zayazek.

Zortzi aerosorgailuekin, 60,4 megawatt sortuko ditu parkeak.

Mendi tontorretatik argazkiak bidaltzeko gonbidapena

LEKek ikasleak eta familiak animatu nahi ditu *12 ikastetxe 12 tontor* ekimenean parte hartzera. Dagoeneko hainbat argazki jaso dituztela azaldu dute eta aurrerantzean gehiago jasotzea espero dutela. Aurtengoa ekimenaren hirugarren edizioa da: familian mendiaz gozatzea eta neska-mutilen eta gurasoen artean ohitura osasungarriak sustatzea da

helburua. LEKek proposatzen duen erronka da hamabi mendi tontorretara igo-edezein mendi izan daiteke- eta tontorrean LEKeko kamiseta jantzita argazkia bidaltzea koordinatzaileari-posta elektronikoz edo Whatsappez-.

Jasoko dituzten argazkiekin bilduma osatuko dute eta, gainera, argazki originalenak saria izango du. Maiatzaren 29ra arte egongo da argazkiak bidaltzeko aukera. Hamabi tontor igotzen dituzten ikasleek diploma eta saria jasoko dituzte ekainean.

Kuadrilla arteko saioak asteburuan hasiko dira

Bertso Kuadrilla Artekoa gaur, barikua, hasiko da -Gasteizen bi saio eta beste bat Oionen-. Domekan, aldiz, Aramaioko taldeen debuta izango da: urtarriaren 29ko saio horretan Aramaioko Izena Pentsau bida taldeak parte hartuko du, Aiaraldeko Altubepekoak taldearekin batera. Laudion, Aiaraldeko Ekintzen Faktorian izango da lehenengo saio hori, 14:00etan. Bazkaria 20 eurotan izango da. A ligako saioa izango da domekan jokatu dena. Bi talde horiez gain, A ligan dago Aramaioko Tratamendurik Gabeak taldea. Aramaioren egingo diren saioak otsailaren 4an eta otsailaren 10ean izango dira.

Oñati bisitatuko dute erretiratuek otsailaren 8an

Alaiak jubilatuen elkarteak Oñatira irteera egingo du otsailaren 8an. Izena eman beharko da urtarriaren 28rako. 25 euroko kostua izango du irteerak. Interea duenak ordainketa egin beharko du Laboral Kutxan edo Kutxabanken; edo hala nahi duenak zuzendaritzako kideekin harremanetan jarrita ere egin dezake izen-ematea.

Autobusean joango dira Oñatira; autobusa irtengo da geltokitik 09:00etan; itzulerak bazkalondoren izango da. Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea, Foruen plaza, San Migel parroikia eta abar bisitatu dituzte. Erretiratuek animatu nahi dituzte irteerara joan daitezen.



Otxoa, Elkoro eta Zubillaga, aurrekontu proposamena aurkezten. MIRARI ALTUBE

%16,9ko igoera duen aurrekontu proposamena

Hamabost milioi euro pasako aurrekontua zehaztu du Udal Gobernuak 2023rako eta horietatik 3,7 milioi bideratuko ditu inbertsioetara; bereziki, komentuaren bueltako lanetarako. Asmoa da otsailaren 9an egingo den osoko bilkuran onartzea

Mirari Altube ARETXABALETA

Agintaldiko azken urterako 15.373.544 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak; 2022koarekin alderatuta, %16,9 handiagoa. Eguaztenean eman zuten horren berri eta Unai Elkoro alkateak azaldu zuen egin barik geratu diren jarduerak jaso gura izan dituztela: "Jarraipeneko aurrekontuak dira, iragarrita genituen proiektuak abian jartzeko aukera emango digutenak".

Diru-sarreraren eta gastuen artean lau milioi euro pasatxoko desoreka dagoela onartu zuen, baina zorpetze beharrik izango den oraindik ez dakite. Iaz 2,7 milioi euroko kreditua aurreikusita izan arren, ez da gauzatu: "Martxoaren hasierarako 2022ko kontuen likidazioarekin batera jakingo dugu kreditua erabili beharko dugun edo ez, eta, hala balitz, zenbatekoa izango den. Baina, hasiera batean, aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa izango da".

Komentu inguruko lanak

Aurrekontu horretatik inbertsioetara 3,7 milioi euro bideratzea dela asmoa azaldu zuen Xabi Otxoa, Hirigintza zinegotziak, eta horietatik gehiena komentu zaharraren bueltako lanetarako izango da: batetik, 1,5 milioi euro gorde dituzte adinekoentzako gizarte zentroko lanak bukatzeko; eta, bes-

etik, 1,45 milioi euro Deba ibai ingurua egokitzeko lanetarako erabiliko dituzte. "Asmoa da komentua inguratzen duen horma eraistea, lorategia irekitzeko, eta herritarrendako eremu eroso bihurtu", zioen Otxoa.

Gainera, ibaiaren gainean pasarela bat egingo dute eta Txarapea eta Iturrizar plazaren artean igogailu publiko bat eta eskailera jarriko dituzte: "Txarapea erdigunearekin oinez konektatzea da helburua, bide zuzen eta labor baten bidez". Puntu horretan, ibaia zeharkatzen duen erdi-tentsioko linea lurperatu egingo dela adierazi zuten, eta egungo transformadorea beste puntu batera eramana.

Energia gastua gora

Bestetik, energia gastuarekin oso kezkatuta agertu ziren alkatea eta zinegotziak. 2023ko ekitaldian horri dagokion gastuaren igoera handia dagoela nabarmendu zuten. 2022ko aurrekontuan 662.000 euro jaso zituzten gasaren eta elektrizitatearen gastuetarako; 2023rako, ostera, ia bikoiztu egin dute eta

ENERGIA GASTUAREKIN OSO KEZKATUTA AGERTU DIRA, IA BIKOIZTU EGINGO DELAKO

1.153.000 eurokoa izango da. "Horrek asko mugatuko du hurrengo urteetan ere", zioen alkateak.

Gastu horren erdia Ibarra kiroldegia nabarmendu zuen Koldo Zubillagak, Kirol zinegotziak: "Kirol instalazioek dute gasturik handiena; izan ere, 1.655.000 euro aurreikusi ditugu eta hortik 673.000 euro kiroldegiko energiari dagokio. Hortaz, adi egon beharko dugu energiaren prezioaren bilakaerari, eta, hala jarraituz gero, neurri zorrotzak hartu beharko lirakeke gastu ekonomikoa murrizteko".

Beste partida batzuk

Bestalde, adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua lizitatzeko 20.000 euroko partida gorde dute. Eta beste inbertsio batzuk ere aurreikusi dituzte: Arkupen eguzki-plakak jartzeko, 80.000 euro; Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) gartzeko, 64.000 euro; bide publikoak mantentzeko, 100.000 euro; kiroldegian LED argiak jartzeko, 60.000 euro; urbanizazio lanetarako, 100.000 euro; proiektuetarako, 90.000 euro; eta erraldoi berriak erosteko, 9.000 euro.

Aurrekontuaren proposamena dagoeneko helarazi dioela oposizioari adierazi zuten. Ondoren, otsailaren 9an egingo den osoko bilkuran aurkeztuko dute, onartua izan dadin.

NIRE USTEZ



MAIALEN ARRIZABALAGA ARANA

Azaleko ikaskuntza ala berrikuntza?

Duela bizpahiru aste, irakasle batek idatzitako artikulu bat irakurri nuen. Azpimarratu zituen ikasle batzuek ikasteko jarrera ezkorra adierazten dutela eta horiek ikastera bultzatzea maiz ezinezkoa izaten dela. Gaineratu zuen "ikasle guztiek balio dute" eta "irakasleok ikasleen gaitasunak azaleratzen eta horiei balio handiena ateratzen saiatu behar dugu" bezalako esaldiak asko entzuten direla. Bestalde, goraiatu zuen hezkuntzan gero eta materia gutxiago lantzen dela eta ikaskuntza azalekoa dela.

Gizartearen izaera aldakorraz jabetuta, etengabeko aurrerapenaren bizimodu honetan, bizitzak are eta azeleratuago eta konplexuago bihurtzen dira. Ondorioz, egungo jendarteak kompetentzia ezberdinak garatu behar ditu. Egia da, agian, ikasgeletan materia gutxiago barneratzen dela, baina beste alderdi batzuk lantzen dira: lankidetzak, erabakiak hartzeko gaitasuna, gatazken kudeaketa, komunikazioa, emozioen lanketa edota norberaren ongizatea. Gizarteak aldaketak pairatzen dituen heinean, hezkuntzak nahitaez norabide berrietatik jo behar du; batez ere, pertsonen ongizatea bermatzea badu helburu.

Aratusteetako bazkarietarako txartelak, bihartik salgai

Arkupen erosi beharko dira kiroldegikora joateko eta Kixkorren eta Urbaltzen bazkari 'golfo'-koak

M.A. ARETXABALETA

Aratuste-domekan egingo diren bi herri bazkarietarako txartelak bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai. Udalak antolatutakoa kiroldegian egingo da eta txartelak -600, guztira- Arkupen erosi ahal izango dira, 10:00etatik aurrera. Kuadrillak eman behar da izena, eta kreditu-txartelarekin ordaindu; helduen menuak 22 euroko prezioa du eta umeenak, 14 eurokoa -14 urte arte-.

Bazkari *golfo*-rako txartelak -400, guztira- Kixkor eta Urbaltz tabernetan erosi beharko dira,

horiek zabaltzerakoan. Prezioa da 20 euro eta kasu honetan ere kuadrillak eman behar da izena; hori egiteko, abesti bat proposatzeko eskatuko zaie.

Kuadrillak, gainera, hasita daude moztaroko gertatzen; Udalak utzitako lokaleko giltza, esaterako, zortzik dute hartuta.

Kartel lehiaketa

Bestetik, Kultura Sailak deitutako kartel lehiaketara urtarillaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira lanak; irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Autoestimua gainera lanketa bukatzeko, jolasak

EKKO proiektuaren baitan eta *Inklusioa/ilusioa* egitarauaren barruan autoestimua landu dute DBHko bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek azken hilabeteotan. Bihar, zapatua, unitateari bukaera emateko, jolasak eta trebetasun sozialak uztartuko dituzte hainbat kirol-dinamikaren bidez Ibarra kiroldegian (10:30), gurasoekin batera.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

UDArean familiara batu da bola-joko taldea

Federatuta dauden hamabi bat lagunek osatzen dute eta hori indartu nahian dihardute lanean; aurtengo lehen txapelketa Aratuste-zapaturako antolatu dute eta ordurako entrenatu gura duenak eguen iluntzetan du aukera, bolatokian

Mirari Altube ARETXABALETA

Bola-jokorako zaletasuna berreskuratu nahian taldea sortu zuten orain dela lau urte. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa barruan sartu zen eta ordutik txapelketa asko antolatu dituzte. Orain beste bultzada bat jaso du, Aretxabaleta kirol elkartearen babesera batuta. "Estatutuak egitea geratzen da, baina formalizatzeko era besterik ez da. Pozik gaude, kirola egiteko beste aukera bat eskainiko dugulako", adierazi du Agurtzane Elkorok, UDAko presidentea. Taldearen arduradun Kepa Urrea ere gustura agertu da: "Ez dugu aparteko aldaketarik igarriko guk; nahiko genukeena da jende gehiago arrimatzea".

Hamabi laguneko taldea

Taldea osatzen dute federatutako hamabi bat lagunak. "Haiez gain, gure inguruan beste hainbat ibiltzen dira laguntzen", dio Urrak. Azken urtean bi fitxaketa egin dituzte, gazteak biak: Xabier Etxeberría eta Jon Andoni Jaka. "Oso gustura" dabilza biak ala biak eta, taldekideek adierazi dutenez, itxura polita erakutsi dute txapelketetan. Bola bat erosi dute, ondo prestatzeko gogoz, eta ilusio handiarekin dihardute lanean.



Bola-joko taldeko hainbat kide urtarrileko entrenamendu-saio batean. MIRARI ALTUBE

Txapelketak gertatzeko entrenamendu-saioek "berebiziko garrantzia" dutela esatean bat datoz guztiak: "Boloa erabili egin behar da esku artean, bestela kosta egiten da puntua hartzea". Horregatik, eguenetan hasi dira elkartzan bolatokian, 18:30 bueltan. "Saio irekiak izaten dira eta giro polita izaten dugu; hortaz, etorri beldur barik".

Aratusteetan lehen txapelketa

Beste bultzada bat eman gura diote jokoari herrian eta aldaketaren bat edo beste egitea

erabaki dute. "Eguerdietan jokatuta izan ditugu txapelketak, eta, probatze aldera, aurtengo zapatu gauetan egingo ditugu; ea herritar gehiago animatzen den", aditzera eman du Urrak.

Aurtengo egitaraua dagoeneko zehaztuta daukate; otsailaren 18an ekingo diete txapelketei, Aratuste-zapatuan, hain zuzen ere, eta ondoren, hilabete guttietan izango dira tiraldiak. Gipuzkoako Liga, ostera, martxoaren 11n hasiko da, Eibarren, eta Aretxabaletara maiatzaren 13an iritsiko da.

Huhezinema jaialdiko sariak banatuko dituzte gaur Arkupen

Hamaseigarrenez antolatutako euskal film laburrei eskainitako egitaraua abian da eguaztena ezker

M.A. ARETXABALETA

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio-ko laugarren mailako ikasleen eskutik etorri da hamaseigarren Huhezinema film laburren jaialdia eta hiru eguneko egitarauari bukaera emango diote gaur, egubakoitza, sari banaketa ekitaldiarekin.

32 finalista eta hamar sari

Lehiaketara 84 lan aurkeztu ziren eta horietatik 32 hautatu dituzte finalerako, hiru sailetan banatuta: Ikasle Sailean hamar finalista daude, Bideoklip Sailean hamabi eta Sail Ofizialean beste hamar. Azken sail horretako lanak, hain zuzen ere, gaur bazkalostean 14:30ean eta 16:45ean erakutsiko dituzte eta iluntzetan, 19:00etan, sari banaketa ekitaldia izango da. Lan horien egile asko elkartzeko dira Arkupen.

Epaimahai ofiziala hiru kidek osatu dute: Andoni Imaz kazetariak, Nagore Eceiza film zuzendariak eta Kepa Errasti aktore eta gidoilari aretxabaletarrak. Huhezinema sari nagusia emango dute haiek, baita beste sailetan bina sari ere. Mundukide gobernuz kanpoko erakundeak, ostera, sail bakoitzean sari bana emango du, azken urteetan legez, eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek Vertigo Saria banatuko dute. Aurten, lehenengoz, gainera, Senior Saria emango du erretiratuz osatutako epaimahai batek. Guztira, 4.000 euro baino gehiago banatuko dituzte.

Jaialdiari amaiera jai giroan emango diote: lehenengo, ElektroPottotte elektrotzaranga ibiliko da kalean (21.30), eta ondoren, Julen DJa izango da Ezkutu tabernan (23:30).

Erromintxelak taldeak kontzertua egingo du domekan

Swing eta gipsy doinuak eroango ditu Arrasateko Erromintxelak taldeak Arkupera domekan, 19:00etan –sarrera 5 euro da–. Blues erritmoak inprobisatuz eta instrumentu akustikoak baliatuta musika dantzagarri eta jostagarriarekin beteko du Zairaia aretoa, XX. mendeko Parisko burdel eta kasinoetako giroa gogora ekarritz.

Eskarmentu handiko musikariz osatutako talde gaztea da Erromintxelak; pandemia betean, 2020an, sortu zuten hiru lagunak: Jon Garciak –gitarra elektrikoa eta ahotsa–, Iñigo Zubizarretak –Manouche gitarra– eta Aitor Moranx-ek –kontrabaxua–. Eta ondoren batu ziren Jokin Vitoria –perkusioa– eta Mikel Maniega –tronpetea–. Hainbat taldekide rockarekin eta punkarekin hazitakoak izan arren, askotariko estiloak dituztela gustuko adierazi dute.

Durana
Hartz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



2021ean astigarrek landatu zituzten Santa Marina plaza alboko belardian. IMANOL SORIANO

Zuhaitz landatzea, bizitza berriengatik

2022an, 30 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta, beraz, urteroko ohitura jarraituz, zuhaitz landaketa egingo da haur jaioberri horien izenean. Domekan batuko dira, Ibarraundi museoan, eta handik kanposantu ingurura joango dira landaketa egitera

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 2022an, 30 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta haur horien jaiotzak ospatzeko zuhaitzak landatuko dituzte jaioberrien gurasoek, familian, Ibarraundi museotik koordinatuta. 11:00etan batuko dira familiak, Ibarraundin, eta handik kanposantu aldera joango dira zuhaitzak landatzera. Materiala, berriz, Ibarraundi museoak jarriko du, baita zuhaitzak ere.

Tradizio horrekin urteak daramatzate Eskoriatzan, eta, oinarrian, zenbait lurraldetan plazentarekin ere zerikusia du. Izan ere, lehen, organo hori zuhaitzaren sustraien ondoan lurperatzen zen, bereziki eman-korra izan zedin. Domekako hitzorduan ez da halakorik egingo, baina, haur baten jaiotza gertakari garrantzitsua denez eta familia hazi egiten denez, zuhaitzak landatuko dituzte, aldaketa horren sinbolo gisa. Gainera, haurra hazi egiten da, baina baita landarea ere, eta,

hain zuzen, landatutakoa zaintzeko konpromisoa hartuko dute hitzordura batzen direnek.

Landaketa kanposantu inguruan Eskoriatzako berdeguneetan landatu izan dituzte mota askotariko landareak azken urteetan: Santa Marina plazako belardian, Ibarraundi alboan... Hala ere, geroz eta leku gutxiago geratzen dira herrian halako landaketak egiteko. "Zuhaitzak landatzeko ez dago leku askorik herrigunean eta aurten kanposantuaren inguruan egingo dugu landaketa", adierazi du Saioa Alzuak, Ibarraundi museoako langileak. Horrekin batera, zenbait urtez, jaiotako haur bakoitzagatik landare bat landatu izan dute, bai-

ZUHAITZEK GIZAKION BIZITZAN DUTEN GARRANTZIA SINBOLIZATZEKO, ZUHAITZ LANDAKETA

na, beste batzuetan egin moduan, taldeka egingo da aurten; hau da, batzen direnen artean zenbait landare landatuko dituzte.

Ingurumenarekiko konpromisoa Gizarteak ingurumenarekiko konpromisoa sendotzeko ere balio izango du domekako zuhaitz landaketak; izan ere, haurren jaiotza ingurumen-ekimenarekin lotuko da. Modu horretan, familia udalerriko natura-ondarearen kontzientzian inplikatu nahi dute, eta asmoa da lotura afektiboa lortzea pertsonaren bizitza berriaren eta zuhaitzaren hazkunderaren artean.

"Iaz landatu genituen landareak, orokorrean, bizirik daude, baina uda oso gogorra izan da eta orain dela bi urte landutakoak lehortuta daude. Ez dakit egoerari buelta emango dioten eta landareek indarra hartuko duten. Landatuko ditugun espezieak, betiko moduan, bertakoak izango dira, baina ez dugu zehaztu zer landatuko dugun".

Energia berriztagarrien erabilera handitzeko urratsa

Eguzki-energia hartzeko sistemen instalazioa arautzeko ordenantza-proiektua du Eskoriatzako Udalak

I.B. ESKORIATZA

Energia berriztagarrien erabilera handitzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko bidean, Eskoriatzako Udalak energia berriztagarriak sustatzeko hautua egin du. Sistema horien ezarpena modu ordenatuan egin behar da eta Udalak ez dauka hirigintza-erregulaziorik Eskoriatzan gero eta gehiago jartzen ari diren eguzki-energia hartzeko sistema horiek arautzeko. Hori horrela, Udalak ordenantza arautzailea egin nahi du, alde batetik, hirigintza-ikuspegia

txertatu eta eguzki-energia hartzeko sistemak modu ordenatuan ezarri ahal izateko, eta, bestetik, paisaia-inkaktu zaintzen dela ziurtatzeko edo, ahal den neurrian, hura gutxituz; hau da, ingurunearekin harmonia zainduz. Ordenantza idatzi eta onartu aurretik, baina, ordenantza-proiektua jendaurrean jartzen da, interesdunek arrazoiak ezagutu eta egoki iritzitako ekarpenak egin ditzaten. Proposatzen den araudi-proiektua udal webgunean aztertu daiteke, eta bertatik ekarpenak egin.

GORA ETA BEHERA



Txoletak jartzen ari dira iturrietan ura edateko

Gehienbat, mendietako iturrietan ura edateko erabiltzen da txoleta, eta Buztinateko zenbait kidek Mazmela elizateko iturrian jarri dute, baita Gomitz-iturrian ere, Atxorrotxera bidean, herritarrek erabiltzeko. Beste bost txolet dituzte jartzeko oraindik.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Azken agintaldia hizpide 'Harira' saioan martitzenean

2019-2023ko agintaldia amaitzear da eta Goiena telebistan *Harira* saio bereziak grabatzen ari dira herriz-herri, herrietako alkateekin eta alderdietako ordezkariekin. Martitzenekoan Joserra Zubizarreta eta Nestor Arana elkarriketatuko ditu Goiatz Aranak. 21:00etan eta 23:00etan izango da emisioa eta *Goiena.eus*-en ere ikusi ahalgo da saioa.

Otsaileko bigarren asteburuan Astunera eski irteera

Eskoriatza Kirol Elkarteak urteroko eski irteera antolatu du otsailaren 11rako eta 12rako. 37 lagunentzat izango da tokia autobusean eta prezioa, 195 eurokoa da. Informazioa jasotzeko edo izena emateko, Namaste belar dendatik pasa daiteke, hara deitu -943 71 43 27 telefono-zenbakia- edo eskoriatzamt@gmail.com helbidera idatzi.

Athlonek kudeatuko du kiroldegiko zerbitzua

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko Kirol Zerbitzua Athlon enpresak kudeatuko du otsailaren 1etik aurrera. Lehiaketa publikoa irabazi du Athlonek eta asteen batu dira udal ordezkariak enpresako arduradunekin kontratuaren xehetasunak aztertze

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 2023ko lehenengo osoko bilkura egin dute asteen Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta bertan, E-goitek SLren faktura ordaintzea –abenduko kirol zerbitzuak– izan zen gai zerrendako puntuatuko bat. Aho batez onartu ostean, aurreratu zuten zuten orain arte Manuel Muñoz kiroldegian Eskoriatzako Udaleko Kirol Zerbitzua kudeatzen aritu den E-goitek enpresaren ordez Athlon enpresa hasiko dela zerbitzua eskaintzen. Hain zuzen ere, otsailaren 1etik aurrera izango du horren ardura.

Horren harira, asteen batu dira kiroldegiko zerbitzuaren gaineko xehetasunak aztertze, besteak beste, Athloneko kirol proiektu eta instalazioen koordinatzaile tekniko Iñaki Olaetxea, Athloneko kudeaketa arduradun Iñigo Murgiondo eta Manuel Muñoz kiroldegiko koordinatzaile Asier Urzelai, udal ordezkariekin eta teknikariekin, kiroldegian bertan.

Lehiaketa publikoa irabazita

Eskoriatzako Udalak aurkeztutako lehiaketa publikora lau enpresa aurkeztu ziren: Athlon Sintagma, BPxport, UTE Ebone eta E-goitek. Horiek aurkeztutako dokumentazioaren esle-



Athloneko ordezkariak kiroldegi aurrean, asteen. ESKORIATZAKO KIROLDEGIA

pen-irizpideak baloratuta, puntuazio handiena Athlonek lortu zuen, eta lehiaketa irabazi. "Athlonek proposamenean leguko puntu guztiei erantzuten die eta puntuazio handieneko proposamena berresteko adina inplementazio eta egokitzen bideratzen ditu", adierazi zuen Eskoriatzako Udalak balorazio teknikoaren txostenean. Horrekin batera, Athlonetik jakinarazi dute barne antolaketan aldaketaren bat edo beste izan daitekeela, euren lan egiteko moduari jarraiki, baina

ohiko zerbitzuak mantenduko direla azpimarratu dute.

Bailaran ezaguna

Ibilbide luzea du Athlonek eta osasuna, jarduera fisikoa eta kirolaren alderdi ezberdinak lantzen eta adin guztietako jendearekin elkar-eragiten du. Aretxabaletako Ibarra kiroldegiko eta Oñatiko Zubikoako kirol zerbitzuez arduratzen da, besteak beste, eta, horietan moduan, Eskoriatzan ere herritarren ongizate maila hobetzen laguntzeko asmoz arituko da.

Etorkizuneko Eskoriatza hizpide zapatuko saioan

2030ean. *Nolako Eskoriatza izan nahi dugu?* jardunaldi segida emango die Eskoriatzako EH Bilduk zapatuko honetan, hilak 28. Etorkizunera begira gauzak egiteko beste modu bat dagoela sinesten dute eta zenbait gaitan sakonduko dute kultura etxean egingo duten saioan. Hain zuzen ere, 09:30ean elkartuko dira kafe bat hartzeko eta

10:00etan hasiko dute saioa; 12:00ak arte iraungo du.

Garraioa, elikadura-burujabetza, kontsumo-efizientzia eta berriztagarrien sorkuntza izango dira, batez ere, jardunaldian berbagai izango dituzten gaiak. "Garai inportantea bizi izaten ari gara. Gure bailaran, Euskal Herrian eta munduan aldaketak gertatzen ari dira eta gertatuko dira. Horiek gure ongizatean eragingo dutenez, ongizate-maila hobetzean eragin beharko dugu", adierazi dute EH Bildutik.

Gabez Takarraren proba ekainaren 10ean izango da

Eskoriatzako gaueko mendi lasterketaren eguna ezarri dute antolatzaileek, baita izen-ematea ireki ere –*rockthesport.com*–. Ekainaren 10ean egingo da proba, eta korrika edo oinez egiteko aukera izango da. 25 kilometroko bidea korrika egin nahi dutenek 25 euro ordaindu beharko dute eta paseoa egingo dutenek, berriz, 15 euro.



Leintz Gatzagako udaletxea. IMANOL BELOKI

Zabalik da uraren eta zaborraren tasak ordaintzeko epea

Udal webgunean jarritako iragarkietan ezarri dituzte bi ordaintzen gaineko xehetasun guztiak

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako udal webgunean ur, arazketa eta saneamendu tasak zein zabor bilketaren, garraio eta tratamendu zerbitzuaren tasen ordaintze epeak zabalik daudela iragarri dute asteen.

2023ko urtarrilaren 19ako alkatetzaren dekretuz, 2023ko lehenengo seihileko zabor bilketa, garraio eta tratamendu tasaren errolda onartu da eta kontu-hartzailetzan ikusgai egongo da 30 egunez. Epe horretan, errolda horren aurka errekurtsioak eta alegazioak jarri ahal izango dituzte herritarrek. Horrekin batera, ordaintzeko lekuak eta moduak zeintzuk diren adierazi dute: helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira; helbideratu gabeko ordainagi-

riak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira eta finantza erakunde kolaboratzaileetako bulegoetan, kutxazainetan, banku elektronikoetan eta ordaintze pasabidearen bitartez ordaindu ahal izango dira. Borondatezko ordaintze epea amaitzean, ordaintze exekutiboari ekingo zaio: gaitzarguak, berandutza-interesak eta, hala balegokio, kostuak gehituko dira.

Uraren tasak

Gipuzkoako Ur Kontsortziotik, bestalde, urtarrilaren 31ra arte dagoela ur, arazketa eta saneamendu planari dagozkien kopuruak ordaintzeko adierazi dute udal webgunean iragarkian. Kasu horretan, 2022ko laugarren hiruhilekoari dagokiona ordainduko da, eta aurrezki kutxen bidez egingo dela ordaintze gogorarazi dute.

Baserrin inguruetan sortutako plastikoa uzteko deia

Debagoieneko Landa Garapen Elkartek baserrin inguruetan sortzen den plastiko bilketaren 2023ko egutegia argitaratu du. Siloa estaltzeko plastikoa, belarboletan erabiltzen dena, berotegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen dena eta berotegiak estaltzeko erabiltzen dira jasoko diren plastiko motak, eta, horrekin batera, sokak eta sareak

plastikotik bereizita zaku batean ondo bilduta utzi beharko direla adierazi dute.

Bailarako zenbait herritan egunak eta orduak zehaztuta daude, baina, Leintz Gatzagaren kasuan, Dorleta Santutegiko bidegurutzean egingo da bilketa. Hala ere, aurrez derrigorrez deitu beharko da 943 76 25 47 telefono-zenbakira. Horrekin batera, bilketa-lekua aldatu nahi bada edo argibide gehiago eskatu, telefono-zenbaki berera deitu beharko da.



Europako Next Generation dirulaguntza helduko balitz, frontoia berritzeko baliatuko lukete; irudian, asteleheneko entrenamendua.



Arrizuriaga jauregia egonkortzeko lanak "laster" amaituko dituzte.

Masterreka, pilotalekua, Arrizuriaga eta azoka berritzea dute lehentasun

Kale zaharkitua eta hiru azpiegitura horiek berritzeko lanak dira 2023rako Udalaren inbertsio nagusiak; lau proiektuetara 2.340.000 euro inguru bideratzea da aurreikuspena

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udal Euskaltegirako eta Mizpirualde egoitzarako ekarpenak (465.415 euro) ere aintzat hartuta, 30.656.087 eurokoa da 2023rako udal aurrekontua. 2022ko abenduaren 19ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Udal Gobernuaren proposamena; EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren kontrakoekin egin zuen aurrera –PSE-EEko Alberto Alonso ez zen bilkuran egon–.

Zor biziaren jaitiera

Aurrekontuok onartzeko bilkuran Ogasun zinegotzi Aitor Arantza balez azpimarratu zuen, besteak beste, 2019a ezker "nabarmen" jaitsi dela Udalaren zor bizia: "2019tik 2022ra zor biziaren egoera nabarmen hobetu dugu. 2019an 5.855.941 eurokoa zen zor bizia eta 2022an, berriz, 4.822.205 eurokoa. Udal Gobernu honen kudeaketari esker Udalaren egoera ekonomikoa hobetzea lortu dugu".

Era berean, 2019a ezker arlo batzuetan izan diren partiden bilakaeraren berri ere eman zuen Udal Gobernuak: Berdintasun arloan 159.920 eurokoa izango da aurrekontua, 2019an baino %173,08 handiagoa; Gizarte Zerbitzuetan

2.680.212 euroko aurrekontua, 2019an baino %42,84 handiagoa; Garapen Ekonomikoan 793.251 euroko aurrekontua, 2019an baino %48,64 handiagoa; Kultura arlorako 1.412.098 euro, %72,44ko igoera 2019koarekiko; Auzoetarako 861.000 euro, %78 handiagoa 2019an baino –aintzat hartu behar da horietatik 195.000 euro Boluko malda egonkortzeko direla eta, beraz, auzoetara zuzenean 2019an baino %38 gehiago bideratuko dela–; eta Ingurumenean 2019arekiko %25,9ko igoera izango da 2023an.

Masterreka martxan da

Urtarrilaren 9a ezker itxita dago Masterreka kalea. Agintaldiko obra esanguratsuen izaten ari den Zubieta-Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko lanen barruko hirugarren eta azken fasea da gaur egun martxan dagoena; 2023ko aurrekontutik 820.000 euro bi-

UDALAREN ASMOA DA MASTERREKA PENTEKOSTEETARAKO BERRITUTA ETA ZABALIK IZATEA

deratzea dago aurreikusita. Masterreka itxita egoteak eragin zuzena du herri barruko zirkulazioan; izan ere, ardatz horretatik egin ohi zen Bolurako, Elosurako eta Burdinaterako joan-etorria eta auto eta kamioi ugari pasatzen ziren bertatik. Gidariak bide alternatiboa egiten dute, beraz, Multzo Monumentaleko kaleak zeharkatuta. Hau da, aldaketa nabarmenak sarrera eta irteeretan daude: sarrera Ertzaintzaren egoitzaren aurrean, Arrizuri aldapatik gora, hasten da orain, Espolotik, San Pedrotik, Artekaletik eta Arruriagatik joanez; irteera, berriz, Barrenkaletik egiten da, Irizar kalean behera Kruz Gallastegira irtenda.

Masterreka berritzeko fasearen exekuzio epea ere sei hilabetekoa da, Zubieta kaleko aurreko bi faseen antzera. Maiatzaren 26an hasiko diren Pentekoste jaietarako kalea zabalik izatea nahiko luke Udalak, halako obra handi baten atzerapenak izan daitezkeela presente izan arren. Herritarrek Masterrekako lanekin lotutako keza, ohar eta gomendioak udaletxeko bulego teknikora deituta bidera ditza-kete: 943 77 91 38.

Frontoia berritzeko aukera

Kirol azpiegiturak berritzea ere bada lehentasunetako bat. Agintaldi honetan berritu dute Labe-garaietako kiroldegia eta Agorrosin futbol zelaiko lehen faseko lan esanguratsuenak orain gutxi amaitu dituzte; 2022ko abenduaren 10ean jokatu zen lehen partidua zelai artifizial berrian. Bada, 2023an udal pilotalekua berritzen hasteko prozesua martxan jarri ahalko litzateke; betiere, Europar Batasunetik datozen Next Generation izeneko dirulaguntza helduko balitz. Eraginkortasun energetikoan hobetzeko helburuarekin sortu zuen Europak dirulaguntza-lerro hori; Udalak dirulaguntza hori jasoko balu, frontoia erabat berritzeko aprobetxatuko luke, baina, aurrera egitekotan, hurrengo agintaldian hartuko luke forma frontoia-erakunde proiektuak.

Arrizuriaga: aurten erabilgarri?

2023rako inbertsio nagusien artean dagoen beste proiektu bat da Arrizuriaga jauregia kultura ekipamendu egitearena; Udalak proiektu horretara 510.000 euro bideratzea aurreikusten du aurten. 2022ko azaroaren 16an egin zuen Udalak herritarren ekarpenak jasotzeko parte-hartze prozesuko azken saioa eta, gaur-gaurkoz, jauregia egonkortzeko lanak amaitzen ari da Goitu Eraikuntzak enpresa –egonkortze-lanetarako aurrekontua 547.964 eurokoa izan da–.

Kultura arloan Bergara "berreziki aberatsa" izaten jarraitu dezan "estrategikoa" izango da Arrizuriaga. "Kultura arloko askotariko diziplinak batzeko lekua izatea nahi dugu. Eta sormena lantzeko espazioa izateaz gain, sortutako hori erakusteko plaza izatea ere gustatuko litzai-

Inbertsio azpimarragarrienak

Jarraian zerrendatzen diren inbertsioak Udal Gobernuak azpimarratutakoak dira, diru kopuruaren arabera ordenatuta.

2023rako aurreikusten diren inbertsio garrantzitsuenak

- **1.060.000 euro** Etxez etxeko zerbitzua.
- **820.000 euro** Masterreka kalea berriro urbanizatzea.
- **780.000 euro** Udal frontoia berritzea, Europar Batasunetik Next Generation izeneko dirulaguntza etorriko balitz.
- **510.000 euro** Arrizuriaga jauregia kultura ekipamendu egiteko proiektua. Orain bertan, egonkortze-lanetan dago eraikina.
- **450.000 euro** Mugikortasuna eta autobus geltokitik Eskusarte kalerainoko bidegorria.
- **329.000 euro** Gaztelekua eta ludoteka berritzeko proiektua.
- **230.000 euro** Azoka Elkarrekin proiektua.
- **200.000 euro** Herrigunearen zoladura.
- **200.000 euro** Boluko mendi hegalarren egonkortzea.
- **200.000 euro** Baserri bideak eta arekak.
- **175.000 euro** Energia berriztagarriak –plaka fotovoltaikoak–.
- **150.000 euro** Udal eraikinak, zerbitzu orokorra.
- **149.000 euro** Ingurumen arloko proiektua.
- **100.000 euro** Auzoetako azpiegiturak eta urbanizazioak.



Urtarrilaren 9an hasi ziren Masterreka kalea berritzeko lanak; sei hilabeteko exekuzio-epea du obrak. ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA



Azokaren lizitazioa 345.443 eurokoa da; 2023ko aurrekontutik 230.000 euro inguru.

guke; horretarako bileretan aipatu izan da agertoki bat, erakusketetarako areto bat eta hitzaldi edo bestelako saioetarako gune bat izan beharko lituzkeela, besteak beste, Arrizuriagak. Hau da, kulturara bideratutako askotariko erabilerak aurrei-

NEXT GENERATION LAGUNTZA HELDUKO BALITZ, FRONTOIA ERABAT BERRITZEKO BALIATUKO LUKETE

kusten ditugu. Izan ere, uste dugu hurrengo hamarkadetarako estrategikoa izango da erakina; hori horrela izan dadin prest gaude beharrezko baliabideak jartzeko", adierazi du Udalak. Asmoa da 2023an zehar Arrizuriaga erabilgarri egotea.

Azokarekin beste saiakera bat Oxirondo azoka biziberritzeko beste saiakera bat egingo du Udalak, herriko lehen sektorearen bueltan sor daitezkeen ekimenen topaleku izan dadin. "Bertako produktua eta lehe-

nengo sektorea erdigunean jarriko duen topagune bat nahi dugu herrian. Kokagune bat eman nahi diogu lehenengo sektoreari eta bertako produktuari, eta asteaz zehar gainbeheran dagoen egoera horri buelta bat eman, eskaintza osatu eta es-

HERRIKO KULTURAREN TOPALEKU IZAN NAHI DUEN ARRIZURIAGA 2023AN ERABILGARRI EGOTEA ESPERO DUTE

kaintza iraunkorra sortu", diote Udaletik. Salmenta-guneaz harago, topagune izatea da helburua. Sentsibilizazio eta formakuntza espazio bat ere edukiko du eta koordinazio guztia bertatik eramango da.

Lehen solairuan egingo da obra, azoka biziberritzeko "beharrezko" ikusi dena; Arrasateko Biark Estudioak enpresak idatzitako proiektuan zehazten denez, azokan sartu eta eskualdean gune bakarra sortuko da; ezkerreko aldean, berriz, espazio txikiak mantendu egin-

go dira eta hutsik daudenak bete. 2022ko abenduaren 26an amaitu zitzairen enpresei proposamena aurkezteko epea eta lehiaketara aurkeztu eta puntuazio handiena duen enpresari materiala eskatzen ari zaio Udala. Gaur egun, hiru bakarrik dira zabalik dauden postu finakoak eta oso gutxi dira egunerokoan Oxirondoko azokara joaten diren herritarrak; egoera horri buelta emateko beste saiakera bat egingo du Udalak. Obraren aurrekontua 345.443 eurokoa da, BEZa barne.



ATEAK
ZABALIK

OTSAILAREN 4AN - LARUNBATA
haur hezkuntzako erakinean
11:00etatik-14:00etara

Matrikulazioa zabalik
otsailaren 13tik 24ra

BISITA PERTSONALIZATUAK
OTSAILAREN 6TIK 17RA
(familiak edo talde txikietan)

hartu zuen hitzordua
☎ 943 76 21 47


**SAN MARTIN AGIRRE
BERGARAKO HERRI ESKOLA**




Patio inklusibo berria, martxorako erabilgarri

San Martin eskolako Haur Hezkuntzako gunean patio inklusibo berria egiteko lanak aurrera doaz eta aurreikusten dute hilabete eta erdian amaitzea lanak; aurrekontua 122.429 eurokoa da; Udalak %75 pasatxo ordaindu du eta guraso elkarteak, ia %25

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA San Martin eskolako Haur Hezkuntzako gunean patio berria egiteko lanak aurrera doaz. 2021 amaieran estalpea jarri ondoren, 2022 amaieran patioa eraberritzeari ekin zitzaion eta aurreikuspena da martxoaren hasierarako bukatuta egotea.

Eskolako Haur eta Lehen Hezkuntzako patioetan zegoen hutsunea aspaldi identifikatuta zuen eskolako komunitateak, 2021eko irailean Lehen Hezkuntzako patioan jolas librerako eremua inauguratzerakoan gurasoen ordezkariak azaldu zuten: "Kirola zen eskaintza nagusia bietan eta ikasle asko geratzen ziren dinamika horretatik kanpo. Argi genuen ikasle guzti-guztietan jolaserako askotariko aukerak eskaintzen zizkien kanpo espazio inklusibo behar genuela. Horrela abiarazi genuen patioak eraldatzeko prozesua". Eskolako gurasoek eta zuzendaritzak "lan izugarria" egin dute patioerako irizpideak bateratzen eta Udalarekin batera lantzen. "Eskolarako ez ezik, herrirako ekarpen polita egin dute", uste du Ekaitz Aranberri zinegotziak.

Ur-hodi baten apurketa

Obra hasi eta berehala ur-hodi bat apurtu zen eta horrek "ur-ema-



San Martin eskolako Haur Hezkuntzako patio lanak, astelehenean. J.B.L.

UR-HODI BAT APURTU IZANAK 12.000 EUROKO GAINKOSTUA ETA OBRA ATZERATZEA ERAGIN DU

ri handia" eta obrak geratu behar izatea eragin zuen, eskolako zuzendari Joserra Lasaren arabera. Hodi hori konpontzeak 12.000 euroko kostua izan du eta, prezioan ez ezik, obra amaitzeko epean ere eragin du; aurreikus-

pena da obra martxo hasierarako bukatuta egotea.

Inbertsioari dagokionez, 122.429 euro pasako aurrekontua zehaztu zen patioa berritzeko; Udalak kopuru osoaren %75 pasatxo hartu du bere gain eta Agorrosin guraso elkarteak, gainontzeko ia %25a. Udalaren inbertsioa urte hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa izango da; izan ere, Eusko Jaurlaritzatik patio inklusiboetarako espero ez zen dirulaguntza jaso da. Ekopaisaia eta Izarraitze Lorezaintza enpresak ari dira lanok egiten.

GORA ETA BEHERA



"Bidegorria egin edo bidea ireki dezatela"



Antzuolarako irudiko bide tartea "arriskutsu" dagoela dio herritar batek; oinezkoentzat eta bizikletentzat: "Landaredia ez da aspaldi moztu eta hesi zahar horrek ez du ezertarako balio. Bidegorria egin dezatela behingoz, edo bidea ireki dezatela".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).



J.B.L.

Jam izatetik gasolindegi izatera

1996ko urriaren 5ean ireki zituen ateak Jam aretoak, Soziedad Alkoholika taldearen kontzertu batekin—astebete geroago, Bedelkarrek moda desfilea egin zuen bertan— eta 2006ra arte Euskal Herriko areto esanguratsuenetako bat izan zen. Bada, Jam izan zenaren eraikina asteon bota dute; Plenoil enpresak prezio apaleko gasolindegi bat eraikiko du han.

OHARRAK

Larramendiko Arnasa: proiektzioa eta solasaldia

Cuerdas filmaren ostean hitza hartuko dute Muskizen sendagile izandako Sara Ibañezek, Gurasos elkartearen presidentea Jose Mari Izetak eta Gurasos elkartearen lehen presidentea eta abokatu Joseba Belaustegik. Hilaren 31n izango da, Seminarixuan (19:00).

Ndank Ndank elkartearen bideoklipa

Bizipoza elkartearekin batera grabatutako bideoklipa aurkeztuko dute urtarrilaren 29an Seminarixuan, 12:00etan.

Goienagusi: Pedro Saldañaren bigarren saioa

Zinemaren analisia gaineko bigarren saioa, otsailaren 8an Seminarixuan (10:00); urtarrilaren 25ean izan zen lehen saioa.



EKAITZ ARANBERRI UDALEKO HEZKUNTZA ZINEGOTZIA

"Bazterrean zeudenak erdigunera ekarriko ditu patio inklusiboak. Guraso elkarte txalotu nahiko nuke; lan handia egiteaz gain, oraingoan dirua ere jarriko dute".



JOSERRA LASA SAN MARTIN ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Oso pozgarria da ikustea patio berria forma hartzen doala. Eskerrak eman behar dizkiogu Udalari laguntzagatik eta guraso elkarteari egin duen lanagatik".



ITZIAR URIZARBARRENA GURASO ELKARTEKO KIDEA

"Asfaltoa eta futbola nagusi ziren patioan ume guztiak jolasteko tokia izango dugu laster, umeen garapenerako egokiak diren materialekin. Pozik gaude".



Martitzenean banatu zituzten ohorezko abonatu-txartelak. JOKIN BEREZIARTUA

Herriko sei kirolarientzat Kirol Zerbitzuko ohorezko abonatu-txartela

Pili Arinek, Eukén Azpeitiak, Maddi Barrocalek, Aitor Erañak, Joxean Iñarrak eta Maria Sanchezek abonua doan izango dute urte osoan; bergararrek kirolean egindakoa saritu nahi izan du Udalak, eta herritarrek eta taldeek egin zituzten proposamenak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Pili Arinek, Eukén Azpeitiak, Maddi Barrocalek, Aitor Erañak, Joxean Iñarrak eta Maria Sanchezek eskuratu dituzte aurten Bergarako Udalak banatu dituen Kirol Zerbitzuko ohorezko abonatu-txartelak. Pozik baina ezustean hartu dute berria. Kirolari horiek urte osorako banakako abonua osoa dohainik izango dute. Hainbat herritarrek kirolaren alde egiten duten edo egin izan duten lana eskertu eta kirol arloan lortutako emaitzak saritu nahi izan du Udalak ekimen horrekin.

Edozein herritarrek eta entitatek aurkeztu ahal izan du proposamena; baita Udalak ere. Udaletik jakinarazi dutenez, sariak emateko orduan kontuan hartu dituzte meritua, eskainitako denbora, inklusibitatea, kirol-aniztasuna, generoa, adina,

kirol-modalitateak eta kirol-egokitua, besteak beste.

Herritarrek, proposamenak egiteaz gain, bozkatu ere egin dute, eta boto emaileen artean hiru hilabeterako doako abonua zozkatu dute. Irabazlea Asier Muñoz izan da.

Saridunak gertutik

Pili Arinek bizitza osoa darama kirola praktikatzeko –esaterako, atletismoa eta boleibola– eta *Begarako atletismoaren historia* liburua idatzi du. Luzaketa taldearen gidaria ere bada, Agorrosinen, duela urte asko-

SARIA EMATEKO ORDUAN, ESKAINITAKO DENBORA, MERITUAK ETA GENEROA BALORATU DITUZTE

tatik. Eukén Azpeitia, berriz, gaztetan pilotan eta futbolean aritu zen, baina gaur egun, padel jokalaria da.

Maddi Barrocalen kasuan, pilotaria da eta hainbat txapelketa irabazi ditu, hala nola Reyes Azkoitia saria 2022an, Bergara Hiria 2018an eta 2021ean eta Plazandreak 2021ean. Aitor Eraña mendian, lasterketetan eta maratoietan nabarmendu da; Pol Poleko presidente izandakoa, Bergara Oinez proiektuaren bultzatzaileetako bat da.

Begarako Shotokan karate taldeko bultzatzaile eta irakaslea da Joxean Iñarra eta Hanka Labanka taldeko patinatzaile ere bada. Azkenik, Maria Sanchez atleta: Hankaluze trail taldeko kidea da eta hirugarren postuan geratu zen joan den urtean ekainean egin zen Marimurumendi lasterketan.



PILI ARIN
ATLETISMOA

"Oso pozik eta sorpresaz hartu dut. Eskerrak eman besterik ez daukat; hainbat urtean ibili naiz luzaketa talde bat bideratzen, doan. Suposatzen dut Udalak horregatik eskerrak eman nahi dizkidala. Egunero joaten naiz kiroldegira eta urte osoko doakotasun hori aprobetxatuko dut".



MADDI BARROCAL
PILOTARIA

"Ezustean hartu nuen berria. Telefonoz esan zidatenean saria jasoko nuela, sorpresa hartu nuen. Pozik nago eta eskerrak eman nahi dizkiot Udalari. Oso gustura nabil kantxetan. Bergaran pilotari gutxi gaude nesketan, baina bultzada handia ari da hartzen".



JOXEAN IÑARRA
SHOTOKAN

"Ez nuen espero saria jasotzea; sekulako sorpresa izan da eta pozik nago. Orain arteko lanari aitortza egiteko modu bat da. Benetan eskertzen dut. Shotokan taldea bost lagun artean sortu genuen eta orain sei monitore dauzkagu. Espero dut etorkizuna izatea".



EUKÉN AZPEITIA PADELA,
FUTBOLA ETA PILOTA

"Berria jaso nuenean, harritu egin nintzen, baina pozik hartu nuen. Ekimen hau zabaldu zutela eta nire izena eman zutela jakin nuenean, poztu egin nintzen. Plazera da hautatua izatea. Halaber, ona da horrelako ekimenak antolatzea herrian kirola sustatzeko".



AITOR ERAÑA
POL-POL

"Sorpresaz hartu nuen, baina, buelta emanda, pozik nago eta eskertza egin nahi diot nire maisu izan zen Pello Garitanori. Hark Bergaran borondatez egindako guztia eta hura beti hartu izan ditut eredutzat. Batzuk ez gara haren mailara heltzen, baina hor jarraitzen dugu".



MARIA SANCHEZ
ATLETA

"Pozik hartu dut saria; ez nuen espero. Ohore handia da aitortza hau. Niretzat oso garrantzitsua da kirola; ez dut nire bizitza kirola egin barik ikusten. Mentalki ere ondo etortzen zait. Korrika kalean egiten dut, baina, noizean behin, gimnasioan, bizikletan eta igerian aritzen naiz".

Xaxau: indarberrituta, 15. urteurrena ospatuko du

Bergarako Xaxau jai herrikoien konpartsak 15 urte beteko ditu aurten eta hori ospatzeko ekitaldiak antolatuko dituzte urte osoan zehar; lehenengoa gaur 22:00etan izango da: Aiert eta DJ Argi eta Txo arduratuko dira kartzela zaharra girotzeaz

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
2023a urte berezia izango da Xaxau jai herrikoien konpartsarendako; izan ere, 15 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, urteurrenaren berri festa giroan emango du gaur gauean, hamarretan hasita, kartzela zaharrean. Ekitaldi horretan urteurrena eta datozen ekitaldiak aurkeztuko ditu eta taldearen sorrera gogora ekarriko du. Ondoren, festan murgildu eta musika doinuek girotuko dute gaztetxea: lehendabizi, Danbakan publikoaren saria irabazi zuen Aiert arituko da, eta ondoren, DJ Argi eta Txo. Tonbola eta zozketak ere izango dira gauean zehar. Sarrera hiru euro da.

Urteurrena ospatzeko urtean zehar zenbait ekitaldi egingo dituztela aurreratu dute konpartsako kideek. Pandemiaren kolpea ere jasan du konpartsak, min handia eginez, eta, horrenbestez, indarberrituta itzuli nahi du, herriaren babes eta laguntza gehiagorekin. Andrea Gonzalez da kideetako bat, eta, azaldu duenez, "oraingoz", film-labur dokumentala egitekotan dira eta hainbat herritarren testigantzak eta argazkiak jaso nahi dituzte ikus-entzuzekoan. Ondoren, publiko zabalago bati begira, argazki erakusketa egitea ere pentsatuta daukate, Xaxauren hastapenetatik gaur arteko argazkiak jaso baitituzte.

Etokizunarekin pentsatzen

Ekimenez aurrera jarraituko dute, eta, horregatik, otsailaren 4an bilera irekia egingo dute, goizeko hamaiketan, Ehunduren bulegoan, aurtengo Pentekoste jaiak antolatzen hasteko. Hauek dira Xaxauk sorreran finkatu zituen konpartsaren balioak: partaidetza, parekidetasuna, euskara, auzolana, autogestioa, jasangarritasuna eta irudimena eta sormena. Zerrendako balioe-



Andoni Etxezarreta eta Andrea Gonzalez, Xaxauko kideak, Oxirondon. J.B.

XAXAUK ADIERAZI DU ETORKIZUNA BERMATZEKO KIDE ETA IDEIA BERRIAK BEHARKO DITUELA

tako bat da partaidetza eta Gonzalezek nabarmendu du beti dituztela ateak zabalik jende eta ideia berriendako: "Azkenean, uste dugu gure artean lagunak garen arren, kanpotik datozen ideia eta pertsona oro direla ongiatorriak, beti behar delako laguntza egunerokotasuneko jardunean erreta ez bukatzeko".

2022ko urrian elkartu ziren gaur egungo kideak lehengoekin, besteak beste, konpartsaren balioen transmisioa bermatzeko. Andoni Etxezarreta da konpartsako beste kideetako bat; haren esanetan, jende kopuru aldetik taldea "ahul" zegoela ikusi zuten eta pentsatu zuten une ona zela Xaxauren sorkuntzan eta urte hauetan guztietan lanean aritu diren herritarrekin bilera egiteko: "Nondik gatozen eta nora goazen zehazteko helburuarekin elkartu ginen aste-

buru batez. Jendearen arteko harremana sendotzeko aukera paregabea egon zen". Argi daukate antolatzen dituzten ekin-tzetan parte-hartze handia egoten dela eta hori "positibotzat" hartzen dute: "Baina barneko nukleoa oso txikia dela uste dugu eta horrek indar galera dakar". Horregatik, Xaxauk etorkizuna bermatuta izan dezan konpartsak kide eta ideia berriak beharko dituztela azpimarratu dute eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete.

Festetara begira

Joan den urtean, Oxirondon jarri behar izan zuten txosnagunea, Zubieta kaleko obrak zirela eta. Aurten, Masterreka berritzeko lanetan dabilta eta oraindik zehaztu gabe dago Pentekosteetan non jarriko duten. Hala ere, gustura agertu dira kideak Oxirondon mantentzearekin, lekua zabalagoa delako, publiko ezberdina etortzen delako, familien parte-hartze handiagoa ikusten delako eta, musika entzuteaz gain, lagunekin berbetan jarraitu daitekeelako, "bigarren plano batetik, pixka bat atzerago jarrita".

San Paulo eta San Blas jaiak datozen bi asteburuetan

Musika, jolasak, meza eta txapelketak izango dira Ubera eta Buruñao auzoetako jaien barruan

I.A.A. BERGARA

Aurreko bi egunetan salda eta txistorra eskaini ostean, gaur 20:30ean emango zaie hasiera Ubera auzoko San Paulo jaiak, pintxo-potearekin, eta ondoren, 21:00etan, auzo-afaria egingo dute Jaolatza elkartean. Zapatuan jarraituko du festak eta 11:30etik 16:00ak arte jolasez eta puzgarriez gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiek. Eguerdian, salda eta txorizoa banatuko dituzte eta ordu batean lehiaketen txanda izango da, tarta eta tortilla lehiaketetan parte hartu ahal izango baita. Ordubete geroago, 14:00etan, tortilla lehiaketako sari-banaketa egingo dute; eta ondoren, auzo-bazkaria.

Jaien azken eguna urtarrilaren 29a izango da, domeka, eta Bergarako txistularien dianak alaituko du auzoa, goizeko hamarretatik aurrera. Hamaiketan meza egongo da eta eguerdian salda eta txistorra banatuko dute. Festei amaiera emateko, Moises Azpiazu dantza-taldeak emanaldia egingo du.

Sanblasak Buruñao

Otsailaren 3tik 5era, berriz, San Blas jaiak ospatuko dira Buruñao

auzoan. San Blas egunean, egubakoitza, etxafuegoa jaurtiko dute, 08:00etan, eta hamaiketan izango den meza nagusian egingo dute opil-bedeinkapena. Ondoren, nahi duen orok salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango du auzoko elkartean.

Zapatuan egingo dute urteroko Mus Txapelketa. 33. San Blas saria arratsaldeko lauretan hasiko da eta zortzi erregetara jokatu dute. Izen-ematea egunean bertan zabalduko dute, 15:30ean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Lau sari egongo dira: bikote irabazleak garaikurra eta inskripzioaren %50 eskuratuko ditu; bigarrenak eta hirugarrenak, inskripzioaren %30 eta %20, hurrenez hurren; eta laugarrenak, sari berezia. Eguna auzo-afariarekin amaituko dute.

Domekan, San Blas Txiki eta Santa Ageda eguna, 08:00etan etxafuegoa botako dute eta 11:00tan meza izango da. Eguerdian Moises Azpiazu dantza-taldea arituko da eta haurretako kukainak izango dira. 19:00etan, aspaldiko usadioari eutsiz, San Blas ermitako ermandadeko kideek bilkura egingo dute.

'Bretxa' musikalaren beste emanaldi bat: martxoaren 5ean

Begarako Antzerki Musikala elkarrekin martxoaren 4an eskainiko duen *Bretxa* musikalaren emanaldirako sarrera guztiak agortu dira, eta martxoaren 5ean beste emanaldi bat egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek, 18:30ean; hori ere, Udal Pilotalekuan; izan ere, "jende asko geratu da sarrera eskuratu ezinik" eta, hain zuzen ere, hori izan da beste emanaldi bat egiteko arrazoia.

Sarrerak dagoeneko salgai daude www.seminarixoa.eus webgunean. Tribunako eta harmailetako lehen ilarako sarrerak 25 euroren truke eskuratu daitezke; gainontzekoek, aldiz, 20 euro balio dute.

Harria taldearen disko aurkezpenerako sarrerak salgai

Harria taldeak diskoa aurkeztuko du otsailaren 10ean, arratsaldeko zortzietan, Seminari-xoan, eta sarrerak dagoeneko salgai daude, 8 eurotan, www.seminarixoa.eus webgunean. Danbakako epaimahaikide izen den Aitor Aldanondo bergararra da taldearen sortzaile eta gidari, eta hamabi kantu batzen ditu lehenengo lan horrek. Haren esanetan, diskoak "asko du barrura begiratzen, sufritzen, lanketatik, lorpenetatik zein garapen eta moldaketa aberastetatik". Gille Sanz, Ekaitz Aranbarri eta Maitane Azkarate ditu taldekide. Amua dendan eta Aldoka Maldoka, Popis eta Arrano tabernetan dago salgai.

Gaur, Gazte Asanbladaren aurkezpen-ekitaldia

Urteetako etenaren ostean, Gazte Asanblada izango da atzera ere Elgetan. 18-26 urte arteko hamalau bat gaztek osatzen dute, oraingoaz, eta kontzertua antolatu dute herritarren aurreko aurkezpena egiteko. 20:00etan da hitzordua, antzokian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Bost bat urteko etenaren ostean, Gazte Asanblada izango da atzera ere Elgetan. Iaz hasi zen herriko gazte talde bat ideiarri bueltak ematen. "Ikusten genuen herrian eremu oso politak daudela gauzak egiteko, baina ez zegoela ezer gazteriarendako. Zerbait eraikitzen hasteko gogoia genuen eta Gazte Asanblada berriz eratzeko eta ekitaldi batzuk antolatzen hasteko ideia forma hartzen joan zen", azaldu dute Gazte Asanbladako kide Ana Mansok eta Unai Andresek.

Biak izan ziren aurreko Gazte Asanbladako kide. "Parte hartu genuen, baina azken urteak izan ziren, eta aurrekoek uztea erabaki zutenean gutxi eta oso gazteak ginen; 16-17 bat urte. Ez genuen esperientziarik eta ez genuen gure burua gai ikusi Asanbladarekin jarraitzeko".

Hamalau bat lagun dira Asanblada berriari; 18-26 urte arteko elgetarrak. "Adin tarte nahiko zabala da eta nahiko genuke jende gehiago ere gerturatzea, baina oraintxe sortu den taldea izateko ez dago gaizki. Gogoz gaude eta inizatiba dago taldean", esan du Andresek.

Jakin-mina dute herritarrek, eta, batez ere, herriko gainerako gazteek zer-nolako erantzuna



Elgetako Gazte Asanbladako Ana Manso eta Unai Andres. L.Z.L.

emango dioten ekimenari, baina gogotsu daudela azaldu dute: "Ilusio handiarekin eta lanerako prest dago taldea".

Kontzertua aurkezpenarako

Kontzertua antolatu dute, herritarren artean Gazte Asanbladaren berri emateko. "Asanbladako kide Unai Cantabranak emango dio hasiera emanaldia, 20:00etan. Jarraian, Arrasateko Trumans taldea eta Bergarako Olatz Ugarte arituko dira, eta herriko DJ Txas-ekin luzatuko dugu gaua", azaldu dute.

Sarrera doan izango da, barra zabalik egongo da eta pintxoak eskainiko dituzte. "Gure lehenengo ekintza izango da. Gabon aurretik hasi ginen antolaketan. Kontzertua hasi aurretik, Asanbladako kideek geure burua aurkeztuko dugu. Oholtza gainera igoko gara eta aurkezpen ekitaldirako prestatu dugun idatzi bat irakurriko dugu denen artean". Aurreratu dutenez, hasierako helburua da maiztasun bateko programazioa egitea. "Ikasten joango gara eta, posibleko balitz, nahiko geni-



Gaztetxean egindako azken ekintzetako bat. GOIENA

Bost bat urteko etena

Aurreko Gazte Asanbladak 2018ko martxoaren 17an egin zuen agurreko ekitaldia. Elgetako gaztetxearen 22. urteurren festa ere izan zen. Kide gutxi ziren eta ez zuten erreleborik ikusten. 22 urteko ibilbidearen amaiera izan zen. 1995eko urrian egin zuen Asanbladak lehenengo kontzertua. Frontoian izan zen. Gaztetxearen okupazioa 1996ko apirilaren 22an egin zen eta belaunaldi bat baino gehiago pasa ziren Asanbladatik bi hamarkada haietan. Kontzertu asko antolatu zituzten, eta, horrekin batera, diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, mahai-futbol, partxis eta mus txapelketak, irteerak... Nork ez ditu gogoan Asentzio Eguna, Sagardo Eguna, Umeen Eguna, Urteurreneko Jaiak, Udaberri Jaiak...? Herriko gazteak gogotsu daude berriz, eta ekiteko prest. Ez da nolana hiko albistea.

tuzke berreskuratu aurreko Asanbladak egiten zituen ekintzak: Sagardo Eguna, kontzertuak, hitzaldiak... Gazte Eguna egitea ere gustatuko litzaiguke".

Gaztetxea berriz zabaltzeko ideia ere buruan dute. "Asko gustatuko litzaiguke, baina epe luzerako helburua da. Ikusi egin beharko da, gainera, zein egoratan dagoen, guk ze indar dugun... Oraingoaz, ez dugu funts ekonomikorik ez eta esperientziarik eta gauza asko ditugu ikasteko. Udala, oraingoaz, laguntzeko prest agertu da, eta

ikusiko dugu noraino heltzen garen". Herriko gainerako eragileei ere egin diete dei. "Antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzea gustatuko litzaiguke. Nahiko genuke jakitea hemen gaudela eta laguntza ere beharko dugula".

KONTZERTUA ESPALOAIA KAFE ANTZOKIAN IZANGO DA ETA 20:00ETAN HASIKO DA

Dantza tailerra domekan

Herrixa Dantzan saioa izango da domekan, hilak 29. Patxi Monterok iragarri moduan, urtarileko eta otsailako saioak ez dira ohiko dantzaldiak izango; *Euskal Herriko plazetarako dantza berriak* proiektuko dantzak lantzeko dantza tailer irekiak izango dira. Hitzordua betiko orduan izango da, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian.



IMANOL SORIANO

'Escape room' saioa egingo dute bihar gaztelekuan

Askotariko abileziak eta trebeziak erakutsi beharko dituzte izena eman duten hamasei gazteek jokoak planteatuko dituen erronkak gainditzeko. *Escape room* saioa 16:00etatik 18:00etara egingo dute eta Nerea Villa hezitzaileak azaldu du gaztelekutik abiatuko direla. Parte-hartzaile guztiak seigarren mailako neska-mutikoak dira.

OHARRAK

Ipuinen ordua gaur

Ipuin kontalari taldearen eskutik hiru ipuin kontalari saio izango dira gaur, liburutegian, 17:30ean hasita.

Hitez Pitz egunean

Irakurketa taldea 19.00etan elkartuko da liburutegian. Proposatutako irakurketa da Bertol Arrietaren *Gezurra berdadera*. Informazio gehiago, liburutegian.

Martxan dira Jauregiko tunela konpontzeko lanak

200.550,75 euroko aurrekontua zehaztuta, Egurki enpresari esleitu dizkio lur-jausiak eragindako ondorioak konpontzeko lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lau hilabeteko epea dute horretarako, eta tunelaren bi sarreretan harri-lubetak jarriko dituzte

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Luze jo du itxaronaldiak, baina, hiru urteren ostean, Jauregiko tunela konpontzeko lanak hasi dituzte. Egurki enpresako langileak dabilta astelehena ezker zeregin horretan, eta asmoa da tuneleko sarreretak batean pilatutako lurra jasotzeaz gain, ingurua txukuntzea eta gerta daitezkeen lur mugimenduak eragozteak.

Hain justu, 2019ko abenduaren 13an gertatu zen lur-jausia trenbide zaharreko gune horretan, eta itxita egon da ordutik Jauregi baserriaren barrenean den tunela. Hainbat izan dira herri-tarrek eginiko eskaerak gunea txukuntzeko, askok erabiltzen baitute egunerokoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko Sailarena da lan horiek egitearen ardura eta hiru urteotan behin baino gehiagotan hartu du konponketak egiteko konpromisoa; hala ere, azkenean, 2022ko abenduaren 2an esleitu zitzaion obra enpresa bati, iazko urtarrilerako egin beharreko lanen berri emana bazuen ere.

200.550,75 euro

Behin obrak esleituta, Gipuzkoako Diputazioak jakinarazi duenez, iazko abenduaren 23an formalizatu zuten kontratua Egurki enpresarekin eta 200.550,75 euroko aurrekontua zehaztu zuten. Hala, aurreikuspenen arabera, espero dute lanak lau hilabeteko epean amaitzea, bertan jardunean dabilzan langileek aitortu duten arren eguraldiak baldintzatu dezakeela obra eta egunerokoa.

Dena den, hasiak dira lanak egiten. Ingeniaritza azterketak egin dituzte aurrez, zer egin zehazteko, eta tartean aritu dira geologoak ere lurrraren nolakotasuna eta joera aztertzen. Bada, hortik ateratako ondo-



2019ko abenduaren 13an gertatu zen lur-jausia Jauregiko tunelean. A.R.K.



Tunelaren bi aldeetan euste harri-lubetak jarriko dituzte, luiziak egonkortzeko. A.R.K.

rioekin zehaztu dituzte oraingo zereginak.

Lur-jausian pilatuta dagoen lurra erretiratzea izango da lehen lanetako bat, eta ingurua txukundu egingo dute, kaltetuta dagoen tuneleko sarrera ahalik eta baldintza seguruenetan egiteko; besteak beste, goitik etor daitezkeen ura desbideratzea izango da proiektuetako bat. Horrez gain, tuneleko bi ahoetako alboetan harri-lubetak jarriko dituzte lurrari eusteko, mendebaldeko eta ekialdeko luizietan bide berdearen egon-

OBRAREN ASMO NAGUSIENETAKO BAT LURRARI EUSTEA DA, LUZIETAN BIDEA EGONKORRA IZATEA

kortasuna ziurtatzeko, lur mugikor samarrak baitira.

Beraz, lan horiek bukatuta, erabilgarri izango da berriro ere Galardi baseritik (Antzuola) Bergararainoko trenbidea, mozketarik gabe.

Beste lur-jausi bat

Herrian, ordea, izan dira beste lur-jausi batzuk; azkena, joan den egunean, hilaren 19an.

Lurra erori zen Manixan, eta, ondorioz, apurtu egin zen Aitzagatik herrira ura daraman hodia. Ur Kontsorzioak egubakoitzean egin zituen konponketak, ur-mozketak eraginda herrian, baina berriro puskatu zen astelehenean.

Hala, matxura konpondu arren, behin-behinekoa da, Aitzagatik Ondarrerainoko hodi osoa aldatu beharko delako.



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Ate joka

Udala ei da herritarren erakunde gertuena, baina ez dirudi. Badatoz udal eta foru hauteskundeak. Hori dela eta, badakit, udal hauteskundeak helburu, partidu politikoetako eragileak ate joka ari direla herrian udal ordezkarien bila.

Ez da, egiari zor, une gozoena izaten momentu hau *bezero* bila dabilzantentzat; izan ere, Udalean parte hartzeko gonbitaren aurrean ezezkoak dira jaun eta jabe. Halakoetan, "zer dute, ba, udal ordezkarien proposamenek hain desatseginak izateko?" da burura datorkidan galdera. Hori bai, jendeak ezezkoak argudiatzeko ematen dituen erantzunekin liburua ere idatzi liteke.

Kontraesanetan bagabiltzala ere ematen du, herrigintza aho betez darabilgun eta horrenbeste egiteko dagoen garaian. Hementxe dugu aukera herriaren alde lan egiteko. Aprobetxatu. Animatu.

Eta, bide batez, ez nuke eskerrak emateke bukatu nahi herriaren alde lau urtean zehar lanean ibili diren udal (herri) ordezkari guztiei. Eskerrik asko!

Kontzertu akustikoa eta bertso saioa gaur gaztetxean

19:00etan zabalduko dute gaztetxea eta saioa
20:30ean hasiko da; ostean, Tabu taldea arituko da

A.R.K. ANTZUOLA

Beste aldi batzuetan bezala, gaur ere kulturaz gozatzeko aukera izango da Antzuolako gaztetxean, bertso saioa eta kontzertua antolatatu baitituzte iluntzetik aurrera.

Mikel Iturriotz, Garazi Navarro eta Asier Galarza bertsolariak arituko dira bertsoetan, 20:30ean hasita, gaztetxean bertan, baina 19:00etan irekiko dituzte ateak, lehenago bertaratu nahi duenarentzat.

Bertsolariak amaitzean, berriz, kontzertuak hartuko du lekukoa.

Tabu bikote akustiko arrasatearra igoko da oholtza gainera.

Lapurretaren berri

Horrez gain, Antzuolako Gazte Asanbladako kideek salatu dute lapurreta jasan zutela joan den astean, eta ez dela lehen aldia izan, gainera. Barruko gauza batzuk ostu dituzte, eta garrantzitsutzat jo dute herri jakinaren gainean jartzea. "Gure borondate guztiarekin gabiltza lanean, eta horrelako jarduera desegokiak motibazioa galtzera besterik ez gaituzte eramaten".

Bihar jakingo da nor igaroko den Mus Txapelketako finalera

Bihar jokatu da Antzuolako Mus Txapelketako hirugarren kanporaketa, Arin tabernan, 16:30ean, eta orduan jakingo da nortzuk diren finalera igaroko diren bikoteak. Gaur-gaurkoz, Miren Iturbek eta Jesus Kortabarriak, Mikel Gabilondok eta Asier Unamunok eta Andoni Rodriguezek eta Jesus Moraisiek eskuratu dute txartela.

Eski alpinoa egiteko irteera antolatu du Arrola elkarteak

Mendizale elkarteak antolatuta, Aretteko (Frantzia) estaziora egingo dute irteera, eta Belaguako aterpean igaroko dute gaua. Zapatuan aterako dira, 05:30ean. 80 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 90 euro, berriz, federatu gabeek. *labur.eus/ArrolaEskia2023* helbidean eman daiteke izena. Plazak mugatuak dira.



Itziar Perez psikologoa eta yoga irakaslea, Antzuolan. Gorputza Da Bidea elkarte kidea ere bada. A.R.K.

"Erretiro honekin gure nahia da osasunaren burujabetza lantzea"

ITZIAR PEREZ GORPUTZA DA BIDEA ELKARTEKO KIDEA

Erretiroa antolatu dute, yoga, biodantza eta bioenergetika ardatzat hartuta, Laskurain baserrian. Helburu dute parte hartzaileek egunerokorako tresnak eskuratzea

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Norbere barrura begiratzeko espazio bat sortzeko asmoz, erretiroa antolatu du Gorputza Da Bidea elkarteak Antzuolan. Hiru kidek osatzen dute taldea eta tartean da Itziar Perez (Antzuola, 1989) herrikidea. Psikologoa eta yoga irakaslea da, eskolak ematen ditu, eta erretiroaren nondik norakoez hitz egin du. Otsailaren 3tik 5era izango da, Laskurain baserrian.

Taldeak erretiro bat antolatu du lehen aldiz; zer beharretatik?

Bagenuen nahi bat. Yoga saioak eta, askotan, oso motzak dira eta sentitzen genuen gorputzak eskatzen zigula espazio luzeagoak egitea. Asteburu batek murgiltze sententzia eman dezake, egoteko beste modu bat esploratzeko bidea, eta aukera polita iruditu zitzaigun. Gainera, horrelako

espazioak euskaraz sortu nahi ditugu.

Hiru adar nagusi izango ditu: yoga, biodantza eta bioenergetika.

Bai. Kontuan izanda otsailean izango dela eta negu bete-betean gaudela, barrura begiratzeko izango da helburua, lasaitasunerako espazio bat sortzea, baita autoezagutzarako ere; exijentziarik gabeko espazio bat izatea gura dugu. Eta horretarako zehaztu ditugu hiru zutabe horiek.

Zer du bakoitzak?

Yogako saioetan bilatuko dena da espazio gehiago egitea gor-

"ASTE BURU BATEK MURGILTZE SENTSazioA DAKAR, EGOTEKO BESTE MODU BAT ESPLORATZEA"

putzean, arnasa hartzeko edo modu askeagoan mugitzeko aukerak sustatzea eta areagotzea. Biodantzari dagokionez, musika darabilen sistema bat da, mugimenduari eta taldearekin bat; hor da harremana edo lotura. Eta horren asmoa da bakoitzak dakarrenarekin konektatu ahal izatea, bizi duenarekin.

Eta bioenergetikak?

Espazio horietan, gehienbat, gure giharretan eta gorputzaren hainbat egituratan egon daitezkeen blokeoak –gure bizi historiagatik eta bizipenengatik– desblokeatzea eta askatzea bilatuko dugu, askotariko ariketak egin da, banaka eta taldeka.

Dena den, diozu horrelako espazioek kontsumotik harago joan beharko luketela.

Sarritan joaten gara horrelako espazioetara kontsumitzera. Ni ere joan izan naiz, halako au-

tera batek zerbait zehatza emango didalakoan. Baina besteek emango didatenaren esperoan egon ordez, gure nahia da osasunaren burujabetza lantzea, erretirotik etxera tresna batzuekin joatea. Noski, egon daitezke bizitzan behar diren espazio batzuk, ez dagoelako jakintzarik-edo, baina, behin erremintak jasotakoan, ideia da norberak horiek egunerokotasunean txertatzea. Alegia, ez egotea etengabe horrelako espazioak kontsumitzen, ardurak kanpoan jartzea bilakatu baitaiteke. Ez dadila bihurtu ongizatearen kontsumo.

Gaur egun, garrantzitsuak al dira tresna horiek?

Bai. Erretiroak presentzia batzen du. Hemen eta orain. Gure bizitzetan ez gaudelako hemen eta orain. Baina ez guk nahi ez dugulako. Gorputzak nahi duen dena hori da, baina etengabe gaude beste espazio batzuetan, pasatutakoarekin arduratuta edo pasatuko denarekin. Izan ere, pandemiak mahai gainean jarri du osasun mentalaren egoera, baina lehengotik zegoen hau guztia mahai gaineratuta. Jendeak deskantsua, lasaitasuna eta ondo pasatzea behar du, plazeretik. Gorputzaren konexioa ez dadila izan soilik gaixorik gaudenean, mina dugunean edo ezinegona, baizik eta beste modu batzuk topatzea.

Espazio segurua izan dadin saiakera ere egingo duzue, ezta?

Tira, guk uste dugu horrelako gauzetara datorren jendea ja badatorrela pentsamendu horrekin. Zer da espazio segurua bat, ezta? Bakoitza eroso sentitzea eta aukera edukitzea norbera izateko espazio horretan, itxurari egin barik.

Laskurain baserriak, gainera, espazio goxoa izan dadin ere lagunduko du, ezta?

Lekua oso goxoa da. Aretu handi bat du eta aukera ematen du mugimendurako eta gauza ezberdinak egiteko. Lasaitasuna dago. Isiltasuna dago. Eta, gainera, ez dugu uste taldea bera oso handia izango denik.

"PRESENTZIA BATZEN DU ERRETIROAK. HEMEN ETA ORAIN. GURE BIZITZETAN EZ GAUDE HORRELA"

Hiru eguneko erretiroa antolatu dute

Ana Vallesek, Eider Zuriarrainek eta Itziar Perezek osatzen dute Gorputza Da Bidea elkarteak. Otsailaren 3tik 5era bitartean egingo dute erretiroa eta Zuriarrain eta Perez izango dira gidari. Hamar pertsonarentzako lekua dute, eta domekan amaituko da izen-ematea. Horretarako, harremana@gorputzadabidea.eus helbidea jarri dute interesa duenaren eskura.

Egubakoitza, otsailak 3

- Ongietorria.
- Espazioa eta elkar ezagutzea.
- Mugimendua gorputzean
- Afaria.
- Lo aurretiko yoga.

Zapatua, otsailak 4

- Yoga.
- Gosaria.
- Hitza partekatzea.
- Bioenergetika.
- Biodantza.
- Bazkaria eta deskantsua.
- Gorputza erdigunean.
- Bioenergetika.
- Afalostean: ahotsak soltatzeko.

Domeka, otsailak 5

- Yoga.
- Gosaria.
- Hitza partekatzea.
- Bioenergetika.
- Biodantzaren ospakizuna.
- Bazkaria eta agurra.



Laskurain baserria.



San Lorentzoko aldapetako bat, asfaltatze-lanak amaitu ondoren. O.E.

Asfaltatze-lan guztiak ez dituzte oraindik bukatu

Aita Madina kalearen zati bat, kiroldegi aurreko errepidea eta musika eskolaren inguruak asfaltatzen hasiko dira datozen egunetan, besteak beste; eta Errekalden hurrengo egunetan hasiko dira hamar aparkaleku berri egiten

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko herriguneko bide-sarea konpontzeko eta hobetzeko lanak egiteko lizitatutako proiektuak ari dira gauzatzen eta azken egun hauetan asfaltatze lanak egiten ibili dira langileak herriko kale batean edo bestean. Datozen egunetan lan horiekin jarraituko dute. Eta horiekin batera, herriko landa-guneko auzo-bideetako hainbat hobekuntza egitea ere aurreikusita dute.

Asfaltatzen jarraituko dute

Asfaltatze-lanen barruan, San Lorentzo auzoko aldapa bietan egin dituzte, esaterako. Kaletik San Lorentzorako noranzkoan lehen semaforoan ezkerretara hartutako aldapa asfaltatu zuten lehenengo, errepide nagusitik Errekaldera doan tunel parerainoko tartea, hain zuzen ere, eta Larraña auzotik beherakoa gero. Arautzeko urbanizazio- eta asfaltatze-lanak eta Lezesarriko bidegorrikoak ere bukatu dituzte. Datozen egunetan egingo

dituztenen artean daude, besteak beste: Aita Madina kaleko zati bat, kiroldegi aurreko biribilgunea eta Bidebarrietarako errepide zatia, Moiuia kalearen hasiera eta musika eskolaren inguruak.

Berezaio auzorantz

Arantzazuko Ama kalean ere egingo dituzte lanak eta, horiei jarraipena emanaz, Natra eta Azkoagain tartea eta Berezaio auzorako sarbidea ere itxuratu dute. Espaloia konpondu eta bidea asfaltatzea da asmoa. Hain zuzen ere, auzo horretarako sarbide horren segurtasuna bermatzeko lanak egingo dira gune horretan. 2023ko udal aurrekontuetan onartutako puntuetako

ERREKALDEN SEMAFORO BATEK ADIERAZIKO DU APARKATZEKO TOKIA DAGOEN EDO EZ

bat izan da; lan horiek egiteko aurreproiekturako dirua jasota dago.

Aparkaleku gehiago Errekalden

Martzelino Zelaia kalean irisgarritasun-lanak egiten hasiko dira laster; maila berean egingo dira ibilgailuen eta oinezkoen bideak. Errekalden, berriz, aparkaleku berriak egiten hasiko dira datozen egunetan. Hamar izango dira, guztira, eta 29, 31 eta 33. atarrien atzealdean egingo dituzte. Aparkaleku horiek han instalatutako sistema adimendu bati lotuta egongo dira. Modu horretara, aparkatzeko tokirik dagoen edo ez jakingo du herritarrak eraikinaren kanpoaldean jarriko duten semaforo bati esker. Ugarte Eraikuntzak enpresak egingo ditu lanak eta aurrekontua 85.000 eurokoa da.

Herri barruan zein landa-guneetan egindako eta egiteko dituzten asfaltatze- eta konpontze-lanen aurrekontu osoa 524.000 eurokoa da.

Taberna zerbitzua bakarrik izango du Eltziak astelehenetik

Gehieneko epea domekan amaitzen zaie egungo arduradunei; esleipen berria martxoan egitea da asmoa

O.E.G. OÑATI

Domekan amaitzen zaie gehieneko epea Eltzia taberna duten arduradunei, baina ez dute taberna itxiko. Datozen asteetan ere zabalik egongo da, baina zerbitzu murriztagoa eskainiz; ez du orain arteko sukalde zerbitzurik izango, esaterako. Udalak bideragarritasun-txostena du eskatuta plegua eguneratzeko, eta asmoa da datorren martxoan jartzea martxan esleipen-prozesua.

Tommaso Galatiri eta beste lau lagun esleitu zitzaizkien Eltzia

tabernako ustiapena lau urterako. Eta bete da epea. "Pozik gaude etapa honetan bizitakoarekin. Eltziako erabiltzaileen dako bakarrik izan barik, auzoko edo herriko taberna bat izatea lortu dugula uste dut; hori ikusi dugu bezeroen artean, eta pozgarria izan da guretako. Horrez gain, lana ere sortu dugu", dio Galatik. Domekatik aurrera ere haiek eskainiko dute taberna zerbitzua. Egubakoitz gauean eta zapatu iluntzean DJak eta pintxo bereziak egongo direla ere aurreratutako du.

Adinekoen eguneko arreta zerbitzuaren esleipena, martxan

Martxan da adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua abiarazteko esleipen prozesua; otsailaren 6an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea. Horren bidez, Gizarte Zerbitzuen alorretik, Oñatiko Udalak arreta emango die mendekotasun arriskuan edo mendekotasun arin egoeran dauden adinekoek, aldi batean edo modu iraunkorrean. "Proiektu horrek, gainera, sozializatzeko eta bakardade egoeretan eragiteko espazio bat gura du izan. Hala, Udal Gobernuak dituen beste helburu estrategiko batzuekin egiten du bat", dio Izaro Elorza alkateak. Pake Lekun eta Lagun Lekun kokatuko da zerbitzu hori.

Beste teknikari bat sartu da Udalean, Energia Planerako

Trantsizio energetikoko teknikaria gehitu da Lurralde Antolamenduko udal lantaldera. Eraikin publikoetako energia kontsumoa murrizteko udal eraikinen auditoria energetikoetatik irtendako hobekuntzak garatzea izango da haren helburuetako bat. Amaitzear dagoen kaleko argiteriaren diagnostikotik irtendako LED argiteriaren inbertsio berriak martxan jartzeaz ere arduratuko da. Udalak jakinarazi duenez, hurrengo asteetan jarriko da martxan herritarren etxebizitzaren argindar eta gas fakturak aztertzeako Energia Bulegoa, eta hori abiaraztea izango da beste lanetako bat.

Bisita berezia egingo dute Trautikoekin domekan, Arrikrutzera

Bisita berezia egingo dute domekan Arrikrutz kobarara. Oñatiko Trauti elkarteko eta Montes Solidarios taldeko kideekin batera egingo dute, Joelle motako aulkiak erabilita.

Joan den urtean aukera izan zuten Oñatin aulki horiek probatzeko, Trautiren hamargarren urteurrenaren barruan. Orain, domekarako irteera berezi bat

antolatu dute Montes Solidarioekin eta Lurpean elkarrekin batera. Bi elkarte horiek elkarrekin antolatutako ekimena da eta lehendabizikoa Oñatin egingo badute ere, Arrikrutzen, dagoeneko aurreratutako hurrengo irteera Ekainberri kobarara izango dela. Euskal Herriko zazpi koba daude Lurpean elkarrekin sartuta eta asmoa da denak bisitatzea mugikortasun arazoak dituztenak eramateko aproposak diren Jolette aulkien laguntzarekin.

Lur azpikoak azaleratzen

Inguruko koben katalogazio-lanarekin jarraitu gura du Aloña Mendi Espeleologia Taldeak, eta egindakoak herritarrekin partekatzeko saio gehiago egitea du jasota 2023ko zereginen zerrendan; horrez gain, kide berriak egin gura ditu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urtean zehar egiteko asmoa duen ekintzak zerrendan jasota eta 2022an egindako lanak emandako poztasuna aldean dutela hasi dute urte berria Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kideek.

Elena, Lizartza eta Urzulo

Egindako aurkikuntzen artean dago, esaterako, AMETeko kide Santi Ugarteren esanetan, Arrikrutzeko Elena galeria-sarearena. "Lanak bukatutzat eman ditugu eskalada pare bat egin ondoren. Alde honek hiru kilometro gehiago eman dizkio Arrikrutz-Gesaltza sistemari; lehen, hamabost kilometro zituen. Galeria hori aurkitzea sekulakoa izan da, batez ere, hain ezaguna zen inguru batean, askotan aztertutako koba baten jarraipena delako". Horrek beste harritu du Ugarte Arantzazuko erreka azpikoak: "Urak hartutako leku baten harea eta lokatza kentzen, garbitzen, pasa genituen hiru bat egun, eta, bat-batean, azpian dagoen errekaekin egin genuen topo. Ia sei kilometro koba da, arroila handi bat. Erroitegin sartu, Iturrigorri aldean, eta Sindika azpian atera izan gara, eta jarraipena duela ikusi dugu. Kanpo aldetik beste sarreraren bat topatzen ahalegin-duko gara aurten".

Aurretik lan handia egindako Lizartzako eta Urzuloko espedizioei zein irtenbide eman erabakitzea ere izango da aurten egingo duten beste gauzetako bat. "Bibakak ditugu muntatuta bietan, baina sartu-irtenak ez dira hain errazak. Euria egiten duen sasoiaren ezin gaitezke sartu eta joateko modua dagoenean jendeak egon behar du prest sartzeko. Erabaki beharko dugu bibak horiek kendu edo beste elkarteetakoekin aritu".

Dokumentazioarekin jarraitu

Kobetara joan eta irteera horiekin disfrutatu bakarrik ez, nora joan diren eta zer ikusi duten katalogatu ere egiten dute AMETeko kideek, eta lan horren garrantzia azpimarratu du Ugartek: "Normalean baino denbora gehiago hartzen dugu kobetako bisitetan; argazkiak atera, neurriak hartu... eta horrelakoak ere egiten ditugu. Eta ostean, datu-base informatiko batean sartzen dugu dokumentazio guztia. Egun, Aizkorri mendikateko 1.100 bat kobaren inguruko dokumentazioa dugu ja-

AIZKORRI MENDIKATEKO 1.100 KOKA INGURU DITUZTE KATALOGATUTA; ASKO, OÑATIKOAK

sota. Eta hori lortu dugu taldean inoiz askorik ez izan arren segida izan dugulako. 50 urte baino gehiago ditu AMETek eta urte hauetan guztietan informazioa gorde dute taldekideek. Jarraipena izatea da gura duguna, eta, horregatik, jendeari esan gura diogu taldera hurbiltzeko eta gustatuz gero kide izateko. Garrantzitsua da informazio-metaketa hori egiten jarraitzea". Eta batutako informazio hori zabaldu gura du AMETek; 2023an, esaterako, Degurixa inguruko kobetan hartutako dokumentazioa kaleratuko dute.

Debagoien osora zabalik

Dokumentazio-lan horretan sartzen da, esaterako, bioespeleologia. Kobazuloetan bizi diren izakiak, zomorroak, ere aztertzen dituzte, eta horren

berri EHUko ikertzaileei ematen diete. Hezurak edo tresnak aurkituz gero, berriz, Aldundi-ara deitzen dute, hango adituek azterketa sakonagoak egin dituzaten. Urtaopotoluetan aurkitutako ume baten buru-hezurra, esaterako, Irungo gordailura eramane zuten. Egin beharreko lanen arabera beste elkarte batetako espeleologoak ere batzen zaizkie batzuetan, eta eurek formakuntza espezifikoak jasotzen dituzte urtero; kobetan sokak jartzekoa, adibidez.

Euren lana herritarrekin partekatu gura du AMETek: "Beti lur azpian ibili barik, geu ere azaleratzea". Joan den urtean solasaldi bi egin zituen herritarrekin, eta aurten gehiago egin gurako luke; baita koba garbiketa egunari eustea ere. Eta, asmo horiez gain, taldekide berriak egin gurako lituzke. "Adin guztietako herritarrek egiteko moduko lanak egiten ditugu; batzuk arinak dira, kanpokoak, eta barrukoak beste batzuk, baina bakoitzak ikusten du noraino hel daitekeen. Bailaran ez dago horrelako beste elkarterik eta bailara osora zabalitzen dugu kide izateko gonbidapena", dio Ugartek.

DEBAGOIEN OSORA ZABALDU GURA DUTE AMET-EKO KIDE BERRIAK EGITEKO GONBIDAPENA



O.E.G.

"Kuriositatea bakarrik izan behar da"

SANTI UGARTE MAIZTEGI AMET

Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kide da Santi Ugarte Maiztegi (Oñati, 1961) azken 40 urte baino gehiagotan.

Zer egiten du AMETek? Lur azpian dagoena ikusi, aztertu eta dokumentatu. Informazio asko du pilotuta.

Nola egiten duzue lan?

Hemen ez dago astean bi entrenamendu eta asteburuan partidua. Irteerak lotzen ditugu eta bakoitzak ikusten du joateko moduan dagoen eta zenbateraino lan egin dezakeen. Norberak hartzen dio neurria.

Zer behar da taldekide izateko?

Lur azpian zer dagoen ikusteko interesa, curiositatea, izatea, besterik ez. Elkartean badugu material nahikoa etorri gura dutenendako ere, ez dute ezer erosi behar. Posible da gurekin etortzea eta bertatik bertara ikustea irteeretan zelan ibiltzen garen, nola egiten dugun lan.

Federatuta egotea beharrezkoa da?

Kide izateko, bai. Espeleologian federatu daiteke, baina mendian egotea ere nahikoa da.

Nola jarri daiteke zuekin harremanetan?

Bi bide ditugu: ametespeleo@hotmail.com edo Aloña Mendira deituta: 943 78 08 10.



Elena galerian ateratako argazkia. AMET



Aloña Mendiko eskubaloiko nesken gazte mailako taldea. ALOÑA MENDI

Euskal Ligan arituko dira, hamabi urteren ostean

Aloña Mendiko eskubaloiko kadete eta gazte mailako taldeek datorren urtean Euskal Ligan jokatuko dute; aurten ere heldu dira maila horretako promozioak lehiatzera: kadeteek irabazi egin dute eta gazteek asteburuan dituzte partiduak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloiko kadete eta gazte mailako nesken taldeek datorren urtean Euskal Ligan jokatzeko lortu dute aurten. Gipuzkoako ligan, kategoria bi horietan, puntu gehien lortu edo postu onenean gelditu den elkar-tea da Aloña Mendi, eta talde biak pasa dira datorren urtean Euskal Liga jokatzeko mailara. Duela hamabi urte jaitsi zen maila horretatik maila probintzialera Aloña Mendi. Senior taldeko neskek Euskal Ligan ari dira aurten jokatzeko, eta, denboraldiaren amaierara arte mailari eusten badiote, eskubaloiko nesken hiru kategoriatako talde bana izango da lehen hurrengo urtean Euskal Ligan.

Aurten, promozio fasean biak

Horrez gain, baina, aurten ere Euskal Ligako promozio fasea jokatzeko puntura heldu dira kadeteen zein gazteen taldeak. Kadeteek joan den asteburuan jokatu zuten, Berangon, eta lehe-

nengo sailkatu ziren. "Sekulako partiduak jokatu zituen taldeak. Urdanetaren eta Urdulizen kontrakoa ikusi genituen eta beldurra sartu zitzaigun Urdanetaren jokoa ikusita. Irabazten saiatuko ginela buruan genuela jokatu genuen gero talde horren kontra, eta defentsan sekulako lana egin da, bi golengatik irabaztea lortu genuen. Eta berdin Bergararen kontra jokatu eta defentsan ondo aritzeak eman zigun garai-pena", dio taldeko entrenatzaileetako batek, Alazne Elkorobarrutiak. "Hirugarren urtea da talde honekin entrenatzen naizena eta pozak zorutzen gaude denok lortutakoarekin. Handia da lortutakoa, eta ondo jokatu dugu", gaineratu du.

EGUBAKOITZETIK DOMEKARA BITARTEAN JOKATUKO DU PROMOZIOA GAZTE TALDEAK, ZUBIKOAN

Gazte mailakoek, asteburuan

Gazte mailako taldeak asteburu honetan du promozio fasea. Egubakoitzetik domekara bitartean jokatuko dira partiduak, Zubikoa kiroldegian, eta hiru talde bizkaitar garaitu beharko ditu Aloña Mendik: Ermuko Errotaberri, Urduliz eta Bilboko San Adrian. "Bigarren faserako sailkatzeko hiru partiduak irabazi behar ditugu. Ez da erraza izango, baina saiatuko gara", dio entrenatzaileetako batek, Mikel Agirrek.

Talde horretan ere ondo eza gutzen dute elkar entrenatzaileak eta jokalariek. Kadete mailako talde bera da. Espainiako txapelketa jokatzera heldu ziren kategoria hartan, pandemia garaian.

Asteburuko promozioa Zubikoa jokatu du. Gaur, egubakoitza, 17:00etan jokatu du Aloña Mendik Berango Urdulizen kontra. Zapatuan Errotaberri gainditu beharko du, 18:00etan, eta domekan, 11:45ean, San Adrian.



Mendi sailekoak, urtarrilean egindako irteeran. ALOÑA MENDIREN MENDI SAILA

1.028 bazkide batu ditu aurten Aloña Mendiren mendi sailak

Beste urte batez, mila bazkideko zifra gainditu du Aloña Mendiko mendi sailak; egin dute urteko lehen irteera

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak indartsu eta osasuntsu jarraitzen du, beste urte batez; aurten, 1.028 bazkide izango ditu. Era berean 1.018 pertsona federatu dira mendian Aloña Mendiren bitartez. Horietatik 224 izan dira BTT aukeratu dutenak eta eskian, berriz, 211 izan dira. Azaroan eman zitzaion hasiera kanpainari eta hil bereko 20ra bitartean egin behar izan ziren eskariak.

Urte berrirako planen berri ere eman dute mendi sailetik. Hilabetero mendi irteera bat egingo dute, abuztuan izan ezik. Lehena joan den urtarrilaren 15ean egin zuten. Beasain-Usurbe-Mandubia-Kiskitza-Itsaso itzulua osatu zuten; ondoren, Itsason bazkaldu zuten.

Aurten, gainera, laguntzaile talde berri bat ere sortzen ari dira; lau emakume ari dira horretan, datorren azaroan

mendi hamabostaldia egiteko asmoarekin.

Eski zeharkaldia

Mendi irteerak eta antolatzen ari diren mendi hamabostaldia ez dira izango, ordea, aurten egingo dituzten ekintza bakarrak. Hain zuzen, datorren asteburuan, otsailaren 3tik 5era, eski zeharkaldia egingo dute.

Otsailaren 3an, arratsaldeko seietan, Oñatitik Salardura aterako dira. Hurrengo egunean, Bonaigua-Saborde aterpea-Coth der Lac Glacat-Pic d'Amitges-Saborde ibilbidea osatuko dute. Igandean, berriz, Saborde aterpea-Port de Ratera-Tuc de Ratera-Pic de Crabes-Estany Muniydera-Port de Ratea-Bonaigua bidea egingo dute, eta ondoren, etxera itzuliko dira. Piolet, kranpoi, kutxilla, ARVA, pala eta sonda beharrezkoak direla esan dute mendi sailetik.

Eskola magistral saioak egingo dituzte kiroldegian

Zumba, fitbike, aeropilates eta luzaketa eta erlaxazio *master class* saioak emango dituzte kiroldegian hurrengo asteetan. Bihar hasiko dira, zumba saioarekin, 09:30etik 10:45era bitartean. Saioan parte hartu nahi duenak kiroldegian bertan edo 943 71 63 75 telefono zenbakira deituta eman dezake izena; plazak mugatuak dira.

Otsailean eta martxoan ere izango da non aukeratu. Otsailaren 11n, zapatua, fitbike saioa izango da, 09:30etik 11:00ak arte. Hurrengo ostiralean, berriz, otsailaren 17an, luzaketa eta erlaxazio eskola magistrala egingo dute, arratsaldez, 17:00etatik 18:30era. Azkenik, martxoaren 24an, ostirala, aeropilatesarekin emango zaie amaiera *master class* saioei: 17:00etatik 18:30ak arte. Izena-ematea goian aipatutako tokietan egin beharko da.

'Hondamendia' obra eskainiko dute domekan

Zaldibarko zabortegearen gertaera abiapuntu hartuta, pandemiaren askotariko ertzak erakusten ditu Harkaitz Canok idatzi eta Ximun Fuchsek zuzendutako antzezlanak. Domeka iluntzean egingo dute, Santa Anan, eta sarrerak ohiko tokietan eros daitezke

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Duela hiru urte, 2020ko otsailean, euskal gizartea kolpatu zuen Zaldibarko zabortegeko luiziaren tragedia du abiapuntu Axut eta Artedrama konpainiek elkarlanean egin duten *Hondamendia* obrak. Santa Ana aretoan eskainiko dute etzi, domekan, 19:00etan.

23 pertsonaia

Harkaitz Canok idatzi eta Ximun Fuchsek zuzendutako antzezlanak Zaldibarko zabortegeatik abiatu eta pandemiaren askotariko ertzak ukitzen ditu. 23 pertsonaia, zortzi aktorek antzez-tuta: Ander Lipus, Ane Sagues, Ruth Guimera, Jon Ander Urresti, Maialen Belaustegi, Maite Larburu, Manex Fuchs eta Eneko Gil.

Markinarra da Ander Lipus eta ezagunak zituen Zaldibarko gertaera hartan hil zen pertsonetako bat eta hango beste lan-kide bat, eta gertutik jarraitu zuen gaia. "Tragedia hori da

obraren abiapuntua, baita handik hilabetera etorri zen pandemia globala ere. Gai biak lotu ditugu. Benetan gertatutako tragedia horretatik, zuzentasunez idatzitako eta zuzendutako fikziozko antzezlanak da hau". Taularatzeko ideia izan zutenean, familien onespina behar zutela eta eurekin ere lan egin zutela gaineratu du Lipusek; batez ere, hildako langileetako baten alabarekin. "Hortik abiatu gara, baina fikzionatua da, eta horrek jokoa ematen du beste gai batzuk ukitzeko. Eta obra honetan hori oso agerian ikusten da; esaterako, komunikabideek duten papera asko aipatzen da, baita agintariak hartzen dituzten erabakiak ere. Umoreari ere

egiten diogu lekua, gogorra da bestela. Gauza oso absurdoak ageri dira".

Identifikatuta sentiarazi

Ordubete eta berrogei minutu irauten du eta "erritmo handia" dauka; aktore bakoitzak paper ezberdinak egiten ditu. Zuzeneko dantza eta musika ere baditu; baita ikus-entzunezko erremintak ere. Ikusiko diren irudietako asko aurrez ikusiak izango dituzte askok eta horrek ere eragina sortu gura du. "Ikaragarria da zer erraztasun dugun pasatuko gertaerak ahazteko. Pandemia gogorra izan da; online egiten genuen dena; hori ere islatu gura izan du zuzendariak. Publiko oso identifikatua sentituko da ikustean kontatzen duguna nola kontatzen dugun. Azkenean, zabor asko eraiki dugu. Zaldibarren zaborra zegoen, baina eskuko telefonotik edo medioetatik jasotzen dugun masa hori ere hor dago. Zer pentsatua sortzen dugula esango nuke".

**ZORTZI AKTOREK
EGITEN DITUZTEN 23
PERTSONAIA DAUDE
100 MINUTU IRAUTEN
DUEN OBRAN**



Hondamendia antzezlanaren une bat. ARTEDRAMA

Argazkilaritza ikastaroa emango du Ilunpetan taldeak


Oinarrizko ikastaroa izango da, hilabetez, otsailaren amaieran hasita; dagoeneko eman daiteke izena

O.E.G. OÑATI

Argazkilaritza ikastaroa emango du datorren hilabetean herriko Ilunpetan elkarteak. Oinarrizko ikastaroa izango da eta argazkilaritzako hastapeneko ezagutzak erakutsiko dituzte.

Eltzian izango da

Hilabete inguru iraungo du ikastaroak, otsailean hasita. Hain zuzen ere, otsailaren 28tik martxoaren 23ra bitartean izango da eta eskolak astean birritan emango dituzte: martitzen eta eguenetan. Orduetgia bera izango da egun bietan, 19:00etatik 20:00etara, eta tokia ere bera: Eltziako bigarren solairua. Oinarrizko ezagutza teorikoa erakutsiko dute Eltzian, baina irteera praktikoa ere egingo dute hortik kanpora: martxoaren 11n izango da hori, 09:30etik 12:30era.



Argazki kamerarekin. NEGATIVESPACE

Plazak mugatuak dira eta aurretik eman behar da izena. Dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Hauxe da izena eman zein informazio gehiago behar izanez gero jarri duten telefono-zenbakia: 630 49 11 15. Prezioa 100 euro da.

Rock eta pop doinuak entzungo dira gaur Antixena gaztetxean

Gipuzkoako bi taldek joko dute gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean: Viafara eta Nhil taldeek.

Sei gaztek osatzen dute Aretxabaletako Nhil taldea. 2018an sortua, bi lan kaleratu ditu orain arte: *Aztarnak* 2020an eta *Bizi bagina bezala* 2022an. Popa eta funka da egiten duten musika eta horixe eskainiko dute Oña-

tin egingo duten kontzertuan ere. Viafara rock taldea, berriz, 2019an hasi zen eratzen, Usurbilen. Taldearen izen bera duen diskoa atera zuten joan den urtean; zortzi kantu jaso dituzte lehen diskoan eta zuzenean joko dituzte horiek gaur.

Gaur, egubakoitza, urtarrilak 27, joko dute talde biek Antixena gaztetxean, 22:00etan hasita. Kontzertuetarako sarreraren prezioak hauek dira: hiru euro langabeek eta ikasleek eta bost euro lana dutenek.

Auzoetako jai batzorreek bilera dute eguaztenean

Auzoetako jai batzorreetako kideek eta udal ordezkariak bilera egingo dute. 2023ko egutegia zehaztea izango da landuko duten puntuetako bat. Dirulaguntza-lerroa, eskaeren eta zuriketen epeak, muntaia eta argi hartuneak eta erraldoiak eta txorimaloak izango dituzte hizpide. Otsailaren lein da bilera, 18:30ean, kultura etxean.

Zapatuan da urteko lehen Herrixa Kantuan saioa

Jose de Azpiazu musika eskolako eta Txantxiku ikastolako irakasleekin batera, Herrixa kantuan egitasmo urtarrileko saioa egingo dute zapatuan. Ohikoa duten moduan, plazan abestuko dituzte lehen euskal kantak, 12:30ean, eta, eguraldia lagun, inguruko kaleetara ere joango dira. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Beñat Labaienek (Bergara, 1987) ezohiko Gabonak izan ditu. Etxekoekin lasai egon eta Realarekin orain arte egindako lanaz gozatu beharrean, munduaren beste puntara joan-etorrian ibili da, Japoniako J2 League-n jokatzeko duen Tokushima Vortis taldearekin kontratua sinatu eta etxekoekin hara joateko dena prestatzera. Bergarakoak ezin izan dio Asiatik iritsi zaion eskaintzari ezetz esan, eta, denboraldiaurrean murgilduta, taldearekin egonaldia egiten dagoela hartu du GOIENAREN deia. Gustura dabil Japonian, baina entrenatzaile izateak ez du analista-lanarekin zerikusirik: "Hemen jende asko dago nire kargu eta presio hori sumatzen da".

Azken urteak futbol analista egin dituzu Realean –Asier Garitanoren aginduetara egon zen, eta gero, Imanol Alguacilen esanetara–. Etxeko taldean lanean, emaitzak inoiz baino hobek... Eta, edozelan ere, Japoniara joatea erabaki duzu. Horri gaur egun konfort-gunetik irteera esaten zaio...

Baliteke, baina nik oso garbi daukat entrenatzaile izan gura dudala. Japoniakoa sekulako aukera izan da niretako eta oso erabakigarria izan da Imanolek berak eskaintza onartzeko eman didan bultzada. Sarritan egin izan dugu biok gai honetaz berba; bazekien nire ametsa entrenatzaile izatea dela, eta, alde horretatik, Imanolen beraren eta Olaberren onarpena oso garrantzitsua izan da nik erabaki hau hartu ahal izateko. Eurek erabakia begi onez ikusi izan ez balute, ez nintzen etorriko.

Eta zer moduzkoak izan dira lehenengo asteak?

Lan handikoak. Otsailaren 18an hasiko dugu liga txapelketa, Oita taldearen kontra; hemen ligako denboraldia urte naturalean jokatzeko dute eta dagoeneko bi egonaldi egin ditugu taldearekin. Ez dugu Tokushima ezagutzeko denborarik izan. Udan ez dute etenik egiten; horrenbestez, Gabonak arte ezingo naiz osterara ere Bergarara itzuli.

Zer aurkitu duzu Japonian? Eta klubean?

Japonia oso leku ona da bizi izateko; gustura gaude. Esandako moduan, aste hauetan bi egonaldi egin ditugu, denboraldiaurrean murgilduta gaudelako, eta Tokushiman ez gara askorik egon, ez dugu hiria



Beñat Labaien, Tokushima taldearen entrenamendu bat zuzentzen; denboraldiaurrean murgilduta daude. TOKUSHIMA VORTIS

"Tokushimak asko izango du Imanolen Realetik"

BEÑAT LABAIEN TOKUSHIMA VORTIS TALDEKO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA Real Sociedad klubean analista lanetan lau urte egin eta gero, bergararrak Japoniarako bidea hartu du; izan ere, mailaz igotzeko enkargua eman diote

ezagutzeko tarterik izan. Klubak, berriz, harritu egin nau, onerako. Hemen lan ondo egiteko baliabide guztiak ditugu eskura, instalazio oso onak, sekulako lantaldea dago, komunikazioaz arduratzen den jendea... Lehenengo mailako klub baten egitura dauka Tokushimak.

Aldaketa, zentzu zabalean, baita etxekoendako ere.

Zalantza barik, eta, alde horretatik, zorte galanta daukat. Nire emazteak Madrilen egiten zuen lan eta lanpostu on bat utzi du

nirekin batera Japoniara etortzeko. Alabak urtebete du, eta ez da gauza bera familia barik etortzea edo familiaren babesa izatea. Alde horretatik, ahalegin handia egin dute eta garrantzitsua da eurak gustura daudela ikustea. Zalantza barik, hori da garrantzitsua; izan ere, norbera entrenatzaile lanetan gustura ibili arren etxera iritsita koan familiakoak ondo ez badaude, norbera ere ez dago ondo. **Klubean baduzu gertuko jendea ondoan.**

Bai; izan ere, halakoetan oso garrantzitsua da ondoan konfiantzako jendea izatea. Zaldibarko Aitor Maiztegi prestatzaile fisikoa ere nirekin etorri da [Maiztegi Arrasaten du familia]. Elkarrekin ikasi genuen Madrilen eta beti mantendu izan dugu harremana. Eta *Sisi* ere taldean daukat entrenatzaile laguntzaile lanetan [Sisinio Gonzalez, Albacete, 1986]. *Sisi* bost urtez ibili da Japonian futboleko jokatzeko eta ondo menperatzen du hizkuntza.

Zer eskatu dizute klubeko ardura-dunek?

Kategoriak igo nahi duen talde gaztea da Tokushima. Kluba lehenago ere egon da Japoniako maila gorenean [J1 League deritzona]; bi igoera izan dituzte. 2020an igo ziren azkenekoz, Ricardo Rodriguez entrenatzaile zela, baina, zoritxarrez, hurrengo denboraldian jaitsi egin ziren osterara ere, eta lehenengo mailara bueltatu nahi dute. Edozelan ere, klub lasaia da; alegia, lasaitasunez lan egiten uzten zaituzte. Gauza askotan Realarekin antzekotasun handia du: talde gaztea da, iaztik hona blokea mantendu dute... Gainera, Realarekin klubak sinatu berri duen hitzarmenari esker, hiru urtean Realeko teknikariak hemendik pasako dira Zubietako lan-metodologia erakustera.

Aurkezpen ikusgarria egin zuen klubak [Youtuben duzue ikusgai], eta bertan esan zenuen mailaz igoztea dela helburua, baina ez duzula gai horretaz etengabe berba egiten ibili nahi.

Ez duelako zentzurik. Alegia, taldearen helburu nagusia zein den jakitea ondo dago, baina ezin zara horretaz etengabe berba egiten ibili. Gure eskuetan dagoena eguneroko lana da eta hor jarri behar dugu indarra.

Aurkezpenean, zure jokalariei eskatu zenien ausartak izateko eta zuk proposatzen zenuen lanean ikuspuntu ezberdinen bat baldin bazuten, esateko lasai.

Halaxe da. Japoniarrak langileak dira eta kulturalki oso barneratuta daukate esanekoak izatea. Jokalariek guk nahi ditugun ideiak oso azkar hartzen dituzte, baina berdegunean ausartak izateko eskatzen diet, euren izaera propioa izan dezatela.

Zelakoa da Japoniako futbola?

Teknikoki jokalariko oso onak daude liga honetan. Ondo landutako taldeak dira eta analisiari garrantzi handia ematen diote. Joko aldetik talde oso landuak dira, eta euren artean oso ezberdinak. Horrekin batera, brasildar asko daude liga honetan.

Mailaz igotzeko moduko taldea duzue? Ondo indartu zarete?

Oso pozik nago daukadan taldearekin. 37 jokalaririk ditut nire aginduetara, eta badut non aukeratu. Hemen ez daude harrobiko taldeak; jokalariko guztiak lehenengo taldean egoten dira eta, lesioen beldur izaten dire-

"Prozesu polita izan da, baina gogorra ere bai"

ENEKO BARBERENA MONDRAGON IDAZLEA

Orain dela bi urte jaso zuen (H)ilbeltza bekak lagunduta 'Suak erreko ez balu' nobela beltza argitaratu berri du Arrasateko idazleak; martitzenean aurkeztu zuen, Kulturaten

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

Baztango Udalak, (H)ilbeltza ekimenak eta Txalaparta argitaletxeak elkarlanean abiatutako bosgarren (H)ilbeltza bekaren fruitua eskuragarri dago.

Liburuak eskuetan, ze sentazio duzu?

Alde batetik, hustasun eta barretasun sentazioa, bi urte baino gehiago buruan izan dena plasmaturik ikusita; eta, bestetik, urduritasuna ere bai irakurleek zelan hartuko duzuen, baina, oraingoz, jasotako feedbacka oso positiboa da. Hortaz, pozik.

Misterio liburuak idazterakoan ardurua handia sortzen du hasieratik bukaeraino misterio kutsu horrek irautea; zuk ere hala sentitu duzu?

Egia da nobela beltza edo thriller irakurlea zorrotza izan ohi dela beti; ohituta dago genero horretako maila handiko liburuak irakurtzen, eta, orduan, badago exijentzia puntu bat irakurlearen partetik, baina irakurri dutenek esan didate jakin dudala bukaeraino gordetzen gertatzen dena.

Azkeneko puntua jarri ondoren, askotan irakurri duzu liburuak?

Amaitu ondoren gutxi hartu dut eskuetan, argitaletxeek eta diseinatzaileek sekulako lana egin dute-eta, baina beti dago lagun



Eneko Barberena, Goiena telebistako platoan, argitaratu berri duen liburuarekin. L. Z.

"JASOTAKO EKARPEN EKONOMIKOAZ HARAGO, BULTZADA HANDIA IZAN DA (H)ILBELTZA BEKA"

zitalen bat akatsak aurkitzen dituen eta hori ikusteko baka-rik hartu dut, bestela ez naiz nire obrak irakurtzea asko gustatzen zaion idazlea. Urte batzuk pasatu arte, seguru aski, ez dut gehiago irakurriko.

(H)ilbeltza bekaren laguntza izan duzu; eskertzekoa?

Bai; bultzada bat da. Izan duzun ideia hori balekoa dela adierazten dizu, batetik, ekarpen ekonomikoa ere hor dago, eta, hirugarrenik, argitaratzeaz gain, promozioan ere igarri dut leku gehiagotik deitzen didatela, (H)ilbeltza elkarteak lanak txukun egiten dituztelako.

Zelako bi urte izan dira?

Hasieran, sukar batek jota bezala idazten nuen; gero, konturatu nintzen galduta nengoela laino artean, eta bidea topatzea

izan da hor; banituen korapilo batzuk: zelan karakterizatu pertsonaiak, zelan girotu espazio eta izaera aldetik... ez nuelako topikoetan jausi gura. Prozesu polita, gogorra eta nekagarria izan da; gertuko laguntza bari-ekin ezin izango nuen egin.

Aezkoan kokatu duzu istorioa eta mendian izandako gertakari bat da abiapuntua.

Mendiko suteen inguruan landa-eremuan kokatzeko istorio bat nahi nuen, baina ez piromano batek egin ahal dituen suteei buruzkoa, baizik eta, batez ere, paisaia eta larrea mantentzeko abeltzainek pizten dituzten suteen inguruan. Arrasatek ez du landa-eremu nahikorik herrian bertan girotu ahal izateko. Aezkoa familia kontuengatik apur bat ezagutzen dut eta aproposa iruditu zitzaidan Ainhoa Sanz peritu arrasatearra protagonista eta bere ikerketa kokatzeko.

Nor da Ainhoa eta zer egingo du?

Ikertzaile-lanak egitea egokitu-ko zaion aseguru-etxe bateko peritua da. Diru asko galduko duen beldurra du aseguru-etxeak eta suaren jatorria eta bestelakoak ikertzea bidaliko dute Ainhoa Aezkoara. Ordura arte beretako ezezaguna zen mundu bat deskubrituko du. Pertsonaia asko agertuko dira traman, guztiak fikziozkoak.

Nobela beltza bogan dago?

Uste dut badela genero bat beti irakurleak izan dituen, baina orain bereziki sona hartu du.

Eta zuk gustuko duzu?

Nerabezaroan asko irakurri nuen, ama oso zalea zelako, baina urte batzuetan apartatua izan dut. Idazteko orduan asko gustatu zait, gertatzen den horretan zentratzen zaituelako, pertsonaien ezaugarri bereziekin eta akzioarekin, derrigorrean.

Antzerkiaren askotariko ikuspegiak partekatzen

Sormen egonaldiak antolatu ditu DAPEk; izen ematea zabalik dago otsailaren 3a arte

A.A.J. ELGETA

Euskarazko antzerki sorkuntza sustatu eta euskal sortzaileen lana ezagutzera emateko asmoz, Debagoieneko Antzerki Plataformak, Elgetako Udalarekin elkarlanean—Europatik datorren Next Generation izeneko laguntzari esker—, sormen egonaldiak antolatu ditu. "Sormen prozesuak herriari zabaltzea da programaren helburua; debagoiendarrek antzerki-obren beste ikuspegi batzuk ezagutzea nahi dugu, antzerkia irisgarriago eta parte-hartzaileago eginez", azaldu dute DAPEkoek.

Otsailaren 15ean argitaratuko dute aukeratutako proiektuen zerrenda eta otsailaren 22tik, eguaztena, apirilaren 2ra, domeka, bitartean egin beharko dituzte egonaldiak.

Lau proiektu aukeratuko dituzte

Euskal antzerki sortzaile profesionalak zein amateurrek izango dute ekimenean parte hartzeko aukera. Lau proiektu aukeratuko dituzte aurkeztutako lanen artean: konpainia profesionalen bi proiektu, amateurren bat eta debagoiendarren bat, hain zuzen; euskaraz izango dira guztiak. Informazio gehiago, *Dap.eus* atarian.

HARIRA ESKORIATZA

AGINTALDIARI ERREPASQA UDAL ORDEZKARIEKIN

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA' SAIOA

URTARRILAREN 31N, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

JOSERRA ZUBIZARRETA (ESKORIATZAKO ALKATEA) ETA

NESTOR ARANA (EH BILDUREN BOZERAMAILEA)


GOIATZ ARANAK AURKEZTUTA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Motz taldeko Joseba Azkarate. I. S.



Perlata taldeko Ane Garai. I. S.



Biznaga taldeko baxu-jotzailea. BIZNAGA

Punk-rock melodikoa eta hitz zorrotzak Oñatin

Oñatiko Motz, Arrasateko Perlata eta Madrilgo Biznaga punk-rock taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, 22:00etan, Oñatiko gaztelekuan; sarrerak eskuragarri daude 'Oñati.eus' atarian eta Txokolateixan, eta bihar, gaztelekuko leihatilan

Aitziber Aranburuzabala Juldain OÑATI

"Biznagaren kontzertu batera joan ginen taldeko baxu-jole Txebi eta biok eta handik irten-dakoan Oñatin eurekin kontzertu bat antolatzekeo ideia izan genuen; heldu da eguna eta sekulako ilusioarekin gaude", dio Motz taldeko Xabi Elortza *Txirli* gitarrak-joleak.

Argitaratu berri duten *Bremen no existe* laugarren bilduma aurkeztuko dute madrildarrek Oñatin, Gasteizko Helldorado aretoan gaur gauean eta bihar eguerdian egingo dituzten emanaldien ostean. "Melodia handia duen punk-rock taldea da, landutako hitzekin osatutako kantutak dituena; proposamen freskoa", dio Elortzak.

Anfitrioi eta taularen gainean

Xabi Elortza *Txirli* gitarrak-jolea, Jabi Bujanda *Txebi* baxu-jolea, Joseba Azkarate bateria-jolea, Ima Ugarte gitarrak-jolea eta Xabier Pascual *Pasku* dira Motz

taldeko kideak. "Pandemian gitarrarekin probatzen hasi nintzen eta auto-istripu baten ondorioz urte batzuetan bateria albo batera utzita zuen Josebarekin elkartzen hasi nintzen haren etxean. Hasierako asmoa ez zen taldea sortzea, baina beste hiru kideak batzen joan ziren, poliki-poliki, eta, harrezkero, zazpi kontzertu egin ditugu. Oso harreman ona dugu eta musika daramagu guztiok barruan. Ondo pasatzea da asmoa".

Rock melodiko doinuekin jantzitako hitz zorrotzak dira Motzen ezaugarri. "Hamabost bat eskainiko ditugu ordu bete pasako emanaldian, gureak eta aurrez ibili izan garen taldeen bertsoiak nahastuta".

OÑATIKO MOTZ, ARRASATEKO PERLATA ETA MADRILGO BIZNAGA BIHAR GAZTELEKUAN

Perlata ere "gogotsu"

"Pozarren" onartu zuten gonbidapena Arrasatekoek. "Gustuko ditugu bi taldeak eta deseatzten gaude taularen gaina partekatzeke. Perlata inoiz baino indartsuago dago, gauza berriak egiten eta egiteko gogoz. Txerra Bolinaga da orain gure bateria-jolea. Oso pozik gaude eta asko dugu elkarrekin emateko, eta hasi gara abesti berriak prestatzen ere. Dokumental bat be badugu esku artean, aurrerago kontatuko duguna". dio Perlatako kide Ane Garaik.

Sarrera gutxi geratzen dira

Zortzi eurotan daude sarrerak Txokolateixan eta *Oñati.eus* atarian eskuragarri eta hamar eurotan izango dira bihar gaztelekuko leihatilan. "Sekulako erantzuna jaso dugu eta oso ondo doa salmenta; gutxi geratzen dira. Aurrez iragarri moduan, leihatilarako gorde ditugu sarrera batzuk, baina ez dira asko izango", dio *Txirli*-k.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

Kindle e-booka

Parte hartzekeo sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzekeo, sarrerak.

Parte hartzekeo sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzekeo sariaren izena: Otarrea

www.harremanakide.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sonaren oena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzekeo artean egingo da zozketa. Inbentari daguen 15/1/1999 legearen arabera, jirarekin dagoen datu pertsonalari Goiena foruakiko Jabetzaren Iturriko Autonomikoa batera zuzenduko dira. Datu-bilaka horien helburu bakarra da inbentari daguen datuaren garapena. Eskubide onargarriak dituzten orok, helburu horiek adierazteko helburu horien datuak, goienakide@goiena.eus

Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zük eta zük aukeraturako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida otsailaren 5ean 18:30ean izango da.

Parte hartzekeo azken eguna: urtarrilak 31





Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzekeo azken eguna: urtarrilak 31



GOIENAKIDE Jabetzera [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzekeo eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide
Okm: batzen gaituen distantzia

ESKELA

Antxoni Txintxurreta Lete
(Antxoni jatetxea)
Faustino Lazkanoren alarguna



2023ko urtarrilaren 26an hil zen, 89 urte zituela.

Bihotzean mina utzi diguzu, baina baita mila oroitzapen eder ere. Maite zaitugu.

Haren seme-alabak: Juan Carlos eta Mailu Agirrezabal, German eta Marivi Barrutia. Bilobak: Aitor, Ainhoa eta Luis.
Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Familiak Bergarako Oroiloren hartuko zaituzte gaur, egubakoitza, 11:00-13:30 eta 16:00-18:00 artean.

ESKELA

Maria Belastegi Ojanguren
Lekaima



2023ko urtarrilaren 19an hil zen, Valladoliden, 90 urte zituela.

Bai bihotzean eta bai gogoan egongo gara beti batera.

Hileta-elizkizuna Angiozarko San Migel parrokiari izango da, datorren igandean, urtarrilak 29, 11:00etan.

Bertaratuko zaretenoi eskerrik asko familiaren izenean.
Bergaran (Angiozar), 2023ko urtarrilaren 27an.

ESKELA

Boni Usatorre Moreno
Juan Mari Roaren alarguna



2023ko urtarrilaren 25ean hil zen, 92 urte zituela.

Etxearen partetik, gure bihotzean betiko.


Haren oroimenez, azken agurreko hileta-elizkizuna gaur, ostirala, izango da, 19:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Etorriko zaretenoi, bihotzez aurrez eskerrak familiaren izenean.

Oharra: familiak ez du inor hartuko.
Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 27an.

OROIGARRIA

Mertxe Elorza Elkoro



2023ko urtarrilaren 20an hil zen, 93 urte zituela.

Intxorta elkarteko joko-lagunok beti izango dugu gogoan.

Elgetan, 2023ko urtarrilaren 27an.

ESKER ONA

Arantza Biain Biain
Felix Biainen alarguna



2023ko urtarrilaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan, urtarrilaren 28an, izango da, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko urtarrilaren 27an.

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



Gari deitu zuzenean edo, nahizago baskara, jakinarazi zuen asaguru-kospainari gurekin nahi duzela agurtu maite duzuen.

Marioen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuretzako, bihotza sendatzeko bala duten horietakoak. Guk baditugu gordera zuretzako, gure beharra duzuenetarako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
Egubakoitza, 27 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 28 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Domeka, 29 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
Astelehena, 30 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 31 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 2 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
- BERGARA EGUNEZ**
Egubakoitza, 27 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 29 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 30 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 31 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 1 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 2 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
Egubakoitza, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 28 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 30 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 31 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 1 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 2 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
2023 osoan: AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



Lagunartean
Giro horretan egon ziren Bergaran egindako futbol egokituko topaketan. Gozatu ederra hartu zuten.



Ipintzako argazkiak Antzuolan
Asko dira Bergarako institutuan ibili diren antzuolarrak. Hala, ikastetxearen 50. urteak laburtzen dituen bilduma Olan eraman dute.



Danborrak astintzen
Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako 2 eta 8 urte arteko neska-mutikoei eta hainbat ikasleren aitona-amona taldetxo batek San Sebastian eguna ospatu zuten.

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**KIROLA EGITEN HASTEKO GOMENDIOAK**

Malen Ruiz de Azuak eta Iñigo Barrenak aurkeztuta. Besteak beste, Erik Martin prestatzaile fisikoarekin egongo dira.

'Bizi ON!' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

**OÑATIKO OSOKO BILKURA**

Urtarrileko osoko bilkurak eman duena ikusteko aukera, oso osorik. 2023ko lehena izango da.

'Bereziak' Zapatua, 15:30, eta domeka, 17:00

**ZER EMAN DU AGINTALDIAK ESKORIATZAN?**

Goiatz Aranak bukatzeaz dagoen agintaldiaren errepaso egingo du Udalean ordezkaturik dauden alderdietako ordezkariarekin.

'Harira' Martitena, 21:00 eta 23:00

**KANTARIREN EMANALDIAK**

Bergaran grabatutako emanaldiak ikusteko aukera, Beñat Arizabaletarekin eta Aitor Agirianorekin.

'Kantari' Egutero, 17:30

**ARRAGOA TALDEAREN EMANALDIA**

Danbakako finalean Bergarako taldeak egin zuen kontzertua osorik ikusteko aukera.

'Danbaka' Eguena, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 27**ARETXABALETA XVI.****Huhezinema jaialdia**

14:30ean eta 16:45ean, Sail Ofizialeko lanen proiektzioa; 19:00etan, sari banaketa; 20:30ean, luntxa; 21:30ean, elektrotxaranga; eta 23:30ean, DJa. *Arkupen.*

ELGETA Ipuinen ordua

17:30ean, HH3ko eta HH4ko umeendako; 18:00etan, HH5ekoak, LH1ekoak eta LH2koak; eta 18:30ean, LH3koak, LH4koak eta LH5ekoak.

Liburutegian.

ARRASATE 'Guatemalako egoera politikoaren analisia' hitzaldia

Guatemalako abokatu Jordan Andrade Rodasek egingo du berba, Askapenak gonbidatuta. *Kulturaren, 18:00etan.*

ARRASATE Dantzaldia

Portaloiz Elkartearen eskutik. *Kulturoloan, 18:30ean.*

ELGETA Koko-batzea: dantzak eta batzarra

Otsailaren 11n egiteko den koko-batzea prestatzeko saioa. *Gimnasioan, 19:00etan.*

BERGARARA Hamarratz taldea

Kantu martxosoak eta bertsoiak eskainiko dituzte. *Angiozarko Ortzi tabernan, 19:00etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak

19:30ean, pintxo-poteoa Peru Abarrategi, Xabi Igoa eta Ane Zuazubiskar bertsolariarekin; eta, 22:30ean, mus txapelketa. *Meatzerrekan.*

ELGETA Gazte asanbladaren aurkezpen ekitaldia

20:00etan, Unai Cantabrana; 21:00etan, Trumas eta Olatz Ugarte; eta 22:30ean, DJ Texas. *Espaloian.*

ANTZUOLA Bertso saioa eta kontzertu akustikoa

20:30ean, Mikel Iturriotz, Garazi Navarro eta Asier Galarza *Muxi*

bertsolarien saioa; eta ostean, Tabu bikote akustiko arrasatearraren kontzertua. *Gaztetxean.*

BERGARARA San Paulo jaiak

20:30ean, jaien hasiera eta pintxo-potea; eta, 21:00etan, afaria. *Uberan.*

OÑATI Vifara eta Nihil taldeak

Sarrerak: hiru euro langabeek eta ikasleek eta bost langileek. *Antixenean, 22:00etan.*

ZAPATUA 28**ARRASATE Zuhaitz landaketa**

Etkezaretara parkean egingo dute. Gomazko katiuskak eramatea gomendatu dute. *Etkezaretara parkean, 10:00etan.*

BERGARARA 'Umorea eta generoa' hitzaldia

Bea Egizabal Ollokiegarekin eta Paki Caballero Martinekin. *Agorrosinen, 10:00etan.*

BERGARARA San Paulo jaiak

11:30etik 16:00etara, umeendako jolasak eta puzgarriak; 12:00etan, salda eta txorizoa; 13:00etan, tarta eta tortilla lehiaketa; eta, 14:00etan, bazkaria. *Uberan.*

OÑATI Herrixa Kantuan

Jose de Azpiazu musika eskolako en eskutik. *Kontzejupean, 12:30etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak

14:30ean, bazkaria; 17:00etan, Lopene ganadutegiko zezen txikien eta poneyen ikuskizuna; 18:30ean, txokolate-jana, umeendako eta helduendako; eta, 21:00etan, Kontralde taldearen kontzertua. *Meatzerrekan.*

ELGETA 'Escape room'-a

Seigarren mailatik gorakoendako ekintza. *Ludotekan, 16:00etan.*

OÑATI Euskal Herriko Mus Txapelketarako kanporaketa

Izen-ematea: hogeituro bikoteko. *Boga tabernan, 16:30etan.*

ARRASATE Auzolana, gaztetxoendako

Gaztelekua txukuntzeko hitzordua. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra

Pizza egingo dute. 12-16 urte artekoendako. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

OÑATI Biznaga, Perlata eta Motz taldeak

Sarrerak: aurrez zortzi euro eta bertan hamar. *Gaztelekuan, 22:00etan.*

DOMEKA 29**BERGARARA Txistulari Banda**

Kalejira egingo dute. *Uberan, 10:00etan.*

ELGETA Bisita gidatua**lubakietara**

Izena ematea beharrezkoa da: turismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARAMAIO Mendi irteera**Orixolera**

Gorbeialdeko Gurasolagun taldearen eskutik. *San Kristobalen, 10:30ean.*

ARRASATE San Baleixo jaiak

10:45ean, meza San Baleixo ermitan, Gesalibarko eta Garagartzako koruek lagunduta; 12:00etan, euskal dantzak Txikitxu-Arrostaitz taldearekin; eta, 13:15ean, dantzariendako luntxa. *Meatzerrekan.*

BERGARARA San Paulo jaiak

10:00etan, Bergarako txistularien diana; 11:00etan, meza; 12:00etan, salda eta txistorra, eta, 12:15ean, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia. *Uberan.*

BERGARARA Bideoklip aurkezpena

Ndank Ndank elkarteak Bizipozarekin grabatutako bideokliparen aurkezpena. *Seminarioan, 12:00etan.*

ESKORIATZA Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa
Izen-ematea: hogei euro bikoteko.
Inkernu tabernan, 16:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0 eta 8 urte arteko haurrendako.
Okendoko ludotekan, 17:30etan.

ARRASATE Aratusteen gaineko batzar irekia
Gaztetxoedako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Hablar entre dientes' ikuskizuna
Jaime Figuerola oholatza gainean.
Sarrerak, bost euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

ELGETA Herrixa Dantzan
Ireakia.
Espaloian, 19:00etan.

ARETXABALETA Erromintxelak taldea
Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Hondamendia' antzezlan
Artedrama eta Axut! konpainien eskutik. Sarrerak, hamar euro.
Santa Anan, 19:00etan.

ARRASATE 'Flamenco etxea 2' ikuskizuna
Gorka Hermosaren eta Jose Luis Montonen proiektua, Mariana Collado dantzariarekin. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30etan.

ASTELEHENA 30

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.



ARTEDRAMA

OÑATI 'Hondamendia' antzezlan
Artedrama eta Axut! konpainien eskutik. Harkaitz Canok idatzi eta Ximun Fuchs-ek zuzendutakoa. Ander Lipus, Maite Larburu eta Manex Fuchs oholatza, besteak beste. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:30etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE 'Euskararen kolapsoa ala kolapsoaren euskara' hitzaldia
Sukar Horia kolektiboko kideek egingo dute berba.
Kulturaten, 19:00etan.

MARTITZENA 31

ARRASATE 'Jarri begirada zahartzaroan' hitzaldia
Pepa Bojo psikologoaren hitzaldia, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30etan.

OÑATI Tertulixan, gazteleraz
No digas nada liburuaren gaineko saioa, Monika Leivak gidatuta.
Liburutegian, 18:30etan.

ARRASATE Literatura solasaldia, ingelesez
Big little lies telesailari buruzkoa.
Kulturaten, 18:30etan.

ELGETA Irakurketa taldea
Bertol Arrietaren *Gezurra berdaderoa* liburuaren gainekoa.
Liburutegian, 19:00etan.

BERGARA 'Cuerdas' filma
Ondoren, Bergarako erraustegiaren eta bestelakoen inguruko irizitrukatzea egingo dute.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'Suro' pelikula
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:30etan.

EGUAZTENA 1

OÑATI 'Mendebaldeko Sahara: gatazkak jarraitzen du. Zergatik?' hitzaldia
Garazi Hach Enbarek-ek egingo du berba.
Santa Anan, 10:00etan.

OÑATI Auzoetako jai batzordeekin biler
2023ko egutegia zahazteko.
Kultura etxean, 18:30etan.

BERGARA 'Petit fleur' filma
Jatorriko bertsoan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ARRASATE Santa Ageda koruen entsegua
Otsailaren 4ko eskea prestatzeko.
Harresi aretoan, 21:00etan.

EGUENA 2

ARAMAIO Santa Agedako azken entsegua
Otsailaren 4ko eskea prestatzeko.
Musika Etxean, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Etxekalte
Bermeoko laukotearen kontzertua. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El peor vecino del mundo
Zapatua eta astelehena: 19:30.

Inspector Sun y la maldición de la viuda negra
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Al descubierto
Domeka eta astelehena: 19:30.

Rabbit academy
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Todos lo hacen
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Yoko oporretan
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Living
Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

EIBAR

COLISEO

Al descubierto
Zapatua: 19:45, 22:00.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

El asombroso Mauricio
Zapatua eta domeka: 17:00.

Babylon
Zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 16:30, 20:00.
Astelehena: 20:30.

El falsificador de pasaportes
Zapatua: 16:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

A todo tren 2
Zapatua eta domeka: 11:45.

As bestas
Egunero, domeka izan ezik: 17:00.

Domeka: 16:30.

Avatar
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 20:00.
Zapatua: 11:30, 20:00.
Domeka: 11:30, 19:30.

Babylon
Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 17:00, 20:30.
Zapatua: 11:30, 17:00, 20:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 20:30.

Close
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka: 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Decision to leave
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:30.
Domeka: 18:0, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

El asombroso Mauricio
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua: 12:00, 17:00.
Domeka: 12:00, 16:45.

17:00.
Domeka: 12:00, 16:45.

El gato con botas
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua: 12:00, 17:00.
Domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Holy spider
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 16:45, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 20:15.

La ballena
Egubakoitza: 19:15, 21:45.
Zapatua: 11:30, 19:15, 21:45.
Domeka: 11:30, 18:45, 21:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30.
Martitzena: 17:00, 19:30.

Living
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:30.
Domeka: 18:45, 21:00.

KRITIKA

Holy spider ★★★★★
Zuz.: Ali Abassi. **Herr.:** Danimarka (2022). **Aktoreak:** Zar Amir Ebrahimi, Mehdi Bajestani. **Iraupena:** 117 minutu.

Konponbide zaileko egoera

ANTONIO ZABALA

Holy spider thriller indartsua da. Istorioa 2021ean kokatzen da Irango Mashhad hirian. Hiltzaile bat kalean dauden prostitutat hiltzen ari da. Haren hilketa metodoa biktimak itotzea da. Teherandik kazetari bat helduko da, gertatzen ari denaren gaineko ikerketa egiteko eta informazioa lortzeko. Istorioaren garapena bi alderditatik heltzen zaigu: batetik, kazetariaren ikerketak jarraituko ditugu. Hiriko poliziarekin, agintari erlijiosoekin eta prostitutekin dituen topaketak; bestetik, hiltzailearen eguneroko bizitza emaztearekin eta seme-alabekin. Burutzen dituen hilketak detaile eta gordintasun osoz ikusiko ditugu. Istorioa aurrera doan neurrian, paralelo

doazen bi alderdiek elkartzten bukatuko dute. Baina filma ez da bukatzen kasua argitzen denean. Ostein, gizarteak erantzuteko duen modu ezberdinak ezagutuko ditugu.

Ali Abassik thriller baten bidez kritikatu nahi du Irango gizartean dauden pentsaera eta portaera matxistak. Emakumeak asasinatuak izaten diren bitartean, mandatariek eta poliziek oso interes gutxi erakusten dute hiltzailea topatzeko. Kazetaria emakumea da eta horrek zailtasunak eta gutxiespenak sufritzea dakarkio. Fundamentalismoa eta matxismoa indarrean daude Irango gizartean, eta, konponbide bat aurkitu ezean, belaunaldiz belaunaldi hedatzen joango dira.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

'Bretxa': konpromisoa

Kolorea, zarata, emozioa, ahots biziak, sendoak, dantzariak, musikariak, teknikariak, laguntzaileak eta zuzendariak, hori guztia osatzen dute 100dik gora bergararrek. *Bergararik Broadway*-ra ere izendatu nezakeen artikulua hau, baina Broadwaykoak profesionalak dira eta bergarar artista hauek guztiak ez dute zentimo bakar bat ere kobratzen.

Ikasleak, langileak, jubilatutak... bakoitzak bere eguneroko lanak ditu, baina hilabeteetan zehar sekulako esfortzua egin dute ikusleoi opari hau eskaintzeko.

Donostiarrak bergararren aurrean makurtzea lortu izana ere ez da txantxetako! Erroka hau nota altuarekin gaintzeaz gain, Bergara Antzerki Musikala taldeak beti egin ohi duen bezala, oraingoan ekarritako aldarrikapena emakumeon ahalduntzearen eskutik etorri da. Maritxuren ahotik kontatzen zaigu Donostiaren sutearen historia, ez gizon baten ahotik, ohikoa den bezala. Sarritan entzuten dugu jendeak egun ez duela konpromisorik hartu nahi, baina hona hemen konpromisoaren adibiderik handiena. Beste modu batera ezingo litzateke horrelakorik egin.

Bejondeizuela denoi. Zorionak eta eskerrik asko!

BUKATZEKO



Joan den asteburuan Bergaran egin zituzten lehen emanaldiko entseguak. GOIENA

Dena gertu Kantari saioaren 8. aldia hasteko

Bergarako Seminarixoa egingo dute aurreneko emanaldia, bihar, eta datozen asteetan Aretxabaletan, Oñatin eta Arrasaten izango dira; euskal abestiak taularatuko dituzte 700 neska-mutirik eta otsailaren 25etik aurrera Goiena telebistan izango dira ikusgai

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA
Bihar bertan emango zaio hasiera Kantari karaoke saioaren zortzigarren aldiari, Bergaran, eta datozen asteetan Aretxabaletan, Oñatin eta Arrasaten grabatuko dituzte emanaldiak; guztiak, 16:00etan hasita. Denera, Debagoieneko 7 eta 11 urte bitarteko 700 neska-mutiko inuruk eman dute izena. Bi urtean

behin jokutzen den lehiaketa kutsurik gabeko karaoke ikuskizuna joan den urtean zen egitekoa, baina pandemia tarteko urtebete atzeratu da. Gainera, 2020ko edizioan ezin izan zen Bergarako ikuskizuna egin egoeragatik, eta, horregatik, hantxe izango da lehen grabaketa.

Urtero bezala, zozketa bidez egin dute kantu-banaketa eta

kantu zaharrak eta berriagoak izango dira entzungai. Talde berriak ere gehitu dituzte errepertoria, hala nola ETS, Nogen eta Huntza.

Beñat Arizabaleta da saioaren aurkezlea eta Itziar Unanue izango dute bidelagun entsegutan parte-hartzaileak. Arizabaletak aitortu du haur askorentzat eszenatoki gainera igotzen diren

aurreneko aldia dela eta urduri joaten direla. Unanuek, berriz, Kantari ezagutzen du, baina haurren ikuspuntutik; izan ere, txikitari birritan hartu zuen parte: "Orain, berriz, ezberdin ikusten dut, baina lasai eta pozik nago".

Lehen entsegua, eginda

Joan den zapatuan egin zuten lehenengo entsegua Bergaran oholtza gainean izango direnek, eta batzuek aitortu zuten hitzak ikastea kostatu zaiela abestia zaharra zelako eta ez zutelako ezagutzen. Hala ere, orokorrean, gustura eta gogotsu agertu dira.

Dantza ere egin beharko dute, eta, horregatik, hainbat koreografia-pauso prestatu dituzte neska-mutirik. Arizabaletak aurreratu du Tiktoken eta halako sare sozialetan ikusten diren dantza-pausoak ere badaudela.

Goiena telebistan ikusgai

Emanaldi guztiak grabatuko ditu Goienak eta otsailaren 25etik aurrera astebururo bi saio berri izango dira ikusgai Goiena telebistan. Halaber, emanaldi bakoitza egin eta hurrengo astean, seme-alaben ikuskizuneko argazkiak jasoko dituzte eskuko telefonoz; telebistako emisioaren ondoren, berriz, bideoa. www.goiena.eus-en ere ikusi ahal izango dira eduki guztiak.

Debagoieneko mugetatik kanpo

Goienaren Kantari Gasteizen ere egingo da, martxoaren 18 eta 19an, Geu elkartearekin eta Alearekin elkarlanean. Hamasei ikastetxetako 325 partaide izango ditu, hamalau ikuskizunetan banatuta.



Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

ERREGE KOPA

Reale-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek
Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.
Partida otsailaren 5ean 18:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 31

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



**Egin
bazkide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzue!**

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia